


ERROMAURREKO IBERIAR PENINTSULAKO ANTZINAROARI BURUZKO MATERIALAK Iberiako hegoaldeko herri eta kulturak

M^a Cruz González Rodríguez



ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

www.argitalpenak.ehu.es
ISBN: 978-84-9860-648-5

eman 19 zabal zazu!

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

**ERROMAURREKO IBERIAR PENINTSULAKO
ANTZINAROARI BURUZKO MATERIALAK**
Iberiako hegoaldeko herri eta kulturak

ERROMAURREKO IBERIAR PENINTSULAKO ANTZINAROARI BURUZKO MATERIALAK

Iberiako hegoaldeko herri eta kulturak

M^a Cruz González Rodríguez

emán ta zabal gau



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Azala/Portada: Bronce de Samos. Museo Arqueológico de Samos (nº inv. A775). Extraído de J. R. Corzo Sánchez, «El drago de Cádiz en un bronce samio del siglo VII a. C.», *Laboratorio de Arte* 11, 1998, pp. 27-50 (p. 44, fig. 2).

Itzultzailea: Iñaki Villoslada Fernández

Testu hau Koldo Larrañaga Elorzak, UPV/EHUko Antzinaroaren Historian Katedradun jubilatua, eta Txipi Ormaetxeak, UPV/EHUko Euskara Zerbitzuko kideak, zuzendu dute.

Eskertza: Elena Torregarai Pagola EHUko Antzinaroaren Historiako Irakasle Titularrari testua gainbegiratzeko hartutako lanarengatik.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-648-5

L.G./D.L.: BI-701-2012

2012

www.argitalpenak.ehu.es

Per a Xavier, per les hores no compartides

Material hauen argitalpenaren bidez, Iberiar penintsulako lehenengo garaiei buruz euskarazko bibliografian dagoen hutsunea bete nahi izan da, aldez. Eta langintza hori ez zen bururatuko Elena Torregaraik eta Koldo Larrañagak itzulpena, sakonki eta zehazki, berrikusi izan ez balute. Bioi adierazi nahi diet nire eskerrik beroena, egindako lan emankor eta desinteresatuarengatik, eta horri eskainitako denborarengatik, oso bereziki Koldori, zeinak bere merezitako erretiroaren denbora eskaini baitio, egonarri eta arreta handiz, azken bertsoaren zuzenketari. Halaber eskerrak eman nahi dizkiot Manuel Ramírezi, Fortunako irletatik, lan kartografikoa egin baitu, eta Jesús Mari Makazaga EHUko Euskara Zerbitzuko zuzendariari, eskuliburuaren hizkuntza-zuzenketaren tramiteak hain egoki bideratzegatik. Denoi eskerrik asko.

Vitoria-Gasteiz, 2012/02/12

AURKIBIDEA

Atarikoa	13
1. Zeltak eta feniziarrek Iberiar penintsulan barrena	15
1.1. Atarikoa	15
1.2. <i>Urnenfelder</i> edo «Kutxa-zelaietako» kultura delakoa	16
1.3. Iturri idatziak zeltei eta Pirinioez bestaldeko herriei buruz	18
1.4. Feniziarren presentzia Iberiar penintsulako kostaldean	24
1.4.1. Atarikoa	24
1.4.2. <i>Gadiraren</i> fundazioa: arazoak eta eztabaida	26
1.4.2.1. Ustezko «kolonizazioaurreaz»	29
1.4.3. Feniziarren jarduera Atlantikoan zehar eta penintsulako hego-ekialdean	34
2. Tartessos: Ekialde-joerako aroa	39
2.1. Atarikoa	39
2.2. Iturri literarioak: Tartessos en identifikazioa greziar autoreetan	40
2.3. Hierarkizazio soziala Arkeologiaren argitan	45
2.4. Antolakuntza politikoa aro helenistikoko eta erromatarreko iturri literarioen argitan	46
2.4.1. Justinok Gargaris eta Habis-i buruz jasotakoa: arazoak eta eztabaidak	49
2.5. Jarduera ekonomikoak eta teknologia-aurrerapenak: gizarte indigenaren erlaldakuntza	53
3. Iberiar penintsularen hegoaldeko erromaurreko herriak: turdetaniarrak	57
3.1. Atarikoa	57
3.2. Turdetania literatura-iturrien argitara	57
3.3. Etnonimia-arazoak: <i>Turdetani</i> - <i>Turduli</i>	60
3.3.1. Tartesotarren eta turdetaniarren arteko harremanaren auzia.	63
3.4. Antolamendu politiko eta soziala	64
3.4.1. Delako mendekotasun komunitarioaz: arazo eta eztabaidak	67
3.5. Jarduera ekonomikoa Turdetanian	70
4. Eranskinak	73
4.1. Testuak	73
4.1.1. Zeltak eta feniziarrek Iberiar penintsulan	73
4.1.2. Tartessos: Ekialde-joerako aroa	75
4.2. Bibliografia	77
4.3. Mapak	86

ATARIKOA

Liburu honen helburua honako hau da: Historia Gradua egiten ari diren Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleei eta, oro har, Iberiar penintsulako protohistoriaz interesa dutenei hurbilpen eguneratu eta sintetikoa eskaintzea, K.a. lehen milurtekoan — zehatzago, Brontze-bukaera-Burdin Aro-hasieraren eta erromatar etaparen hasiera (K.a. 218. urtea) bitartean — penintsulak bizi izandako prozesu historikoei buruz. Aldi horren konplexutasun eta heterogeneotasuna kontuan harturik, zonalde batean jarri da arreta: Iberiar penintsulako hegoaldean. Hain zuzen ere, gune pribilegiatua baita hori, garapen historiko desberdinetako herri indigenei Mediterraneo ekialdeko herrien etorrerak — feniziarrenak bereziki — ekarri zizkien eraldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalak aztertu ahal izateko.

Iberiar penintsulako hegoaldean arras ongi nabari daitezke, *tartesotar* edota *turdetaniar* gisa ezaguturiko kulturak osatu eta garatzeko orduan, eraginkorrak izan ziren faktoreak. Hori guztia aztertzeke asmoz, kontuan izan dira, alde batetik, kultura indigenaren dinamika, eta, bestetik, Iberiar penintsulan nabari diren kanpo-eraginak — bai Pirinioez haratagoak, herri indoeuropar edo zelten etorreraz bertaratuak, bai mediterranearrak, feniziar kolonizazioan edo delako aro *ekialdezalean* mamiturik ikusten direnak —. Eragin horiek zuhurtziaz aztertu behar dira, eragin kolonialari edo «inbasio zeltei» — sarritan egin den gisa — neurritz kanpoko garrantzirik eman gabe, Iberiar penintsulako gizatalde indigenen aldaketen azalpen-iturri bakarra balira bezala.

Lehenengo atala herri zeltek eta feniziarrek penintsulan izandako eraginari buruzkoa da. Bigarrenak penintsulako hego-mendebaldeko *ekialde-joerako aro* delakoa izango du hizpide, eta tartesotar zibilizazioan nola «gauzatu» zen aztertuko du. Hirugarrena, berriz, lehen kultura historikoari buruzkoa da; turdetaniarrari buruzkoa, alegia.

Atal «teoriko» horri laugarren bat gehitu zaio, non, diskurtso historikoaren oinarritzat erabili ohi diren materialen hurbilpen gisa, Antzinateko autoreen testu sorta bat eskaintzen baitugu, eta bibliografia eransten halaber, aurreko ataletan jorratutako gai nagusiez eskuliburuak zein obra orokorrak biltzen dituen, baita lan berezituagorik ere, aspekturen batean sakondu edo zehaztu nahi duen irakurlearen lagungarri. Azkenik, aipaturiko toki eta zonaldeen identifikazio azkar eta eroso ahalbidetzeko asmoz, mapa sail batekin osatu da eskuliburu.

Iturriei buruz, eta Iberiar penintsulako protohistoriaz ari garelarik, adierazi behar da bi motatakoak ditugula: materialak eta idatziak. Mota bakoitzeko iturrien garrantzia, edonola ere, aldagarria da, analizatu nahi den gai edo alderdiaren arabera.

Arkeologiak, jakina denez, lorratz materialak aztertzen ditu, eta, hizpide dugun aro honetarako, sarri funtsezkoa zaigu; are gehiago, iturri bakarra da hainbat kasutan.

Iturri idatziak ere nahitaezkoak dira ez bairik gabe. Hiru multzo nagusitan banatu ohi dira: iturri literarioak, epigrafikoak eta numismatikoak.

Iturri literarioei darien penintsularen irudia kanpotik begiratzen diotenena da, eta egiten dituzten deskribapenetan nahiko argi islatzen da greziarrek mendebaldeko mutur honetaz zuten interes eskasa. Iberiar penintsulak, muturreko edota periferikoa izateagatik, ez zuen izan Asia edo Italiaren protagonismorik, geografiari buruzko greziarren hausnarketan. Mendebalde urrunaren *exzentrizitate* edo *periferikotasun* ikuspegi hori gerra punikoekin hasi zen aldatzen, Iberia Mediterraneoko historian parte-hartzaile bihurtu zen unean, alegia.

Horregatik, greziar eta latindar autoreen obrak aztertzerakoan, ezinbestekoa da halako lanen zentzu zehatza bilatzetik hastea, beti ere honako puntu hauek kontuan hartuz: autorearen mentalitatea, obra mota eta haren ezaugarriak, obraren jatorrizko hartzailea, hura txertatzen den tradizio historiografikoa, informazio-iturriak, eta abar. Era horretan bakarrik, hots, greziar eta latindarrek kultura ‘barbaroak’ irudikatze orduan ohiko ziztuzten irizpide soziologiko eta historikoak ezagututa, bereiz daiteke deskribapenetan zer zen erreala eta zer irudipenezko edo mitikoa.

Antzinateko autoreen testigantzez gainera, badaude lekukotza eskaintzen duten beste idatzi batzuk ere, material (harri, metalki, zeramika...) iraunkorren gainean eginak, eta *sensu stricto* epigrafiaren bidez aztertu behar direnak. Emari berriei irekia dagoen iturria da, Antzinateko autoreen iturri idatziak ez bezala; izan ere, aurkikuntza berriak gerta daitezke, eta, ondorioz, informazio berria jaso dezakezu bide horretatik.

Epigrafeetan jasotako datuez gainera, erromaurreko garaiaz egindako azterketetatik hizkuntza-eremuen mugatze espaziala azpimarratu behar da, zonalde kulturalen arteko mugak zehazteko lagungarri gerta baitaiteke.

Halaber, epigrafiak erromaurreko herrien gizarte-antolamenduari buruzko funtsezko argibideak ematen ditu. Baina, iturri literarioen kasuan bezala, historialariak zuhur jokatu behar du *interpretatio romana* delakoari dagokionez, ezin baita ahaztu Iberiar penintsulako gizarte indigenen zenbait ezaugarri (turdetaniar gizartearena, kasu) ezagutu ahal izan direla erromatarrek material iraunkorren gainean gizarte-bizitzako hainbat aspektu idatziz uzteko zuten ohiturari esker.

Iturri horiek guztiak baliatu ditugu hemengo egitekoan. Dena den, kontuan izanik, alde batetik, egilearen prestakuntza eta dedikazioa, eta, bestetik, sintesi historiko bat eskaintzea izan dela asmoa, irakurleak iturri idatzien azterketa sakonagoa aurkituko du.

Laburbilduz, eskuliburu honen helburua Euskal Herriko irakurleei Iberiar penintsulako Antzinatearen lehen uneei buruzko gida eguneratu eta dokumentatua eskaintzea da, garai hartako kulturak xeheki aztertuz. Kultura horiek —Tartesokoa eta Turdetaniakoa, besteak beste— Erromatar Inperioaren baitan integratuak gelditu ziren, kulturen mosaiko anizkoitz baten parte bilakatuta.

1. ZELTAK ETA FENIZIARRAK IBERIAR PENINTSULAN BARRENA

1.1. Atarikoa

Arkeologiak, Iberiar penintsulako zenbait tokitan, penintsulatik kanpo paraleloak dituzten kultura materialeko objektuak aurkitu ditu, Kristo aurreko lehen milurtekoan datatu behar diren objektuak, hain zuzen. Halaber, aldakuntzak eta eraldaketak antze-man ditu orduko ohituretan, deigarrienak izanik, gero ikusterik izango denez, hileta-errietuetan gertatu zirenak.

Ikerlari askok, kultura-aldaketa guztien abiapuntutzat kanpoko herrien eragina ikusi nahi izan duten *difusionismo* teoriak erakarririk, atzerriko eragileei leporatu zizkieten luzaz eraldatze horiek —Erdialdeko Europako populazio taldeen etorrerari, zehazki, edota, penintsulako Hegoaren kasuan, batez ere, mediterranean Ekialdeko herri kolonizatzaileen etorrerari—.

Kultura materialeko elementu horiez gainera, hizkuntzalaritza alorreko testigantzarik ere jaso da, berantagoa noski; baina horri esker jakin ahal izan da egon zirela Iberiar penintsulan hizkuntza indoeuroparrez mintzo ziren herriak. Hizkuntza-lekukotasun horiei gehitu behar zaizkie geroago ere herri zelden presentzia garbi aski aditzera ematen duten autore klasikoen idatziak. Beraz, aro diferenteetako iturri ezberdinak ditugu, ildo berekoak, Pirinioez bestaldeko herrien presentzia penintsulan agerian uzten dutenak. Autore klasikoek emandako argibideei jarraiki, erregistro arkeologiko nahiz linguistikoan neurri handiago edo txikiagoan arrastoa utzi ziguten populazio talde horiek zeltatzat jo behar dira.

Baina gauza bat da gizatalde horiek Iberiar penintsulara etorri zirela ezagutzea eta onartzea, eta beste bat, txit ezberdina, haien jatorria baieztatzea, eta nondik, nola eta noiz etorri ziren zehaztasunez jakitera iristea. Prozesu konplexu honetaz jabetu ahal izateko, iturriak sakon aztertu behar dira eta datuak ondo neurtu.

Iturri idatzien artean, literarioek Pirinioez haraindiko herrien izenak ezagutzeko parada eman digute, eta, halaber, Epigrafiak —latindarrak eta aurrelatindarrak—, Numismatikarekin bat, hizkuntza-ezaugarriez zerbait jakin ahal izateko aukera eskaini digu. Arkeologia, bestalde, klasikoen adierazpenei eta lekukotasun linguistikoei esker identifikatutako populazio taldeen eta haiei egotzitako kultura materialaren ezaugarrien arteko balizko loturaz arduratu da. Azken gai horri dagokionez, zera esan behar da: kultura materiala eta herriak —zeltak, gure kasuan— identifikatzeko luze iraun duen joera birplanteatu beharra dagoela, diziplina desberdinen aurrerapenetan oinarri hartuta.

Gauzak horrela, diziplinartekotasuna ezinbestekoa izango da, Iberiar penintsularen Antzinaroko beste zenbait arlotan bezala, Pirinioez bestaldeko herrien etorrera eta presentziari buruzko zenbait alderdi zehaztu ahal izateko; izan ere, bakarrik erregistro guztien interpretazio bateratuak ahalbidetuko du ezagutu nahi den errealitate historikorako hurbilpen zehatzago bat. Horren harira, baieztza daiteke artean eskura ditugun datuez baliatuz zenbait ondorio jakinetara iritsi gaitzkeela; baina,aldi berean, aitortu beharra dago dena ezin dela argitu, eta sarri egin daitekeen bakarra hipotesi batzuk aurreratzea baino ez da izango. Eta hipotesiok frogatzen ez diren bitartean, ezingo dira behin betikotzat eta irmotzat jo, batez ere kontuan izanik azterketarako ditugun baliabide nagusietako hiru —Arkeologia, Epigrafia eta Numismatika— irekita (hots, ekarpen berriei zabalik) daudela.

1.2. *Urnenfelder* edo «Kutxa-zelaietako» kultura delakoa

Iberiar penintsulan bertan atzematen den aldaketa aipagarrienetako bat errauste-errituari loturik ageri zaigun «Kutxa-zelaietako» kulturarekin gertatu zen. Bosch Gimperak Iberiar penintsulako eta Erdialdeko Europako protohistorian dokumentatu ahal izan diren hileta-erritu eta kultura materialaren azterketa konparatiboa burutu zuen XX. mendeko bigarren hamarkadan, eta erritu eta kultura berri horien agerpena penintsulan argitze aldera, *inbasioaren teoria* proposatu zuen, iragan mendeko seigarren hamarkadara arte iraun duen teoria, hain zuzen. Gimperak lurralde ezberdinen artean atzemandako kultura-antzekotasunak kanpoko eraginari egotzi zizkion, hots, Erdialdeko Europako herrien inbasioari. Eta autore klasikoek penintsulan ematen zen zelten presentziaz argiro ohartarazi zuten, uste izan zuen saldoka etorritako zeltak izan zirela kultura berria bertaratu zuten Erdialdeko Europako herri horiek; eta era honetan paratu zen *inbasioaren esplikazio-eredua*. Ruiz Zapateroren hitzek (1985, 24) ongi azaltzen dute hori:

«un cambio marcado en la cultura material en un tiempo relativamente corto debe explicarse por la llegada de una nueva población».

Gaur egun zonaldeka egindako azterketa arkeologikoen balorazio zorrotzagoa egiteko aukera eman digute *inbasio* horien izaeraz eta funtsaz, K.a. lehen milurtekoan Iberiar penintsulak nozituriko aldaketa guztiak herri horiei egotzi baino lehen. Ziurtatu ahal izan da ez dagoela datu arkeologikorik Bosch Gimperak proposatutako datetan —hots, K.a. 900ean, K.a. VII. mendean, K.a. 600ean edo K.a. 550ean—, inbasio-uholde zeltikoez hitz egin ahal izateko.

Gaur egun, badakigu (eta ohiko ikusmoldeekin alderatuz aurrerapauso nabaria izan da) *kutxa-zelaiak* agerpena —hilobi laueta errautsak kutxa edo atabaka moduko zeramikazko ontzietan ehorztearena, alegia— kultura arkeologiko baten adierazpidea dela (Ruiz Zapatero, 1985, 29), eta ez duela zerikusirik hizkuntza zeltikoen hedatzearekin edo zelten inbasioekin. Aipatu ikerlan berri horiei esker, beraz, bertan behera gelditu da ia modu mekanikoan eratu zen *inbasio* teoriaren ondorengo ekuazioa: kultura materiala (kutxa-zelaiak) = mintzaira (zeltera) = herria (zeltak). Gainera, Arkeologiak lurraldekako ikerlan asko burutu ahal izan ditu eta, haiei esker, bazterturik gertatu da behinolako zelta bateratu eta homogeneousen ideia, hots, II. Burdin Aroko

ezarmendu eta material arkeologiko jakinak uztea eta mintzaira zeltikoak erabiltzea ezaugarri zituena.

Kutxa-zelaietako kultura arkeologikoa oso ondo dokumentaturik dago Iberiar penintsulako zonalde zehatz batean: ipar-ekialdean (gaurko Katalunian eta Ebro haraneko erdi-goiko aldean) eta Levanteko lautadan (ikus. 2. mapa). Haren ezaugarri nagusia da hilotzak erretzea — artean zonalde honetan ohikoa zen errituaz bestelakoa —, errautsak zeramikazko atabaketan gordetzea eta kultura-eredu honi izena eman dioten hilobietan lurperatzea.

Ruiz Zapaterok (1985, 1052-1074) hiru fase bereizi zituen kultura-eredu hau aztertzerakoan. Lehenengoa antzinako *kutxa-zelaiei* dagokie, eta kronologia K.a. 1100-900 urteak bitartean hedatzen da. Fase hau Languedoc-eko eta frantziar Roselló-ko populazio talde txikien ekarpen edo barneratze etnikoari zor bide zaio, Segre ibaiaren goi haranetik eta Pirinioetako ekialdeko pasabideetatik barrena sartu (ikus. 2. mapa), eta Segre haranean, Anpurdànen eta kataluniar kostaldean kokatu zirenak. Antzinako fase hau ekarpen xumeekin erlazionatu da. Gauzak horrela, esan daiteke kultura material honen eramaileak, lehen fasean, ez zirela jatorriz Erdialdeko Europakoak — *inbasio* teoria tradizionalak defendatzen zuen moduan —, baizik eta Pirinioez bestaldeko zona hurbilekoak, oinarri ekonomikoak nekazaritzan eta abeltzaintzan zituztenak, hain zuzen ere.

Bigarren fasea K.a. 900-700 urte bitarteko *kutxa-zelaiei* dagokie, eta aldian zehar barne-eboluzio bat bizi izan zuen kultura arkeologiko honek. Berrehun urte horietan penintsulako ipar-ekialde osoan eta Valentziako lautadetan zabaldu zen, eta talde erregionalak eratu ziren: Anpurdàkoa; kataluniar kostaldekoa; Katalunia barrukoa; Cinca-Segrekoa; Beheko Aragoikoa; Ebroren erdi-goiko eta goiko haranetakoa, eta Valentzia iparraldekoa. Ekonomiaren ikuspegitik, nekazaritzaren garrantzia azpimarratu behar da — zona batzuetan nabariagoa —, baita abeltzaintzaren jarraipena ere. Bestalde, fase honen barruan, K.a. VIII. mendean zehazki, ekarpen etniko berriak egon ziren Mendebaldeko Pirinioetan barrena, batik bat Ebro ibaiaren goi haranean nabaritu zirenak.

Kutxa-zelaietako kulturaren barne-eboluzio horri dagokionez, aipatzea merezi du, ehorzketa molde horrez gainera, lurrezko eta harrizko tumuluak azpian egindakoak ere agertu direla Behe Aragoiko eta Segre haraneko populazio taldeetan. Denbora luze samarrean, ehorzketa molde hori Pirinioez bestaldeko populazioei egotzi zaie; baina azterketa berriagoek bertako jatorriaren teoria aintzat hartzera bultzatzen dute.

Kutxa-zelaietako hirugarren eta azken fasea kultura horren eraldaketari dagokiona da, mediterranean herriekiko harremanek baldintzaturik, K.a. 700 eta 500 urteak bitartean eman zena, hots, burdina-metalurgia eta ontzigileen tornua erabiltzen hasi zirenean. Siderurgiaren hastapenak Erdialdeko Europako herrien etorrerari edota *inbasio* deiturikoei lotu izan zaizkie denbora luzean. Dena den, gaia hobeto aztertzea komeni da eta ez, besterik gabe, berrikuntza hori hedapen-bide horri soilik leporatu, kasu guztietan bi gertakizun horien artean lotura zuzena eta nolabait derrigorrezkoa eman izan balitz bezala, gero eta datu gehiago agertzen ari baitira, feniziarren merkataritza kolonialaren garrantziaz kostaldean ohartarazten dutenak (ik. 2. mapa).

Azken fase honetan, aurrekoekin alderatuz, azpimarratu beharrekoak dira gizarte-hierarkizazioaren zantzuak — adibidez, ospea adierazten zuten objektuen «metake-

ta» —. Arkeologoaren iritziz, elite baten sorreraren sintomatza jo daiteke hori —geroko iturri literarioetan aipatzen zen aristokrazia indigenaren hazia, uste denez—.

Laburbilduz, kanpoko eraginen auziari gagozkiolarik, gaur egun esan dezakegu, Arkeologiaren argitan, bide bakarreko *inbasio* teoria ezin dela, adierazia dagoen bezala, inola ere mantendu; beraz, adierazpide hori gehiago zehaztu behar da Pirinioez bestaldeko populazioaren ekarpenak aipatzerakoan. Zalantza izpirik ere ez dago Pirinioen inguru hurbileneko herri batzuen sarraldi edo *infiltrazioak* gertatu zirenekoaz, iturri arkeologikoek hori ematen baitute aditzera; baina nekez esan daiteke *inbasioak* egon zirela, zeren eta *infiltrazioak* ez ziren masiboak izan, alde batetik, ezta oldarkorrek ere, bestetik —inbasioa gertatzen dela onartu ahal izateko, ezinbestean elkarrekin bildu behar diren ezaugarriak dira biak, Erromatar Inperio bukaerako barbaroen inbasioak erreferentzia bihurtuta, kontzeptu edo terminoak bi tasun horiek berezkoz hartu ondoren—. Oso zaila da modu ulergarrian bateratzea ipar-ekialdeko kultura materialaren azterketak argitara ekarritako datuak, alde batetik, eta iturri idatziek hizkuntza zeltikoen presentziaz Hispanian diotena, bestetik. Izan ere, gaur egun —orain arte zeltei lotu izan zaien kulturaren azterketa arkeologikoa burutu ostean— dakigunaren arabera, aditzera eman behar da, lehenik eta behin, kultura horren mapa eta hizkuntza paleohispanikoena elkarren gainean jarritz, aipatu ipar-ekialdeko zona hizkuntza zeltikoak mintzatzen ziren zonalde indoeuoparretik kanpo gelditzen dela, hain zuzen —hortaz, hizkuntza eta idazketa ez-indoeuoparreko zonalde barruan aurkitzen dela—. Dena den, banaketa orokor horrek ez du nahitaez esan nahi —García Alonsok (2005, 235) azpimarratu duenez— zonalde horietan erromatar konkista aurretik erabilitako hizkuntza iberiera zenik. Beraz, *kutxa-zelaiak* eta hizkuntza zeltikoen arteko ekuazioa ez da sinplea eta mekanikoa Iberiar penintsulan; izan ere, modu nagusi eta zabalean (baina ez eskusiboan) zelterak dokumentatzen baitira erromatar aldiaren ipar-ekialdeko eremutik kanpo; beraz, *kutxa-zelaietako* kultura era nabarmenean azaltzen den tokitik kanpo.

Autore klasikoek herri zeltikoen presentziaz ohartarazi gintuzten, eta hortik etorri da iturri batzuk eta besteak bateratzeko gogoia; beti egiterik izan ez dena, ikusi dugunez.

1.3. Iturri idatziak zeltei eta Pirinioez bestaldeko herriei buruz

Zelten presentzia Iberiar penintsulan aipatzen duten iturri literario zaharrenak, ez oso zehatzak nolana ere, K.a. V. mendekoak dira. Garai hartan greziarrek ez zituzten oso ondo ezagutzen Europa mendebaldeko mugak. Ezer gutxi zekiten Iberiar penintsulako etnografiari eta geografiari buruz eta, ondorioz, nekez eman zezaketen datu zehatzik horretaz. Lehen aipuak Herodotorengan aurkitzen ditugu, baina autore honek Mendebalde urrunaren gainean zuen interesa zeharkakoa zen; izan ere, haren benetako interesgunea Ekialdea zen, Persiar Inperioa, alegia. Herodotok bi bider aipatu zituen penintsulako hego-mendebaldeko zeltak (*Historia* II, 33, 3 eta IV, 49, 3), eta haien kokagunea mendebaldean —Heraklesen zutabeetatik haratago— egon arren, ez da auzoena —*kynetes*-ena, alegia— bezain mendebaldarra, horiexek izaki mendebaldarrenak —*eschatoi*—:

«...Eta zeltak Heraklesen Zutabeetatik at daude eta Europan sartalderantz egoitzaturik daudenetatik azken bizi diren zynesioekin mugakide dira» (Herodoto, *Historia* II, 33, 3 [itzulp.: USABIAGA, Iñaki, *Herodoto*, Klasikoak bilduma, 1997])

Herakleako Herodotok ere *kynetes* horiek aipatu zituen K.a. V. mendean, sartaldeko munduaren muturrean bizi zirela adierazita.

Beraz, K.a. V. mendean barbaroen arteko mendebalderanzko azken muturrekotzat zeltak eta *kynetes* direlakoak jotzen ziren; dena den, K.a. V-IV. mendeetako greziarren ezagupenak inguru horietaz hain urriak izanik, esandakoak erreferentzia generikotzat hartu behar ditugu, «*ondo ezagutzen ez den lurralde bateko biztanleak*» izendatzeko erabiltzen diren erreferentziatzat, alegia, Ciprés-ek (1999, 131) egoki argitzen duen moduan. Tankera bertsukoak dira K.a. IV. mendeko Efororen aipuak ia Gadeseraino iristen bide zen Zeltikari buruz, edota Pseudo-Escimmo-renak K.a. II.ean. Gauzak horrela, georago arte itxaron behar dugu, penintsulako etnografiaz eta bertako zeltez beste autore batzuen informazio geografiko zehatzagoa izateko.

Halako informaziorik ez da izango Iberiar penintsula Erromaren agintepeko bihurtu arte —erromatar konkista burutu arte, beraz—. *Hispaniako* zeltei buruzko informazio osatuagoa, hain zuzen ere, Estrabon greziar geografoari zor diogu, eta haren kontakizuna, aro-aldaketaren bezperan mamitua, erromatar konkistak ahalbidetu zuen penintsula barruko ezagutza zehatzagoari dagokio. Estrabonek zeltatzat zituen populazio taldeak identifikatu zituen, honako hau seinalatuz:

«...[iberiarrek] beren armak bateratu izan balituzte, kartagotarrek ezin izango zieten zigorgabe eraso eta menderatu, gehienekin egin zuten moduan, ez eta lehenago ere tiryarrek, eta gero, zeltek [*keltotí*], orain zeltiberiarrak edo beroiak direnak» (III, 4, 5.).

Eta beste pasarte batean:

«Zeltiberiarren iparraldean Beroiak bizi dira, kantabriar koniskoen mugakide, eta haiek bezala zelten migrazioen ondorio...» (III, 4, 12).

Augustoren garaiko greziar geografoaren esanetan, hispaniar zeltak ziren bere garaian beroi eta zeltiberiar izenez ezagutzen zirenak (ik. 1. mapa). Datu interesgarri bat ere erantsi zuen herri horien jatorriaz, esanez zeltek, tiroarrek edota kartagotarrek bezala, iberiar —Iberiako biztanle— gehienak menderatu zituztela; beraz, penintsulara iritsitako zeltek armen bidez azpiratu zituzten indigenak.

Estrabonen informazio hori hobeto ulertzen da jarraian Apianoren eta Diodoro Siziliakoaren hitzak jartzen direnean:

«Iberiaren hedadura —zenbaitek orain *Hispania* bezala ezagutzen dutena, eta ez *Iberia* izenez— itzela eta sinesgaitza da herri bakar bat osatzeko, haren zabalera hamar mila estadiokoa baita eta beste hainbestekoa haren luzera. Herri asko eta izen anitzeko bizi da bertan, eta erruz dira, halaber, ibai nabigagarriak.

Ez da nire asmoa —Erromaren historia arakatzera mugatzen naizenez— haren [Iberiaren] lehenengo biztanleez eta hauen ondoren haren jabe egin zirenez aritzea. Dena den, irudi zait noizbait zeltak, Pirinioak zeharkatu ondoren, bertan bizi izan zirela, bertakoekin bat eginez, eta horretan datza zeltiberiar izenaren jatorria». (Apiano, *Iberia* 1-2).

«Kartagotarren jeneral gisa, Hamilkar-ek izugarri abantzarazi zuen epe laburrean bere aberria, eta, itsasoan barrena, Heraklesen zutabeetaraino eta Gadiraraino iritsi zen, Ozeanoan. Gadir feniziarren kolonia bat da, mundu habitatuaren mutur-muturrean kokaturik dagoena, Ozeanoan, eta kaia duena. Iberiaren eta tartesotarren kontra borrokatuz

—Istolazio, zelten jenerala, eta beronen anaia ere tartean—, denak garbitu zituen, baita bi anaiak eta beste hainbat buruzagi ospetsu ere...»

(Diodoro Siziliakoa 25, 10)

Honenbestez, autore hauek, aurrekoen aipamen lausoez haratago, populazio-osa-gai zelta baten presentzia seinlatu zuten bertan, jatorriari eta kronologiari («antzina-koa», Apianoren esanetan) dagokienez, ezezagun zaizkigun jende-mugimenduen ondorio zena. Zelta horiek indigenei gailendu zitzaizkien, beraiekin gerora bat eginez, eta Estrabonek idazten zuen garaian populazio talde bereizgarria eta ezaguna osatzen zuten.

Bestalde, iturri literarioen ekarpenak bat datoz zeltiberieraren zeltatasunari dagokionez, hizkuntzalaritzaren datuekin. Era berean, Numismatikan ikusi ahal izan da (García-Bellido, 1999), *-kos* atzizkia (adibidez, *titiakos* legendan) idatzirik daramaten txanponetan —beroiak, itxura guztien arabera—, armen irudiztatzea eta, oro har, estilo artistikoa ere zeltatzat jo daitezkeela. Beraz, datu linguistikoak —eta numismatikoak— autore klasikoen informazioa berrestera etorri dira beraien eta zeltiberiarren izaera (edo osagai) zeltikoari dagokionez. Dena den, nahiz eta iturri idatziak bat datozen zenbait daturi buruz, ez da oraindik ondo ezagutzen erromaurreko bi herri horien osaera, hots, ez dago argi iturriek aipaturiko etorkin zeltikoen etorrerarekin hasi eta zelten *oinordeko* bide diren populazio taldeak —hots, zeltiberiar eta beroiak— egituratu arte luzatzen den bilakabide historikoaren afera. Tamalez, ez dago oraingoz korapilo hau erraz askatzerik, eta, azken orduko ikerlan arkeologikoen argitara emandakoaren arabera, argi dagoen datu bakarra zera da, bilakaera konplexu eta katramilatsua izan zela oso, eta bat egin zutela bertan barruko zein kanpoko korrante kulturalak.

Horrela, adibidez, *zeltiberiar kulturaren antzinako* —VII-VI. mende inguruko— fasea nola osatu zen ulertu ahal izateko, beharrezkoa da kontuan hartzea prozesu hori anitza eta konplexua izan zela (Burillo, 1998, 120), eta bertan zenbait jatorritako ekarpenek eta kultura-tradizio anitzek egiten zutela bat: kontinentekoek, mediterraneanarrek eta iberiarrek, hain zuzen ere. Eta Zeltiberiaren kasuan, Europa erdialdeko osagaiaren garrantzia aipatu zuen ikuspegiaren aldean, duela gutxiko indusketa eta prospekzioek (Arenas, 2004 eta 2005) ahazturik egon den beste zenbait faktoreren funtsa jarri dute agerian; hala nola, mediterraneanar erdialdeko eta ekialdeko eragin kulturalarena, batez ere Zeltiberiaren ekialdeko zonaldean.

Zeltiberiarrez eta beroiez gainera, iturri literarioek Iberiar penintsulako hego- eta ipar-mendebaldean kokaturiko beste populazio talde bat jo zuten zeltatzat: *celtici* direlakoak, alegia.

Estrabon izan zen, berriro ere, hego-mendebaldeko *keltikoí* batzuk aipatu zituen, zehaztuz Tajo eta Anas (Guadiana) ibaiak zituztela mugatzat:

«ibaien arteko lurra (mesopotamia), erromatarrek mugiarazitako Tajoz bestaldeko lusitaniar batzuek eta zeltek okupatzen dutena» (III, 1, 6)

Eta gaineratu zuen:

«Euren herrialdearen ezaugarri egokiei turdetaniarrek portaera zibilizatuen eta zentzu politikoaren abantailak gehitu dizkiete; eta zeltek ere bai, alboan bizi direlako edo,

Polibiok dioen bezala, ahaide (*syngéneia*) izateagatik, baina maila apalagoan, nolana ere, hauek, hain zuzen, herrixketan bizi baitira gehienak» (III, 2, 15).

Zelta horien jatorriaz — gogoan izan K.a. V-IV. mendeetako iturriek zeltei eta zyesioei buruz ziotena —, informazio baliagarria eman zuen Plinio naturalistak:

«Betis-etik Anas ibairaino zabaltzen den eskualdeak Baeturia du izena eta bi alde eta herritan (*gentes*) zatitzen da: *Celtici* deituak, lusitaniar muga, delako *Hispalensis conventus*-ekoak, eta *Turduli* direlakoak, Tarracoenensis-eko eta Lusitaniako mugetan bizi direnak [...]. *Celtici* horiek Lusitaniatik etorritako zeltiberiarrak direla argi ematen dute aditzera kultuek, mintzairak eta euren bizilekuen (*oppida*) izenek, izan ere, hauek, Betikan, *cognomina* edo izengoitiei esker bereizten baitira...» (NH III, 13-14).

Plinioren hitzetatik ondorioztatzen da hego-mendebaldeko *celtici* horiek zeltiberiarrengandik zetozela, hala erakusten baitzuten mintzairak, toponimiak eta erlijiozko portaerak ere. Hego-mendebaldeko zeltikoen eta zeltiberiarren arteko *ahaidetze* horretaz den bezainbatean, erantsi behar da Estrabonek *celtici* horien eta ipar-mendebaldekoen artean bide zen ahaidegoaz esaten diguna. Eta horiekin osatuko litzateke erromatarren garaiko autore klasikoek zeltatzat jotako populazio taldeen zerrenda. Estrabonen hitzak dira ondorengoak:

«Artabroak bizi dira urrutien, Nerium izeneko lurmuturraren ondoan, Iberiako iparraldearen eta mendebaldearen bukaeran. Baina inguruan jende zeltikoak bizi dira, Anaseko ertzekoen ahaideak (*syngénes*) direnak. Izan ere, hauek espedizio bat egin zuten behin lurralde hartara turduliarrekin, eta liskarra izan zuten, diotenez, Limaeas ibaia zeharkatu ostean, eta, liskarra jasateaz gainera, buruzagia ere galdu zuten jende zeltikoek, eta ondoren bertan sakabanatu ziren eta finkatu, eta hori dela kausa hartu bide zuen Limaeas ibaiak *Lethe* (= ahaztura) izena ere» (III, 3, 5).

Pliniok ere aipatu zituen ipar-mendebaldeko zelta horiek (NH III, 28), baita Melak ere; honek, ordea, beste izen bat erantsi zion herri zelten zerrendari, ipar-mendebaldeko artabroak *celticae gentis* (III, 13) zirela zehaztu zuenean.

Iturri literarioen berri horietatik zera ateratzen da: kronologikoki zehatzezin gertatu den une batean, zelten populazioen ekarpenak izan zirela Iberiar penintsulan, eta autore klasikoek urteak joan ahala — Goi Inperioan eta Printzipatuan — zeltiberiar eta berroiekin identifikatu zituztela, gainera, lehenengo ondorengotzat zituzten euren artean ahaideturiko zeltikoak.

Aipagarria da zeltiberiarrengandiko herri zeltikoen agerpen hori hego-mendebaldean — eta ipar-mendebaldean —, zeren eta penintsularen barruko populazio-mugimenduen testigantza baita, eta abisu edo gaztigu bat, era berean, erromaurreko herrien historia zerbait estatiko eta aldagaitz gisa irudikatzen duten berreraikitze historikoei. Erromatar garaian gogoan zituzten barne-mugimendu horiek erlazionatu beharko lirateke agian (ik. geroago kultura materialaren analisisen datuak) ekonomikoki dinamikoagoak ziren penintsulako zenbait zonaldek — hego-mendebaldekoek, adibidez — zonalde pobreen gain erakutsi zuten erakarpen-indarrarekin (gerora ere, erromatar aginpidearen aro betean, meatzaritzako zonaldeekin gertatuko zen bezalaxe, Huelvako zonaldeak, adibidez, erakarpen-gune izan ziren Penintsulako iparraldeko zenbait zonalderikiko).

Bestetik, ezin dira ahaztu erromatarren garaiko lekualdatze militarrek; Estrabonek berak ere aipatu zuen halakorik ipar-mendebaldeko zeltikoen kasuan.

Populazio talde zeltaren arteko loturaren eta harremanen gaia ere oso interesgarria da. Estrabonek aditzera eman zuen hego-mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko zeltikoak *ahaideturik* (*syngénes*) zeudela —esan nahi baita jatorri komuna izan zezaketela—. Pliniok ere gauza bera adierazi zuen hego-mendebaldeko zeltikoak zeltiberiarrengandik zetozela baieztatu eta ipar-mendebaldeko zeltikoen jatorria, halaber, hego-mendebaldean jarri zuenean. Beraz, jatorri etniko komunak funtsezko osagaia dirudi zeltiko eta zeltiberiarren arteko ahaidetasunaz mintzo denean, eta horri beste hiru ezaugarri gutxienez lotu behar zaizkio: mintzaira —zeltikoak zeltiberiarrengana hurbildu eta penintsula hegoaldeko beste talde batzuegandik urruntzen dituen—, erlijioa eta toponimia (*Nertobriga* edo *Turobriga* bezalako izenak argiak dirateke alde horretatik).

Poseidoniok, Estrabonek dioenez (III, 2, 15), turdetaniarreko ahaidetasuna (*syngéneia*) aipatzen zuen hego-mendebaldeko zeltikoen garapen-maila argitze aldera; Estrabonek, ordea, haien arteko auzokidetza zuen hizpide.

Kontuan izan behar da turdetaniarrekin askotan identifikatu ohi diren turduliarrek (gai honi buruz hitz egingo da geroago ere) Iberiako herririk zibilizatuentzat jo zituztela autore klasikoek. Estrabonek esandakoari bagagozkio, hirigintza oso garatua zuten turduliarrek, zeltikoek ez bezala. Batzuen eta besteen artean desberdintasun nabariak zeuden, hain zuzen ere, zeltikoak zeltiberiarren pare egiten zituztenak —hots, mintzaira, toponimia eta erlijioa, jatorria alde batera utzirik—. Horiek horrela, arrazoizkoago eta gertagarriago dateke ipar-mendebalderanzko irtenaldi bateratua egin zuten turduliarren eta zeltikoen antzekotasunak hurbiltasun geografikoari —auzotasunari— eta okupatzen zuten zonaldearen eraginei leporatzea, Poseidoniok iradokitako ustezko ahaidetasunari bainoago. Agian, kasu honetan ere «ia denean antzeko agertzen zen lurralde batean bizitzeak» —Estrabonek, germaniarren eta galiarren lurraldeen kasuari dagokionez, ohar-tarazten zuen legez (IV, 4, 2)— eragin zuen I. eta II. mendeetako autore klasikoek ahaidegoaren edo auzotasunaren ondorio gisa argitzen ahalegindu zirena: jatorri, hizkuntza, toponimia eta erlijio ezberdinetako bi herri, denboraren harian, antzeko instituzioak eta ohiturak izatera iristea.

Edonola ere, ahaidegoa eta auzotasuna batera joan ohi dira Estrabonen obran, zenbait ezaugarri komun zituzten herriak deskribatzean, eta ez da, beraz, harritzekoa bi bereizgarri horiek berberak aipatu izana, penintsulako hego-mendebaldeko turduliarren eta jatorri zelta zuten herrien arteko harremana deskribatzeko.

Hizkuntzalaritzak hego-mendebaldeko zeltikoez emandako argibideei dagokionez, nahikoa adierazgarria da Plinioren toponimoen zerrenda (dagoeneko aipatu ditugu batzuk), hizkuntzaren osagai zeltikoa agerian jartzeko orduan; era berean, Numismatika autore klasikoen informazioa berrestera etorri da. Pliniok (*NH*, IV, 116 eta 118) Lusitanian kokatu zituen zeltikoak, eta horrek argitzen digu *Tamusia*-ko txanpon-etxearen kokapena (gaur egungo Villasviejas de Tamujan edo inguruan, Cáceresen), zeltiberiarren lekualdatze berantiar bati lotu izan zaiona (García-Bellido, 1995, 267-271).

Hizkuntzalarien azterketek mintzaira zeltikoen presentzia berretsi dute, halaber, ipar-mendebaldean, herri horiek populaturiko lurraldeetan hain zuzen, artabroenean

zehazkiago, besteen artean, *Auiliobris* toponimoak garbi aski erakusten duenez (De Hoz, 1994; De Bernardo, 2002).

Arkeologiari dagokionez, hego-mendebaldean iparralderagoko zonetan aurrekariak zituen zenbait kultura-osagai berriren hedapena atzeman da K.a. V. mendearen bukaeran (Berrocal, 1992). Horren adierazgarri da bestelako ohitura eta tradizioak zituzten populazio berrien ezarmendua, V-IV. mendeen artean, mendebaldeko Sierra Morenako iparraldean, El Castañueloko aztarnategian (Huelvako mendizerran), eta Ardila eta Serán ibaien arroko aztarnategietan. Lehena oso ondo komunikaturik zegoen Riotintoko meategiekin; beraz, ematen du bete egiten dela kasu honetan goraxeago zonalde batek, bere ekonomiari esker, beste zenbaiten gain izan zezakeen erakarpen-indarraz esaten genuena.

Arkeologiak erakutsi du, bestalde, ipar-mendebaldeko zeltikoen kultura materialari dagokionez, *iparraldeko kastroen kultura* osatuz joan zela VIII-V. mende bitartean. Prozesu hori, zeltiberiarren kulturaren kasuan bezalaxe, oso konplexua izan zen eta, gauzatu ahal izateko, mota eta jatorri anitzeko eragileek hartu zuten parte. Ereku geografikoak diferenteak dira, eta, balorazioa egiteko orduan, kontuan izan behar dira penintsulako beste zonalde batzuekiko harremanak, bereziki Ebro haraneko *kutxa-zelaie-tako* talde berantiarrekin eta penintsula hegoaldeko kultura ekialdezalearekin izandakoak, nahiz eta Arkeologiak kanpoko ekarpen etnikorik ez duen atzeman.

Beste alde batetik, osatze-aro horretako ezarmenduen alderik azpimarragarriena ipar-mendebaldeko *kastroen kultura* osatuko zuten lehenengo herrixka egonkorrek agertzea da.

Atal hau bukatu aurretik, datu garrantzizko bat komeni da azaltzea; izan ere, jatorriz zeltatzat jotako populazio taldeen eta linguistikoki neurri batean edo bestean zeltatzat egiaztatutako zonaldeen ondoan, baziren penintsulako mendebaldean hizkuntza indoeuropar ez-zeltikoak mintzatzen ziren zonaldeak, hizkuntzalaritzari esker detektatu ahal izan direnak, hain zuzen. Gorrotxategiren eta De Hozen ikerketen arabera, hizkuntza batek gutxienez testigantza idatziak utzi zituen, testu bakan batzuetan: lusitaniar hizkuntzaren kasua da. Lusitaniera indoeuropar ez-zeltikotzat jotzea bat dator iturri literarioek lusitaniarrei buruz ziotenarekin; izan ere, populazio talde hori ez zuten zeltatzat jotzen.

Estrabonek, zeltiberiarrak eta beroiak ez bezala, iberiartzat, hots, Iberiako biztanletzat jotzen zituen lusitaniarrak:

«Tagotik iparraldera, Lusitania da iberiar herrien artetik handiena eta erromatarren aurka denbora gehien borrokatu zena» (III, 3, 3);

eta

«Iberiarrek, nolabait esatearren, denak *peltastak* ziren, eta armamentu arina zera-maten, gaizkileen bizimodua egiten baitzuten, lusitaniarrei buruz esan genuen bezala, eta azkona, habaila eta sastakaia erabiltzen zituzten» (III, 4, 15).

Gogoratu behar da Estrabonek lusitaniarrak eta zeltak bereizi egiten zituela (ik. III, 1, 6), eta hori jatorri ezberdinaren aldeko datua da. Indoeuropar hizkuntza ez-zeltikoen

arrastoak, lusitaniarren artean ez ezik, linguistikoki konplexua den ipar-mendebaldean ere aurkitu izan dira.

Orain artekoa laburbilduz, esan behar da Hizkuntzalaritzak eta Antzinaroko autoreen datuek, kronologikoki bateraerazak ez diren kultura materialeko lekukotasunekin bat, zera erakusten digutela, zeltak Iberiar penintsulan sartu zirela, alegia, denboraren joanean penintsulako zelta-herriak bilakatuko zirenak, hain zuzen: zeltiberiarrak, beroiak eta beste talde txikiago eta geografikoki barreiatuagoak — lehengoengandik eratorriak kasu batzuetan —, hots, zeltikoak.

Oraindik argitu gabeko galdera da zein une zehatzetan iritsi ziren Iberiar penintsulara erromatar garaiko epigrafian gehienez — baina ez eskusiboki — beren hizkuntzen testigantza utzi ziguten herri horiek.

1.4. Feniziarren presentzia Iberiar penintsulako kostaldean

Mediterranean Ekialdeko lehen kolonizatzaileak ere K.a. lehenengo milurtekoan etorri ziren Iberiar penintsulara. Siria eta Libanoko kostaldeko biztanleak ziren, greziarrek *phoinikes* — feniziarrek edo «gorriak» —, purpuraren kolorearengatik, deitu zituztenak; haien lurraldea ere, arrazoi berberarengatik, Fenizia — *Phoiniké* edo «purpuraren herria» — deitzen zen.

1.4.1. *Atarikoa*

Feniziarren ezarmendua Iberiar penintsulako kostaldean zalantzarik gabeko gertakaria da, eta horren lekuko ditugu bai Arkeologia bai autore klasikoak ere. Arkeologiak feniziar kolonizazioa greziarrena baino lehenagokoa dela frogatu du, eta azterketa kronologiko berriek (Ruiz Mata, 1999, 308) feniziar kolonia zaharrenak K.a. VIII. mendeko lehen urteetakoak direla (edo K.a. IX. mendekoak, kronologia desberdinen arabera) erakutsi dute. Era berean, landa-lanek kolonizazioaren testuingurua eta, K.a. VIII-VII. mende bitartean (ik. Tartesori buruzko atala), hinterland kolonialeko komunitate indigenentzat izan zituen ondorioak agerian utzi dituzte. Dagoeneko alde batera utzi dira difusionismoak eragindako muturreko jarrerak, erregistro arkeologikoak azaleratutako aldaketa guztiak — zelden kasuan gertatu zen bezala — eragin kolonialari egozten zizkietenak eta luze iraun dutenak. Mundu indigenan errealitate kolonialaren karietara abian jarritako eraldaketak eta aldaketak ukaezinak dira, noski, baina, edonola ere, ezin dira indigenak elementu jasaile huts balira bezala tratatu eta, ondorioz, kontuan izan behar da zonalde geografiko bakoitzean feniziarrek bertaratu aurretik zegoen garapen-maila; izan ere, tokian tokiko gizarte indigena aintzakotzat hartzen duen ikuspegia emankorragoa da feniziar kolonizazioa aztertzeko, eta, honek izandako eragina eta ondorioak ebaluatu ahal izateko, merezi duen arreta eskaini behar zaio, Arkeologia medio, azaleratzen eta ezagutarazten ari den mundu indigenari. Kultura materialaren analisiak hegoaldeko komunitate indigenak Atlantikoko Brontze Aro bukaera aldeko mundu sozioekonomiko eta kultural konplexu batean bizi zirela erakutsi du, feniziarrek koloniak ezarri zituztean. Giza erkidego horiek jarduera ekonomiko nagusien arabera planifikaturiko habitat

guneetan bizi ohi ziren: nekazaritza eta abeltzaintza eta, neurri txikiagoan (Huelvako zonan izan ezik), meatzaritza eta metalurgia ziren funtsezko ogibideak; eta euren herriek garraiobideen kontrola errazten zuten tokietan jarrita zeuden. Aubet-ek (1995, 148) ondorengo adierazi du, Málaga-ko zonari dagokionez:

«las comunidades indígenas del hinterland de las colonias fenicias controlaban vías de comunicación hacía el interior y estaban ubicadas en zonas estratégicas de comunicación y explotación de los recursos que estaban en condiciones de imponer derechos de acceso al interior y a las principales rutas comerciales....»

Beraz, kasu honetan ere bilakaera historiko konplexu baten aurrean gaude, zeinean faktore anitzek hartu zuten parte; eta horietako bat ahazteak, edo, aldiz, neurriz kanpo balioesteak, errealitatea lausotu dezake.

Antzinateko autoreen idatziak ere arkeologoen datuekin bat datozela dirudi, feniziar kolonizazioa greziarrena baino lehenago datatzerakoan. Horrela ulertu beharko lirarteke Estrabonen ondorengo hitzak:

«Feniziarrek, diodanez, deskubritu zuten (Iberia) eta Iberiako eta Libiako zona onena okupatu zuten, Homeroren aroa baino lehen, eta toki horietako jaunak izan ziren erromatarrek haien inperioa suntsitu zuten arte» (III, 2,14).

Apianok (eta Diodorok) nabigatzaile hauen etorrera antzinako aroan kokatu zuen:

«Era berean, iruditzen zait feniziarrek antzinatean, merkataritza zela kausa, maiz Iberiaraino nabigatuz, haren alde batean kokatu zirela. Orobat greziarrak, Tartessoseraingo eta bertako errege Argantonioenganaino iristean, batzuk Iberian geratu ziren» (*Iberia*, 1-2).

Beraz, Arkeologiak ez ezik, tradizio literarioak ere greziarrak baino lehenago kokatu zituen feniziarrek Iberian — horrek ez du esan nahi, ordea, nabigatzaile eta merkatarik greziarrik ezin zenik egon bertan kolono feniziarrek bertaratu ziren aroan —.

Iberiako kostaldera, mundu ezaguneko mendebalde muturrera, iritsi ostean, bertan ezartzeak helburu nagusi bat izan zezakeen feniziarrentzat, hots, artisautza produktuen truke lehengaiak eskuratzea, bereziki (baina ez bakarrik) metalak: urrea, zilarra, kobrea eta eztainua. *Mare nostrum*-eko bi muturren arteko harremanek sarrarazi zuten Iberiar penintsula Mediterraneoko *koiné*-ren barruan, eta lehen milurtekoaren lehen erdian herrien arteko mugikortasuna handitu egin zela egiaztatu ahal izan da, merkataritza eta kultura-elkartrukeak ugartuz — eta ez soilik Iberiako biztanleen eta feniziarren artean, baita azken hauen eta greziarren, zipretarren eta Mediterraneoko gainerako herrien artean ere —. Harreman horiek nazioarteko truke-sare konplexuak ekarrarazi zituzten — baten, halere, halakorik Brontze Aro bukaeratik —, eta, noski, erregistro arkeologikoan atzeman ahal izan diren aldaketa sakonak ere eragin zituzten.

Feniziarrek penintsulako kostaldean gelditu izana maila bat baino ez da Mediterraneo osoan zehar burutu zituzten bidaien eta fundazio kolonialen kate luzean. Horren adierazgarritzat aipa daiteke K.a. IX. mendean Kition izeneko koloniaren fundazioa Zipren (lehendik ere mantentzen ziren merkataritzako harremanak irlarekin...) eta, K.a. IX. mendearen bukaera eta VIII. mendearen hasiera bitartean, Egeo osoan barrena eta

Sardinian agertu diren euren ibileren arrastoak. Aipatu azken mendeaz geroztik feniziarren eta Mediterraneo mendebaldeko lurraldeen arteko harremanak areagotu egin ziren, feniziar hiriak bizitzen ari ziren oparoaldi ekonomikoaren kariatz. Azken hauek asiriaren inperioaren mendean zeuden, eta zenbait lehengairekin hornitu behar zuten hura, Mendebalde urruna izanik, hain zuzen, autore klasikoen arabera, ametsetako lur zorionekoa, aberatsa bai metaletan, bai nekazaritzan eta bai abeltzaintzan ere (aberastasun horren oroitzapenak bizirik irauten zuen oraindik erromatarren garaiko Turdetanian, beste atal batean ikusiko dugunez).

Baina, Iberiako zeltekin gertatzen den bezala, feniziar kolonizazioaren kasuan ere zalantza eta galderak eurrez sortzen dira, eta oso zaila gertatzen zaigu erantzun edo ondorio biribilelara iristea. Eta hori hala da, berriro ere, arazoak daudelako protohistoria penintsularreko atal hau hobeto ulertze aldera eskura ditugun iturriak aztertu eta interpretatzeko. Izan ere, zuhurra izan behar da izaera ezberdinetako datuak baloratzeko orduan. Alde batetik, ahituriko iturria den erregistro literarioa dugu, Geografiari eta Historiografiari buruzko azken lanen argitan aztertu beharrekoa (Cruz, 1994), noski, eta hauek arras urruti dabilta, gaur egun, neurri handi batean, iturri mota hau interpretatzerakoan luza-rora erabili izan diren premisetatik. Bestetik, erregistro arkeologikoa dugu, oraindik ere irekita darraiena —beraz, datu berri eta interesgarriak eman ditzakeena—, baina tentuz aztertu behar dena halaber, kontu eginik batzuetan interpretazio eztabaidagarriei eman izan zaiela bide (Aubet, 2000, 31) eta ondorioak atera izan direla aurkitutako objektuen kontura berauen testuinguru arkeologikoa ezagutu gabe eta datazio ziurrik izan gabe (ik., adibidez, Ruiz Mata, 1999, 294-298). Zentzu horretan, kronologia absolutuak ezartzeko ahaleginetan, ezin da alde batera utzi karbono-14 bidezko datazio-sistema tradizionalaren ziurgabetasun-eremuak metodo horren bidez lortutako datuak tentuz erabiltzera behartzen gaituela, kalibrazio dendrokronologikoa egiten denean, askotan berrikusi eta zehaztu behar izan baitira aipatu datuok (Aubet, 1994, 317-323; Torres, 1998, 49-60).

Problematika hori guztia argi ikusten da, esate baterako, bai antzinako historiografian bai modernoan literatura ugaria merezi izan duen *Gadira* feniziar koloniaren kasuan.

1.4.2. *Gadiraren fundazioa: arazoak eta eztabaida*

Iturri literarioei soilik jaramon egingo bagenie, *Gadira* «fundazio kolonial» bat eta bakarra dela esan beharko genuke, ez baitugu inongo beste koloniar buruzko informazio idatzirik. Dena den, kontuan izan behar dugu datu gehienak ematen dituzten autoreak nahikoa berantak direla, erromatar garaikoak, hain zuzen —Estrabon, Veleio Paterkulo, Mela, Plinio...—, eta batzuetan, antzinako feniziar koloniar buruzko argibideak, bereziki fundazioari dagozkionak, Balbotarren leinukoen aberri zen *Gades* erromatarrekin nahasten direla. Gauzak horrela, ez da batere erraza zer den aro batekoa edo bestekoa bereiztea eta, noski, maiz nahasketak sortu izan dira.

Egoera hori argi ikus daiteke Estrabonen kasuan. Krisko aurreko 110 eta 91 urteak bitartean *Gadesen* egondako Poseidoniori zor dion kontakizun batean, greziar geografoak ondorengo hau idatzi zuen (*Geografia*, III, 5, 5):

«Gadiraren fundazioaren harira gadiratarrek orakulu bat ekartzen dute gogora, ti-roarrei Heraklesen Zutabeetara kolono talde bat bidaltzea agindu omen ziena, alegia; miatzaile gisa bidali zituztenak, ordea, Calpeko itsasartearen ingurura iritsi zirenean, uste izan zuten ez itsasarteko lurmuturrak zirela habitatutako lurraren eta espedizioaren helmugak, eta harkaitz haiek zirela orakuluak Zutabetzat aipatutakoak, itsasarteko barruko aldean gelditu ziren, orain sexitarren hiria dagoen tokian, eta han sakrifizioa egin eta sakrifikatuak aldekoak izan ez zitzaizkienez, itzuli egin ziren. Ondoren bidaliak izan zirenak itsasartetik mila eta bostehunen bat estadio aurrerago joan ziren, Heraklesi kontsakratutako irla batera, Iberiako *Onoba* hiriaren ondoan, eta, Zutabeak han zeudela koan, sakrifizio bat eskaini zioten jainkoari, baina, sakrifikatutakoak orduan ere aldeko izan ez zitzaizkienez, aberrira itzuli ziren. Hirugarren espedizioan iritsi zirenek *Gadira* fundatu zuten, eta tenplu bat eraiki zuten irlako sortaldean, eta sartaldean hiria. Horregatik uste dute batzuek Zutabeak itsasarteko harkaitzak direla, beste batzuek *Gadira* dela, eta beste batzuek oraindik *Gadiratik* haratago daudela... Eta halaber Dizearkok, Eratostenesek, Polibiok eta autore greziar gehienek itsasartearen inguruan kokatzen dituzte Zutabeak; iberiarrek eta libiarrek, aldiz, *Gadiran* daudela diote, itsasartearen aldeak ez baitu antzik zutabe batzuekin. Beste batzuek esaten dute *Gadirako* Heraklesen jainkote-giko zortzi beso luzerako zutabeak direla, zeinetan grabaturik dauden jainkote-giko erai-kuntza-gastuak; zeren eta, euren bidaia bukatuak, hara iristean Heraklesen ohorez sakrifizioa egiten zutenek zabaldu baitzuten bertan zegoela lurraren eta itsasoaren muga. Poseidoniok ere uste du azalpen horrek duela egiantz gehien, eta orakulu eta espedizioenak feniziarren asmazio hutsa direla».

Estrabonek jasotako istorio honen balorazioa egiterakoan, bertan ageri diren datu guztiak xeheki aztertu gabe ere (zeren eta egiteko horrek lan honen mugak gaindituko babiluzke), irakurketa sinpleak saihestu behar dira lehenik eta behin, bazterrerara utziz bai kontakizunari sinesgarritasun osoa ematen dioten hurbilpen akritikoak — «kontakizun osoa egia da» —, baita, horren jatorrizko guneak aro helenistikokoan ziurrenik nozitu zuen berreraketa literarioa argudiatuz, asmazio hutsa balitz bezala jokatzeko duten balorazio hiperkritikoak ere — «dena gezurra da» —. Ezin da gai honetan ahaztu kontakizuna konplexua dela, osagai mitikoa eta datu historikoak nahasten dituen, eta tradizio ezberdinak pilatzen eta gurutzatzen direla bere baitan. Estrabonen beraren hitzetatik ondorioztatzen denez, bat egiten zuten kontakizunean feniziar tradizioek («Poseidoniok orakulua eta espedizioak feniziarren asmaziotzat dauzka») eta tokian tokikoek («*Gadiraren* fundazioaren harira gadiratarrek orakulu bat ekartzen dute gogora...»). Horri guztiari greziar *eragina* gehitu behar zaio. Dena hobeto ulertu ahal da kontuan hartzen bada transmisioaren arduradunak greziarrak izan zirela eta Estrabonen iturri zen Poseidonioren *informatzaileak* Melqart-eko tenpluko apaizak izan zirela beharbada, eta hauek ondo ezagutzen zituztela bai kolonien fundazioei buruzko feniziarren tradizioa, baita tenpluaren eta hiriaren sorrerari buruzko bertako kontakizunak ere (Ribichini, 2000, 662).

Gauzak horrela, *Gadiraren* fundazioari buruzko narrazioak alegiazko kontaketa baten kutsua du, baina tradizio feniziarren elementu batzuk ere gordetzen ditu, antza, eta, greziar «berreraketa» erakutsi arren, ez dirudi aro helenistikoko asmazio hutsa denik. Gogora ekarri behar da Mediterraneoeko zonalde urrun hau dela greziarrentzat (eta lehenago feniziarrentzat) mundu ezaguneko azken muga.

Hortaz, zuhurra izan nahi duen irakurketa malgu batetik abiatu, erabateko sinesgarritasunaz —edo sinesgaiztasunaz— mintzo diren ebazpen zorrotzak saihestuz, datu zalantzazkoen eta alegiazkoenak bakartu behar dira eta beste iturri batzuen bidez egiaztatatu diren erabat sinesgarrietatik desberdindu.

Zalantzazkoen artean, izaera topografiko eta geografikozkoak aurkitzen dira, *Gadiraren* kokapenari eta *Gades/Cádiz* identifikazioari dagozkionak, zehazkiago. Sinesgarrien artean aipa daitezke fundatzaileen tiroar jatorria, eginkizunaren ofizialtasuna eta erlijioaren papera —zehazkiago, Tiroko tenpluarena (orakuluaren bidez) eta Melqart feniziarren asimilaturiko Heraklesen tenpluaren garrantzia (Ribichini, 2000, 663)—.

Indikazio topografikoaren arazoari aurre egiteko, kontuan izan behar da Antzinateko Cádizko badian hainbat irla zeudela, iturri klasikoan arabera, eta autoreak ez zetozeela bat hiria kokaturik zegoen irla identifikatzeko orduan. Plinio zaharraren paragrafo honetan (*NH* IV, 119-120) argi ikus daiteke hori:

«*Baeticaren* hasieran bertan [...] aurkitzen da *Gades* [uhartea] [...] *Hispaniarantz* begiratzen duen aldean, ehun bat urratsetara, beste uharte bat dago, mila urrats luze: garai batean bertan altxatzen zen *Gades*-eko *oppiduma*. Eforok eta Filistenes-ek *Erytheren* irla deitzen diote, Timeok eta Silenok *Afrodisiase*n irla, indigenek *Iunorena*. Timeok esaten du handienari *Cotinusa* deitzen ziotela euren hizkuntzan; gutarrek *Tartessos*, punikoek *Gadir*, *barrutia* [edo esparrua] esan nahi duena punieraz».

Hainbat arotako autore klasikoek uharteak identifikatzeko izan zituzten zailtasunek agerian utzi dute Cádizko badiaren konplexutasun geografikoa. Koloniaren feniziar izena bera horren isla da: *Gadira*. Toponimoaren esanahia, Pliniok dioenez, *barruti* edo *itxitura* da, eta greziarrek beti pluralean transmititu izana izaera anitzaren islatzat hartu behar da (Aubet, 1994, 226-228). Beraz, zuzenagoa dateke *Gadirei* buruz hitz egitea, hainbat uhartez osatutako gune kolonialtzat hartuta, edo, bederen, kontuan izatea multiformea dela badia horren errealitate geografikoa; hots, ez dela uhartea, artxipelagoa baizik.

Antzinateko konplexutasun geografiko horri mendeetan zehar gertaturiko aldaketa geomorfologikoak gaineratu behar zaizkio, badiako paisaia itxuraldatu dutenak, hain zuzen (Arteaga eta beste batzuk, 1995); gorabehera honek toponimoak kokatzeko orduan zuhurrak izatera behartzen gaitu eta memento bakoitzeko iturriak kontu handiz erabiltzera.

Historiografia modernoak, autore klasikoen datuetan —aipatu Estrabonen pasarteetan, besteak beste— oinarriturik batez ere, *Gadira* oraingo Cádiz hiriarekin identifikatu behar dela defendatu izan du. Era berean, feniziar fundazioa Cádiz hiriko alde zaharreko tokiren batean lurperatua zegoela pentsatu izan da (Ruiz Mata, 1999, 280). Baina Ruiz Matak berak, 1979-1995 bitartean El Puerto de Santa María-ko Castillo de Doña Blanca-n, Cádiz-en parean, burututako indusketa berrienen kariatz, identifikazio hori zalantzazko jarri du. Izan ere, Castillo de Doña Blanca dateke, aipatu ikerlariaren ustez, feniziar ezarmendu zaharrenaren kokagunea. Aztarnategi hori antzinateko kostako lerroaren ertzean zabaltzen da, eta hirigunea, K.a. 800/750 bitarteko kronologia duen habitatutako zonaldea, babes-egiturez horniturik zegoen. Ondorengo hamarkadetan (730-720 K.a.) hiriguneak ia 7 ha izan zituen. Cádizko uhartea, aldiz, datu arkeologiko zehatzei bagaiozkie, ez zen habitatzeko hasi K.a. VII. mendearen bukaera eta K. a VI. mendearen ha-

sierara arte (Ruiz Mata, 1999, 310), eta kartagotar nagusigoaren itzalean hasi zen protagonismoa izaten.

Sierra de San Cristóbal-eko mendebaldeko ertzean kokaturiko Castillo de Doña Blanca-k aukera aparta eskaintzen zuen bertan ezarmendu kolonial bat eraikitzeko (Ruiz Mata, 1999, 303-306; Aubet, 2000), eta, andaluziar kostaldeko beste feniziar kolonia batzuen kasuan bezala, balio estrategiko handiko agertzen zen, Guadalete ibaiaren ondoan eta Guadalquivir ibaitik eta indigenen ezarmenduetatik oso hurbil (ik. 4. eta 5. mapak). *Gadiraren* eta herrixka indigenen arteko gertutasunak euren arteko merkataritza-trukeak erraztu zituen. Kolonia, ekoizpen-azpiegiturak eta alde zurretiko truke-zirkuituak baliatuz (Aubet, 2000, 32-36), Mediterraneoko hainbat tokitatik —Kartago, Sardinia, feniziar hiriak...— iritsitako produktuen banaketa-gune bilakatu zen K.a. VIII. mendearen bukaeraz geroztik. Feniziar kolonia, azken finean, gune ekonomiko eragilea eta nazioarteko merkataritza-portua zen.

Datu horiek guztiek —kokapen geografikoari edota kultura materialari buruzkoak— zalantza piztu dute *Cádiz/Gadira* ohiko identifikazioari dagokionez, eta atea ireki diote Castillo de Doña Blanca/*Gadira* identifikazio-hipotesiari. Izan ere, gauzak dauden moduan, oraingoz, aztarnategi hori baita feniziarren artean zaharrena Cádizko badian. Eta, honenbestez, esan daiteke, datu arkeologiko berrienen arabera, Itsasartetik haratagoko fundazio kolonial zaharrena, kronologia tradizionalari jarraiki, K.a. VIII. mendearen hasierakoa dela.

1.4.2.1. *Ustezko «kolonizazioaurreaz»*

Kronologia horrek eztabaidagai izan den arazo bat jarri du mahai gainean: datu arkeologikoei kontrajarriz, tradizio literarioak, zehazki K.o. I. mendeko Veleio Paterkulok, feniziar koloniaren fundazioa (Estrabonekin bat, *Gadesekin* identifikatu zuena) K.a. XII. mendean datatu zuen, K.a. 1104 eta 1100 urte bitartean, zehatzago. Veleiok honela idatzi zuen (*Historia romana*, I, 2, 3):

«...Garai haietan ere [Troia menderatu eta lauogei bat urte geroago] Tiroko flotak, itsasbazterren menderatzaile handiak, *Gades* fundatu zuen Hispaniako alderik urrunean, gure orbeko bazterreko mugan, Ozeanoak inguratutako eta lehorretik itsasadar txiki batez banandurik dagoen uharte batean».

Antzinateko tradizioak jasotako datak esanahi historiko garrantzizkoa du: Gades penintsulako lehen feniziar kolonia dela baieztatzeaz gainera, Mendebaldeko alderik urrutienan feniziarren agerpena dokumentatzen du.

Erregistro bietako datazioen artean hiru mendeko aldea dagoenez, eztabaida sortu da: batzuek lehen ezarmenduarentzat hain kronologia goiztiarra —1100. urtea— arbuia-tzen dute, eta beste batzuek, aldiz, tradizio literarioaren fidagarritasuna defendatzen dute.

Kronologia goiztiarrena onartzeko orduan, oinarrizko arazoa honetan datza, alegia, kultura materialak ez duela, lehen adierazi dugunez, daturik argitara ekarri hain data goiztiarra baieztatu ahal izateko. Daturik ezean, *isilune arkeologikoa* nagusitzen da,

egin diren aurkikuntza zaharrenak K.a. VIII. mendearen hasierara soilik iristen baitira. Dena den, ez da ahaztu behar, batetik, informazio arkeologikoa (zeinaren garrantzia hainbatetan neurritz kanpo balioetsi izan baita) iturri irekia dela eta, bestetik, karbono 14 metodoaren bidez lortutako kronologiak ez direla arazorik gabeak. Beraz, ezin da erabateko erantzun biribilik eman.

Gainera, erregistro arkeologikoa eta literarioa aurrez aurre jarri nahi izatetik arazoak sortzen dira, bigarrenean kronologia absolutuak aurkitu nahi direnean, eta kultura materialean kontaketa literarioarentzako berrespenak lortu. Eginkizun hori alferrekoa da hasiera-hasieratik, erregistroak ezberdinak direlako: batzuetan bat datoz elkarren artean, besteetan osagarriak dira bakarrik; baina ez dute beti errealitate beraren berri ematen biek batera. Metodologiaren ikuspegitik, ez da onartzekoa iturri idatzietan aurkitutakoa mekanikoki erregistro materialaren gain proiektatzea, ez eta alderantzizkoa ere, hots, dokumentazio arkeologikoa kontaketa literarioa egiaztatzeko erabiltzea; izan ere, iturriok ez baitira bat bestearen kalko. Eta funtsik gabea da, honenbestez, aztarna arkeologikoak eta tradizio literarioa batu nahi izatea, are gehiago —gure kasuan eta hirien fundazioez oro har diharduten tradizioetan— horiek irakurlea alegiazko fundazio-une urrun eta lausotuetara igortzen dutenean. Erromaren sorrerari buruz Gabbak egokiro adierazi duenez (1999, 34), kontaketa literarioaren baieztatze arkeologikoa irizpidetzat hartzea, berez, ekibokoa suerta daiteke, eta bada arriskurik arrazonamenduzko sorgin-gurpil batean harrapatuta gelditzeko, non datu arkeologikoa balioztatzen den, espresuki edo zeharbidez, tradizio literarioaren marko orokorraren baitan, eta, geroago, tradizio hori bera berretsi nahi den era horretan interpretaturiko ebidentzia arkeologikoaren argitan.

Data bateko eta besteko defendatzaileen jarrerak (iturri literarioaren irakurketa akritikoa edota hiperkritikoa onesten zutenenak, alegia) hurbildu eta, aldi berean, bate-razintasun kronologikoa konpondu ahal izateko, historiografia modernoak *aro prekoloniala* edo *kolonizazioaurrea* adierazpideak asmatu zituen. Aro hori K.a. X-IX. mendeen geroztik hasi bide zen Iberiar penintsulari dagokionez. Joan den mendeko seigarren hamarkadan —greziar kolonizazioaren ereduari jarraiki— Tarradell-ek asmatu eta ikerlari gehienek onetsitako termino horren bidez, argitu nahi izan zen proposatu data bien arteko 300 urteko aldea. Hala ere, zalantzak edo kritikak erruz izan dira aro hori benetan existitu izanaz, eta terminoa ez da gehiago erabiltzen. Iberiako feniziar mundua oso ondo ezagutzen duen Aubetek (1994, 186-187) kritikatu egin du datu arkeologiko bakaretan oinarrituriko terminologia hori, eta ondorengo adierazi:

«ninguno de los elementos que definen la precolonización posee una base de contrastación rigurosa y metódica a nivel de contexto arqueológico».

Gainera, oso zaila da aro prekolonial baten existentziaren aztarnei erregistro arkeologikoa baliatuz jarraitzea; izan ere, Ekialdetik ustez inportaturiko hondarreko Bronzetz Aro prekolonialeko objektuak erabili behar baitira horretarako, eta horiek, testuinguru arkeologikotik at agertu direnez, zailak dira datatzen. Era berean, ez da batera erraza zenbait aztarna arkeologiko *ekialdekotzat* frogatzea: hego-mendebaldeko hilarrietako apaingarri batzuen kasuan, esate baterako, zaila da bertan irudikaturiko gurdi, ezkutu eta abarrak zein jatorritakoak diren zehaztea —feniziarrek, ala greziarrek, indoeuroparrak, atlantikoak...?—; eta, zalantzan, ikerlariak jatorri baten ala bestearen alde egin dute, eztabaida ugari piztuz.

Kolonizazioaurreaz hitz egin ahal izateko ematen diren arazoak ikusirik, ikerlari batzuek zuzenago iritzi diote «kontaktu modu ez-hegemonikoaz» hitz egiteari (Alvar, 1999, 331) —alegia, lurralde okupaziorik eman gabe ere, elkartrukeak burutzen diren egoera bat aditzera emateko—, eta beste batzuek, berriz, «frekuentazio-aldi» batez hitz egiten dute, K.a. 1000 eta K.a. 950 urte bitarteko Iberiar penintsulako hegoaldeari dagokionez.

Mota honetako terminologiak egokiagoa dirudi, eta ez da «kolonizazio aurrekoa» bezain problematikoa. Nolanahi ere, *frekuentazio-aldiaz* hitz egin, edota Alvar-ek proposatu *kontaktu modu ez-hegemonikoen aldiaz*, egia itxurakoa ematen du oso feniziarren eta indigenen artean merkataritza-harremanak egon izana, nahiz eta fundazio egonkorrik ez egiaztatu K.a. VIII. mendera arte, eta oso zaila izan azterbide arkeologikoan kontaktu horien arrastorik aurkitzea. Feniziar nabigatzaileek sarritan bisitatu bide zuten penintsularen hegoaldeko kostara, eta *ikuskaritza* bidaiak horien bidez eta merkataritza-harremanak medio penintsularen hego-mendebaldeko aberastasunak eta baliabideak aurkitu ahal izan zituzten; gainera, zonalde hori Azken Brontzeko nazioarteko tratu-sareen barruan zegoen. Hipotesi hori bat dator Estrabonek kontatutakotik ondoriozta daitekeenarekin, hots, *Gadiran* ezarri aurretik, feniziarrek bi saio ustel burutu zituztela, bata Gibraltarreko itsasartera heldu baino lehen, *Sexin* (gaur egungo Almuñécar-en) alegia, eta, bestea, itsasarteaz bestaldean, *Onubatik* gertu altxatzen zen uharte batean. Ustel ateratako saioek eta, azken finean, *kolonizazio-eredu* horrek —literalki ezin dena hartu— agerian jartzen dituzte Gibraltar itsasarteko nabigazioak garaian zituen zailtasunak, eta, bestalde, zera ondorioztatzen eramatzen, metropoliak ezagututako munduaren bazter batetako toki zehatz batean —ez *Onuban* edo *Sexin*— kolonia bat ezartzea erabaki zuenean, hain zuzen, zonalde geografiko horretako baliabide eta aukerak aldeztu aurretik ondo ezagutzen zituelako zatekeela. Beste hitz batzuekin adierazita, datu horietatik ateratzen da, *Gadira* fundatu aurretik, ikuskaritza-bidaiak egin zituztela feniziarrek eta horrelaxe ezagutu zituztela penintsula hego-mendebaldeko bazterrak eta, zehazkiago, Cádizko badiak zuten abantaila geografikoa eta eskaintzen zituen aukerak.

Estrabonen informazioa Siziliako Diodororen testigantzarekin osatzen da (*Bibliotheca Historica* V, 20, 1-5), azken honek merkataritzako bidaiak aipatu zituen-eta:

«Feniziarrek bidaiak antolatzen zituztelarik antzinatik merkataritzaren kariaz, kolonia asko ezarri zituzten Libiako alde batetik bestera, baita gutxi batzuk europar mendebaldeko zonaldeetan ere. Eta euren bidaietan gauzak espero bezala joan zitzaizkielarik, aberastasun ugari pilatu zuten eta Heraklesen Zutabeetatik haratago bidaiak antolatzen saiatu ziren Ozeano izena duen itsasoan barrena. Eta, lehenik eta behin, itsasartearen beraren gainean, Zutabeen ondoan, hiri bat fundatu zuten Europako kostetan, eta lurra penintsula bat osatzen zuenez, *Gadira* izena eman zioten. Bertan lurraren izaerari zegozkion lan asko egin zituzten, horien artean Heraklesen tenplu garesti askoa, eta sekulako sakrifizioak eratu zituzten [...]».

Kolonizazio aurretik penintsularekin izandako lehen kontaktu horiek eta Afrikako kostatik atlantikoarekin izandakoak oso antzekoak izan ziren ziur aski. Pseudo Eszilax-ek honako hau idatzi zuen azken horiei buruz:

«Ezin da Cerneko uhartetik haratago nabigatu itsasoaren sakonera eskasa, lohia, algak... direla-eta. Merkataria feniziarrek dira. Cerne uhartera iristean, zamaontzietako

aingurak botatzen dituzte eta dendak jartzen dituzte Cernen. Baina kargamentua itsasontzi txikietan lehorreratzen dute, behin ontzietatik atera ondoren. Etiopiarrek lehorrean egoten dira, eta berauekin egiten dituzte salerosketa tratuak. [Feniziarrek] Gazelen, lehoien eta lehoinarren larruen truke saltzen dituzte [euren merkantziak], baita elefanteen larru eta letaginen edota etxeko animalien truke ere. Feniziar merkatariek ukenduak, ontziteria atikoa eta koeak ekartzen dizkiete. Forma horiek Koenen jaietan lor daitezkeenak dira. Etiopiar horiek haragia jaten dute, esnea edaten eta euren mahastiekin ardo ugari egiten, feniziarrek ekartzen badiete ere. [Etiopiarrek] hiri handi bat ere badute, eta merkataria feniziarrek bertaraino iristen dira euren ontzietan».

Edonola ere, penintsulako kostetan feniziarrek maiz ibili izanaren gaiak — feniziar «frekuentazioaren» gaiak, alegia— sorrarazten duen arazoa (iturri literarioek, alde bate-tik, eta arkeologikoek, bestetik, iradokitzen dituzten daten konponezina dela eta) ikerkuntza arkeologiko zorrotzen bitartez konpondu behar da. Orain arteko datuekin baieztatu daitekeen gauza bakarra da testuinguru arkeologiko zehatz batean —Brontze Aro bukaerako indigenen txaboletan, hain zuzen— aurkitutako feniziar material zaharrenak (delako *frekuentazio-aldiari* egotzi beharrekoak, antza) ez direla, ohiko datazio-metodoen arabera, K.a. IX. mendearen bukaerakoak baino zaharragoak (Ruiz Mata, 1999, 307). Gaineratu behar da datazio modu horiek dendokronologiaren bidez kalibratzea komeniko litzatekeela, penintsulako feniziar kolonizazioaren soslaia osatzeko beharrezko diren aldagai guztien kontu egiteko.

Aldi horretan penintsulako hego-mendebaldeak feniziar nabigatzaileengan izan zuen erakarmena logikoa zen neurri handi batean. Adierazi dugunez, Brontze Atlantikoko merkataritza-guneen barruan sartuta zegoen, eta elkartrukerako bertan ibilbide indigenen nolabaiteko azpiegitura ematen zen (Aubert, 2000). Gainera, aberatsa zen baliabide naturaletan —nekazaritza, abeltzaintza, meatzaritza—, eta bertan zabaltzen zen Guadalquivir ibaiaren bokalea, oso garraibide garrantzitsua izan zena antzinate guztian zehar. Ondorioz, ez da harritzeko hura izatea feniziar nabigatzaileek lehen ordutik mai-zenik bisitatu zuten zonalde geografikoa, interes berezia baitzuten penintsulako urre eta eztainuaren garraibideetan. Eta lehenengo kontaktu horiek esparru atlantikora ere hedatu zitezkeen, Guadalquivir-en bokaletik Tajoraino, eta horrek ere berekin dakar harremanak existitu izana, itsasartearen inguruko feniziarren ezarmendu iraunkorra egon baino lehen.

Alde batera utzita *Gadiraren* lekutze- eta identifikazio-arazoa, enpresa kolonialean erlijioak izandako garrantziaz argibide baliotsu eta interesgarriak eman zituen Estrabonek —mundu klasikoan kolonizazio ekintzei buruzko kontakizunetan arrunta zena, greziarren kasuan eta Tiro metropoliaren beraren fundazio kontakietan ikus daitezkeenez—. Protagonismoa jainkoen esku gelditu zen, zehazkiago nabigazioaren eta merkataritzaren feniziar jainko Melqart kolonia-fundatzailearen esku, bera izan baitzen, orakulu baten bidez, Mediterraneo urrunean kolonia fundatzea agindu zuena. Melqart feniziar jainkoa greziar Heraklesekin identifikatu zen K.a. VI. mendeaz gero (García y Bellido, 1963); eta azken hau gelditu zen, Melqart-en ordean, tenpluko titular gisa, baita mundu ezaguneko muga geografiko eta, aldi berean, politikotzat jotzen ziren Zutabeetako titular gisa ere (lehen Melqart-en izenez ezagutzen bide zirenak). Zutabeon kokalekuaz, testuan ikusten den bezala, iritzi desberdinak egon ziren Antzinateko autoreen artean. Zabaldueña, Itsasar-

tearekin eta Calpeko eta Abilako muinoekin —Gibraltar haitza, hispaniar aldean, eta Gebel Musa, afrikarrean, hurrenez hurren (ik. 1. mapa)— identifikatzen zituena izan zen; baina are tenpluko brontzeko zutabeekin ere identifikatu ziren. Kontuan izan behar da, halaber, ez zela beti Herakles izan Zutabeen titularra, Uranoren eta Gearen bi seme ere —Kronos, Titanetako bat, eta Briareus, 100 besoko jigantea— izan baitziren inoiz. Beraz, ezagunaren eta ezezagunaren muga istorio eta mito askoren toki komuna izan zen eta denen gainetik Herakles heroiaena gailendu zen (Millán, 1998, 41 eta hur.)

«Ez da erraza zeharkaldiari jarraitzea itsaso zeharkaezinetik Heraklesen Zutabeetatik haratago, zeinak jainko-heroiak ezarri baitzituen bere nabigazioaren azken mugako lekuko gisa» [Pindaro III, 20-22]

Melqart-en tenplua, datu arkeologikoen arabera Sancti Pietri uhartetxoan eraiki zena (García y Bellido, 1963), Tiroko jainko nagusiari zegoen eskainia, eta, honen bestez, metropoliaren luzapen bihurtu zen. Feniziar kolonizazioan sarri gertatu zen fundazio kolonialaren eta tenplu baten sorreraren arteko lotura, eta horren adibide dira Utika, Pafos, Citera eta Tasos (Bunnes, 1979, 282). Tenpluak ezartzearen arrazoia (hainbatetan hiria bera fundatua izan aurretik) kolonoei euren jainkoa atzerrian gurtzeko aukera erraztea zen; tenpluek, bestalde, kolono eta indigenen arteko bitartekari funtzioa bete eta merkataritza-trukeen bermea eskaintzen zuten; azkenik, babesleku ere izan ohi ziren edota merkataritzako artxibategi. Halaber, Melqart itsas enpresa handien jainko babeslea zen, eta bidezko da galdetzea, Bunnes-ek bezala, ea tenplu hauek, Cádizko badiakoak barne, ez ote zuten itsas merkataritzan parte hartzen. Izan ere, jakin badakigu Kartagoko tenpluak irabazi publikoen hamarrenak Tirora bidaltzen zituela (Diodoro, XX, 14, 2). Hori horrela izanik, tenpluak Mediterraneo osora hedatzen zen eta Tirok kontrolatzen zuen merkataritza-kate bateko mailak izan zitezkeen (Millán, 1998, 54).

Baina, merkataritza-ekinbideetan parte hartu ala ez, argi dagoena da tenplu hau —merkataritza-guneei lotuta zeuden beste askoren antzera; Kition, adibidez— Tiroko estatua ordeztzen zuen erakunde bat zela, bisitarien babesa bermatu eta elkartrukeen kontrola ezartzen zuena, politika, erlijioa eta merkataritza estuki elkartuz. Horrek erakusten du, berriro ere, tenpluen egiteko garrantzizkoa gune ekonomiko gisa, ez Ekialde Hurbilean soilik, baita greziar eta erromatar munduan ere. Tenpluak banku nagusi eta ziurrak ziren eta antzinateko lehen merkataritzako truke-guneak izan ziren atzerrian. Gainera, kasu honetan, Sancti Pietri uhartetxoaren ekialdeko bazterrean kokaturik —kontinentetik 800 bat metrora, hain zuzen—, Cádizko kanaleko igarobidea kontrolatzen zuen (Aubet, 1994, 238-240), ez baitzegoen alferrik uharte batean kokaturik, hots, toki ezin estrategikoago batean. Era berean, orakulu ospetsu batek famatzen zuen (Marín Ceballos eta Jiménez Flores, 2004), eta feniziarren erlijiozko tradizioen gordailu zen. Tradiziook kultuaz arduratzen ziren apaizek ezagutu, gorde eta transmititzen zituzten, memoriaren zaindari gisa; eta, beste tenplu askoren antzera, administrazio-bulegoak zituen (Antzinaro osoan dago dokumentatua tenpluetako artxibategien garrantzia), baita gelak ere pertsonalarentzat. Tenpluaren garrantzia ikusita, ez da harritzekoa, ondorengo aroan eta are erromatar egunetan, kultuak jarraitu izana eta sagaratutako tokiaren jatorri eta antzinasuna gogorazten zituzten feniziar erritoak ere lehengo hartan errespetatuak izatea.

1.4.3. *Feniziarren jarduera Atlantikoan zehar eta penintsulako hego-ekialdean*

Gadiratik abiatuz eta zubi-burutzat *Onoba* (Huelva) baliaturik, feniziarrek Portugaleko itsasertz atlantikoan barrena hedatu ziren, eta Sado, Tajo eta Mondego ibai nagusien bokaleetan nabaritu zen euren agerpena (Arruda, 1999-2000).

Zilarraz gainera —Castillo de Doña Blancan aurkitu ahal izan dira ustiapen arrastoak— feniziarrei interesatzen zitzairen lehengaietako bat eztainua zen, brontzea lortzeko oinarritzko osagaia. Eztainua Mendebalde urrun honetan, penintsulako ipar-mendebaldean eta identifikazio eta kokapena zalantzezkoak diren greziarrek *Casiterides* deituriko Ozeanoko uharteetan zegoen (ik. 1. mapa).

Casiterides uharteetatik eztainua lehorretik eta itsasotik iristen zen *Gadiraraino*. *Zilarraren bidea* izenez ezagutzen den lehorretikoan altxor aberatsak aurkitu dira, Alisedakoa eta Medellíngo (Extremadura), kasu. Itsasbideko garraioa feniziarren esku zegoen, eta arazorik gabe burutzen zuten Atlantikoko itsasertzetik barrena (Alvar, 1999, 365), baina ez ziren menturatzen eztainua erauzten zen tokietaraino, indigenek ekartzen zieten-eta, Estrabonek kontatu zuenez:

«Casiterides [uharteak] hamar dira; eta elkarrengandik hurbil daude, artabroen portutik iparralderantz, itsas zabalean.... [Biztanleak] euren abeltaldeei esker bizi dira, oro har, nomaden gisa. Eztainuzko eta berunezko meategiak dituztenez, lehengai horiek eta larruak aldatzen dituzte merkatariekin brontzezko gailuen, produktu zeramikoen eta gaztaren truke. Hasiera batean feniziarrek ziren bakarrik *Gadiratik* tratu modu hau egiten zutenak, denei beren bideak ezkutatu» (*Geografía* III, 5, 11).

Feniziarrek zenbait merkataritza-gune edo faktoria eraiki zuten itsasertz atlantikoan, eta Abul-ekoa (Alcácer do Sal, Portugalen) da oraingoz ezagutzen den feniziarren aztarnategirik iparraldekoena (ik. 3. mapa). Kristo aurreko VII. mendeko merkataritza-gune txiki gotorturiko bat zen, ibaiko bokaleetik hurbil zegoena, eta bertan eraikin interesgarri bat aurkitu da. Lisboan ere, Tajo ibaiaren bokalean, Sé Klaustroko indusketen ondorioz, K.a. VII. mendeko ekialde-joerako fazies mailak agertu dira.

Laburbiltzeko, azterketa arkeologiko berriek feniziar presentziaren berri eman digutela esan daiteke Portugaleko hiru ibai handien bokaleetan eta Algarveko kostaldean, eta erakutsi digute, era berean, nolako aldaketak gertatu ziren K.a. lehen mendean herri indigenetan. Merkataritza kolonialaren kariatz euren egitura politiko eta soziala eraldatu zen (Arruda, 1999-2000), eta horren guztiaren azterketarako Arkeologia da gure oinarritzko informazio-iturria.

Berdin gertatu da ekialdeko Andaluziarekin —Málaga, Granada, Almeríako kostaldea— edota Alacanterekin (ik. 3., 4. eta 5. mapak): oso urriak dira autore klasikoaren argibideak toki horiei buruz, eta feniziar kolonizazioaren arrastoak lan arkeologikoari esker «topatu» ahal izan dira, datu asko eta gune arras interesgarriak argitara ekarriz, batez ere, Málagaiko kostaldean (Aubert, 1997). Estrabon izan zen (III, 4, 2-3) zenbait feniziar fundazioren izenak aipatzen bakarra: *Malaka*, *Sexi* (Almuñécar) eta *Abdera* (Adra). Aztarnategi gehienek kronologia —Toscanos, *Malaka*, Chorreras, Almuñécar, eta abar— K.a. VIII. mendearen erdikoa da (K.a. 750/700 urteak bitartean), eta zaharre-

na, Algarrobo ibaiaren ertzean kokatutako Morro de Mezquitilla-koa, Málaga, K.a. VIII. mendearen hasierakoa dateke (Castillo de Doña Blancaren antzera).

Kokapenari eta topografiari dagokienez, ezarmendu moduaren homogeneousuna azpimarratu behar da (Aubet, 1994, 265): denak kostako gainalde ez oso garaietan — ibai-bokaleetako penintsula txikietan (ik. mapak) — altxatzen ziren.

Duela gutxiko lan arkeologiko sakonek —Málagako kostan egindakoek bereziki (Aubet 1995, 1997 eta 2002)— agerian jarri duten beste aspektu interesgarria, feniziar ezarmendu kolonialen eta erkidego indigenen artean gauzatzen ziren harremanena izan da. Aubet kolono eta erkidego indigenen arteko interesen bat etortzeaz mintzatu da, eta, zinez, 4. eta 5. mapek erakusten dutenez, feniziar ezarmenduak herrixka indigenen zonaldeetatik hurbil jartzen ziren —Castillo de Doña Blancaren kasuan bezalaxe—. Arkeologiari esker jakin ahal izan dugu fundazio kolonialak zenbait kasutan —Almuñécar, Salobreña edo Montilla, besteak beste— «auzo edo merkataritza-gune bat» baino ez zirela ezarmendu indigenen alboan.

Era berean, Málagako kostaldeko feniziar kolonien banaketak erakusten du (Aubet, 1997) kokatzen zirela, hain zuzen, «lehenik ere existitzen ziren truke-zirkuituetara iristeko modurik zuten zonetan», eta feniziar merkataritzak lehenesten zituela «puntu estrategiko nagusien eta itsaso eta lehorreko garraibideen kontrola bermatzen zioten zonaldeak, hala nola, Ronda-Azinipo, Almargen eta Granada ibarreko herrixkak». Beraz, feniziarrek barnerantz bideratzen zuten merkataritza koloniala, eta horrek, derrigorrez, akordio eta itunak sinatzera behartzen zituen tokian tokiko elite indigenekin (Aubet, 2000, 36).

Hego-ekialdeko fundazio kolonialen artean adibide argiena Cerro del Villar (Málaga) aztarnategikoa da, Guadalhorce ibaiaren bokalean, zeina 1987 eta 1995 urte bitartean berriz induskatua izan baitzen. Ezarmendua toki estrategikoan kokatu zen —mendebaldeko Andaluzia garairako irispidez hornituriko tokian, alegia— eta ohiz kanpoko hedadura zuen hegoaldeko feniziar kolonien artean. Kristo aurreko VIII. mendearen bigarren erdian fundatua izan ondoren, etenik gabe okupaturik egon zen, harik eta, K.a. VI. mendearen hasieran, *Malaka*, aldameneko kolonia, zonako portu-gune bihurtu zen arte. Ekonomiaren hainbat arlotan aritu zen, merkataritza-harremanak baitzituen barnealdeko erkidego indigenekin (metalkiak eta nekazaritza-abeltzaintzako produktuak eskuratzen zizkioten), eta baita, distantzia handiagotara, Mediterraneoko hiri nagusiekin ere (Castillo de Doña Blanca/*Gadiraren* kasuan bezala). Lurrontzigintza ere, bereziki anforena eta garraio-edukiontziena, garrantzizkoa zen bertan, bazterrera utzi gabe arrantzak, nekazaritza, abeltzaintza eta eraikuntza edo trepetagintzarako zuraren ustiapena.

Cerro del Villar-en egindako azken lan arkeologikoetatik ateratako argibide guztiei esker, adituek andaluziar ekialdeko kostako ezarmendu kolonial horien izaera eta esanahia argitu dute, eta gaur egun baieztatu daiteke Cerro del Villar-eko koloniak «merkataritza-gune bateko ezaugarri guztiak biltzen zituela» (Aubet, 1997, 209-10), eta uhar-te batean egoteak «leku estrategiko aproposa bihurtzen zuela, barrualdearen eta kostaren arteko joan-etorriko merkataritza-gunea izateko». Horregatik guztiagatik, kolonia honek ondo islatzen ditu Iberiar penintsulako kostaldean merkatu-guneek jokatutako pape-
ra eta herri indigenekiko jarrera —guztia ere nahikoa ezagutua Mediterraneoko beste

hainbat tokitan —, eta Gibraltar itsasartearen ekialdeko kolonia txiki hauen harira planteatzen zen hainbat zalantza eta eztabaida argitzeko balio izan du.

Hego-ekialdean ez ezik, feniziarrek *Eivissako* uhartean ere egon ziren K.a. VII. mendean gero (ik. 3. eta 6. mapak), Iberiar penintsularen Mediterraneoako alde guztia merkataritza-sareetan sartu zenean. Duela gutxira arte uste izan da, Diodorori jarraiki, kartagotarrak izan zirela *Eivissako* fundatzaileak K.a. 654/653 urte inguruan. Dena den, arkeologiako lan berriei esker jakin ahal izan da ez dagoela kartagotarren agerpenaren testigantzarik K.a. VI. mendean erdira arte (aro puniko klasikoa). Data horren aurretik feniziarren presentziaren arrastorik baino ez dago, eta hauek iritsi ziren —ez dakigu, zehatz-mehatz, nondik, penintsulako hegoaldeetik ala Fenizia bertatik— K.a. 630 urte inguruan; geroztik, Kartagoren orbitan jada, *Eivissa* mediterranean mendebaldeko hiri aberatsenetako bat bilakatu zen.

Hasieran, K.a. VII. mendean, feniziarrek Sa Caleta-ko ezarmendua jarri zuten abian, Levanterekin, Ebro ibarrarekin edota Liongo golkoarekin tratu-harremanak bideratu ahal izateko (Aubert, 1994, 289), eta gerora, K.a. VI. mendean hasieran, *Ebusus* fundatu zuten.

Lehen kolono horien jardura ikusten da halaber Levanteko kostaldean. La Fonteta-ko feniziar ezarmendua Segura ibaiaren bokalean kokatu zen, Alacant probintzian (ik. 6. mapa). Aipatu probintziaz irten gabe, inportatutako feniziar objektuak —K.a. VII. mendean geroztikoak— Peña Negra de Crevillente-n kokaturiko indigenen ezarmendu batean aurkitu dira. Kataluniako aldean ere aurkitu dira aipatu mendean geroztiko data egotzi zaien feniziar objektuak.

Azken bolada honetan feniziar merkataritzak zonalde hauetan izaniko funtsaz nagusitzen zen ikusmoldea aldatu egin da. Gaur egun kontuan izaten dira errealitate kolonialak eta merkataritza, baina neurritz kanpo balioztatu gabe —difusionismoaren jarraitzaileek ez bezala, izan ere, hauek neurritz kanpo balioetsi baitzuten feniziar merkataritzaren papera bertako erkidegoen kultura-bilakaeran—. Kasu honetan ere onartu egin behar da indigenek ez zutela hartzaile pasibo huts bezala jokatu, eta nola-baiteko konplexutasunezko erkidego egituratuak osatzen zituztela. Cabrera Bonet-ek dioenez, feniziarren jardura zonalde honetan «merkataritza koloniala bainoago, salerosketa periferikoa» bide zen, «puntuala eta ez oso trinkoa». Kontuan izan behar da gaur egungo Empordà-ko eta Lion golko zonaldeak zenbait mediterranean herriren (feniziarren, greziarren, etruskoen...) elkargune zirela, eta bazela bertan merkataritza-sistema bat feniziarrek bertaratu aurretik. Beraz, azken hauen parte-hartzea K.a. VIII. mendean gero mamitu zen jada abian ziren elkartrukeak sustatuz. Era berean, kataluniar hegoaldean eta gaur egungo Valentziako Erkidegoko iparraldean feniziarrek gizarte-egitura garatu eta hierarkizatuaz horniturik zeuden erkidego indigenak aurkitu zituzten, eta kolonizatzaileek bertako merkatu-egiturak baliatu zituzten prestigiozko objektu berrien truke metalkiak eskuratzeko. Beraz, ondorengoa baieztatu daiteke: «es posible hablar de aceleración de procesos y de inmersión de esta zona en un sistema más amplio, mediterráneo, a través del mundo fenicio, pero no de aculturación ni de iberización como algo absolutamente dependiente y determinado por los fenicios» (Cabrera Bonet, 1996, 52).

Ondorio gisa, feniziar kolonizazioak mundu indigenaren gain izan zuen eragina balioztatze aldera, esan daiteke, orokorki hitz eginez, eragile edo akuilu gisa funtzionatu zuela Penintsulako erkidego indigenak garatu bidean; eta, horren harira, kontu egin behar da Ruiz Matak adierazitakoaz (2000, 35):

«Oro har, feniziarren presentzia Mendebaldean eta bertako erkidego indigenekiko kultura-harremanen auzia ezin dira analizatu *kolonialismo/kolonizazio* kontzeptuen argitan, *akulturazio/interakzio* kontzeptuak baliatuz baizik; eta horrek interesgune batera-garriarantz eta kultura-aldaketara bideratu zuen prozesua hirigintzan, teknologian, gizarte-ekonomian eta merkataritzan. Begi bistakoa da, Arkeologiak erakutsitakoaren arabera, prozesu mantsoa izan zela hori, mende batean zehar... Ezin da saihestu aldaketa-prozesu hori gauzatu zela, neurri handi batez, feniziarren gailentasun teknologikoari esker, baina horrek ez du esan nahi indigenen aldetik mendekotasunik egon zenik, bateratze eta elkarbizitza baizik, sinkretismoak».

Akulturazio/interakzio fenomenoaren konplexutasuna eta, halaber, feniziarrek produktu piloaz interesatzen zirela kontuan harturik, ez da harritzekoa haien presentziak meategien ustiapena eta metalurgia —bereziki, burdinarena— bultzatu izana; baina ez da ahaztu behar —Fernández Nieto-k gogorarazten duenez (1999, 32)— beste mineralik ere ustiatu zutela, esate baterako, eraikuntzan: «Horien artean, harri eta marmol mota batzuk (arbela, baita basaltoa ere), apar-harria, okrea eta okre gorria (eskari handiko produktua berau, monopolioei bide eman ziena), eta buztina. Karea ere merkatugai bilakatzen zen labeetan egosia izan ondoren».

Argiak dira, orobat, nekazaritzak nozitutako aldaketak. Feniziarrei zor bide zaie mahastien eta olibondoen hazkuntza eta, ziur aski, beste zenbait landareren ustiapena ere, hala nola espartzuarena, nabigaziorako sokak eta kordelak egiteko (Fernández Nieto, 1999, 33). Era berean, bultzada izan zuen itsas baliabideen ustiapenak: horren erakusgarri, aipa daitezke gazitze (eta kontserbak, saltsak egiteko...) industriaren existentzia, edota purpura —molusku mota bati zor zitzaion tindagai garesti eta gutiziatua— lortzearen eraikitako lantegiak (*Ibidem*, 34-35).

Beraz, lehendik abian ziren tratu-zirkuituak garatu ziren, eta gorabehera honek erraztu eta sustatu baino ez zituen egin aurrerantzean mediterranearen merkatuaren eskariak asetzera bideratuko ziren produkzio eta ekonomia indigenak.

2. TARTESSOS: EKIALDE-JOERAKO AROA

2.1. Atarikoa

Feniziar presentziak Iberiar penintsulan abian jarritako prozesu historikoa —eta hari loturiko aldaketa sozioekonomiko eta kulturalak— Tartessos izenari atxikirik ageri da iturri literarioetan. Gorabehera horrek Guadalquivir Behereko eta gaur egungo Huelvako zenbait arotako errealitate topografiko eta politiko batzuk ezkutatzera eramán du. Tartessos izan da, gainera, 1922an Adolf Schulten jakintsu alemaniarrek *Tartessos* liburua argitaratu zuenetik Iberiar penintsulako Antzinaroaren gai historiko emankorrenetako bat.

Gaur egun, gaiaren inguruko ezagutzak berritu egin dira, bi arrazoirengatik nagusiki (Alvárez Martí-Aguilar, 2005, 205-220). Lehenik, iturri literarioak berrikusi dira eta horietako bakoitza testuinguruan ezarri, daren informazioa zehazte aldera. Era berean, narrazio mitikoez jasotako datu historikoen transmisioaren gorabeherak aztertu dira eta izaera horretako materialei zor zaien informazioa bahetu da, kontuan izan baita greziarrek Iberiaz eta Mendebaldeko mundu barbaroaz zuten berria gainazalekoa edo periferikoa zela oso. Azkenik, iturri idatziek penintsula hegoaldeko greziarren presentziari buruz ziotena ikerlan arkeologikoen argitan arakatu da. Bigarren, ikuspuntu berri batetik aztertu dira feniziarren eta indigenen arteko harremanak, eta xeheki arakatu ari dira arkeologoez gai horri buruz argitara ekarritako materialak, eta hori guztia, hain zuzen, garapen-prozesuaren eta kultura materialeko osagaien ulerkuntza osatuagoa erdietsi ahal izateko. Horren harira, balorazio zuzurragoa egin nahi da, aurreko kapituluaren esan dugunez, andaluziar mendebaldean feniziarren eta erkidego indigenen artean gertaturiko kontaktu kulturalaren tamainaz eta haren ondorioez, ekialdeko ezaugarriez hornituriko objektuen hedadura dela eta, *ekialde-joerako* aro deitu den horretan (K.a. 750-K.a. 550). Gauzak horrela, akulturazio-prozesutik eratorritako eraldaketak baloratzeko orduan, arreta jartzen da gaur egun bai gizarte indigenetan, baita ekialdeko osagai exogenoan ere.

Norabide berrien ondorioa, Tartessos *erresuma* zabal bateko hiritzat jotzen zuten teoria zaharren abandonua izan da, luzaroan arrakastarik gabe haren bila ibili ostean. Teoria horien paradigma Schulten izan zen (1922, 202):

«Tartessosek, Ozeanoko ate eta Betis bailarako enporio gisa zuen izaera bikoitzarengatik, Andaluziako hiriburu behar zuen. Ibai-ahoa kokaturiko hirian ibarreko aberastasuna biltzen zen, geroago Sevillan bezala; Nilo ibarrean, Alexandrian bezala, eta Rodano eskualdean, Massalian bezala. Haren kokapena dela eta —ibai handi bateko behe bidearen ondoan, ibar emankor eta handi batean—, Tartessos Ekialdeko antzinako Menfis

eta Babilonia hirien baliokidea da. Hiri horien kasuetan bezala, Tartessosek kokapenari zor dio bere antzinako kultura».

Hainbat arlotako azterlanen aurrerakuntzek delako ekialde-joerako aroaren errealitate historikoa hurbilagotik, era zehatzago eta seguruagoan, ezagutzea ahalbidetu dute. Horri esker, K.a. VII. mendeko bigarren erdian greziarrek Tartessos izendatu zutenaren kultura materiala hobeto ezagutzen dugu orain, haren benetako hedadurari dagokionez. Dena den, horrek ez du esan nahi zalantza guztiak argitu direnik, ez eta, K.a. VIII. mendetik K.a. VI. mendera arte, andaluziar mendebaldeak nozitutako prozesu historikoaren azterketak planteatzen dituen arazo guzti-guztiak konpondu direnik ere. Esate baterako, «tartesotar kultura» delakoaren sorrerarena gai eztabaidatsua gertatzen da arkeologoen artean. Azken erantzunik lortu ez duen auzia da oraingoz, eta azterlanen gaur egungo egoeran baieztatu daitekeen bakarra zera da, ezin dela, hain zuzen, zehaztu noiz eta nola sortzen den kultura hori (Belén, 2000, 85).

Berriro ere, Antzinaroaren Historiako beste zenbait arlotan bezala, baita iberiar penintsulari dagozkionetan ere, zalantzak nabarmen gailentzen zaizkie ziurtasunei — 1993an argitaratu *Los enigmas de Tartessos* azterlanak argi uzten du hori — . Protohistoria penintsularraren kapitulu honetako alde asko aspaldiko interpretazio eta indusketen oinorde dira eta, greziarren garaian bezala, gaur egun ere mitoaren eta historiaren artean nora ezean dabilta. Eta, mitotik urrundu eta historian bete-betean sartu ahal izateko, Tartessosi buruzko iturri literarioen edozein azterketak zera izan behar du kontuan, izen edo kontzeptu horren atzean, hain zuzen, aldaketa-prozesuan sartuta zegoen errealitate historiko bat ezkututzen dela.

2.2. Iturri literarioak: Tartessosen identifikazioa greziar autoreetan

Tarsis biblikoaren eta penintsulako Tartessosen arteko identifikazioa, behar adinako sostengurik gabe, historiografia modernoak baztertu ostean, eta Avienok esandakoak ere zalantzazkotzat jo izan direnez — «ez baitzuen argibide geografikoak emateko asmorik, poesia antikuaria egitekoa baizik, iraganeko datu geografikoak baliatuz», De Hoz-en iritziz (1989, 42) — , Tartessosi buruzko lehen argibideak aro arkaikoko greziar autoreen eskutik bilatu behar dira: poetak eta mitografoak ditugu, bereziki, eta euren obra greziarren zabaltze kolonialaren egunetakoa da.

Autoreon lekukotza baloratzerakoan, ordea, kontuan izan behar dira greziarrek Iberiar penintsulako geografiaz — Mendebaldeko tokirik urrunena berau, inondik ere zona marjinal eta periferikoa... — zituzten ezaupideak. Greziarrak inguru hauetan agertu aurretiko aitzin-uneetarako (Samosko Kolaios izan bide zen Atlantikoraino iritsi zen lehen greziarra), feniziarrek informazio-iturri pribilegiatu izan ziren (adib., Homeroren lan poetikorako) Mendebaldeko urrutiko zonalde honi zein eskaintzen zituen aukerei dagokienez. Feniziarren bidaiak markatu zieten greziarrei jarraitu beharreko bidea. Penintsulako hego-mendebaldean feniziarrek «topatu» bide zituzten aberastasunak izan ziren, ziur aski, hasierako garaian, Ozeanoaren ondoko zonalde geografiko hori greziarrentzat alegiazko toki mitiko bihurtu zutenak. Izan ere, Heraklesen mitoaren bidez — hark buruturiko hamar lanetako baten bidez — sartu zen Iberiar penintsula greziar *oikoumene*aren barruan.

Testuingurua halakoa izanik, ez da harritzekoa Tartessosi buruz eskura dugun lehen datua Himerako Estesikoro siziliar poetari zor izatea (K.a. VII-VI. m.); *Geryoneida* izenburuko obran, Hesiodo-ren Teogonian ere hizpide ziren Heraklesen eta Gerion-en balentriak kontatzen baitzituen.

Geryoneidatik mailegatuz, zera eman zigun aditzera Estrabonek, Eurytion, Gerionen itzaina, hain zuzen, jaio zela

«Erytheia ospetsuaren parez pare, Tartessos ibaiaren zilarrezko sustraietako ur mugabeen ondoan harkaitzeko koba batean» (Estrabon III, 2, 11).

Geryoneidan jasotako mitoaren bertsioari ziur aski atxikitako Pseudo-Apollodorosen bitartez (De Hoz, 1989, 27), badakigu Erytheia (Cádizko artxipelagoko hainbat uharteren izenaz aritu garenean, aurreko kapituluan ere aipatua izan dena) Gerion-en abeltaldea bazkatzen zen uharte zabala zela eta Herakles bertara Europa, Libia, Gibraltarko itsasarte eta Tartessos zeharkatu ondoren iritsi zela.

Lehenengo datu horiek zehaztugabeko Tartessosen kokapen geografikoari dagozkio. Krisko aurreko VII. mendean eta VI.aren hasieran, greziarrek Tartessos —Gadira bezala— Heraklesen Zutabeetatik haratago kokatu eta ibai edo lurralde batekin identifikatzen zuten. Hori bat dator K.a. V. mendean Leros-ko Ferezides-ek esandakoarekin. Bestalde, meatzaritza aberatseko lurraldea bide zen — ibai bat sortzen zen tokian —, eta azienda oparokoa halaber, Eurytion itzaina eta Gerioni Heraklesek ostutako idi taldeak aipatuak izateak iradokitzen duenez.

VII. mendearen bukaeran dataturiko iturri literarioetako aipu lanbrotsu horiek edukiz eta formaz betetzen dira iturri arkeologikoen ekarpenei esker, batik bat 1983an Samos-eko Heraion-en aurkitutako K.a. VII. mendeko brontzezko xaflari esker. Corzok (1998, 27-50) zorrotz aztertu du ilgora formako xafla hori, ikonografia zinez aberatsetzat jotzen dena. Heraklesen eta Gerionen arteko borrokaren irudikapen aparta eskaintzen du: bertan Eurytion itzaina azaltzen da «Cádizko paisaiaren irudikapen sinesgarri» baten ondoan (*Ibid.*, 36), eta hori da benetan garrantzitsua. Corzoren esanetan, Cádizko *drago* arbola ere azaltzen da, haren ohiz kanpoko itxuragatik eta egozten zitzazkion ezaugarriengatik antzinateko autoreek aipatzen zutena. Laburki adierazita, idatzizko iturriek, zehatzak izan gabe ere, aro arkaikoko greziarrek Gadir-eko pasaia eta tradizio kulturala zuzenki ezagutu zutela adierazten dute, iturri ikonografikoekin batera.

Era berean, Tartessosen mitoiari loturiko lehen argibide geografiko horiek Heraklesen paper zibilizatzailea erakusten dute, munduaren azken mugako Zutabeak eraiki zituen espazio urrun eta ezezagun hartako ordenatzaile gisa.

Kristo aurreko VI. mendeko bigarren erdian — gutxi gorabehera —, berriz ere poeta bat izan zen, Anakreonte, argibide berri bat eman zuena, eta hori, beste behin ere, Estraboni esker gorde da (III, 2, 14):

«Baina ez nuke nahi nik
ez Amaltearen adarra,
ez eta ehun eta berrogeita hamar urtean
Tartessos-en erreinatu»

Estrabonek lurraldeko biztanleen —batez ere, buruzagien— bizi-luzeraz zihar-
duen kontakizun batean sartu zuen pasarte hori, eta, haren iritziz,

«Anakreonteren hitzak interpreta litezke hitzez hitz, edo modu orokor batean... ez
eta ere denbora luzean Tartessos-en erreinatu» (III, 2, 14).

Tartessosi buruzko Anakreonteren aipu horrek interes berezia du, eta jauzi kuali-
tatiboa dakar aurreko argibideen aldean; izan ere, testuinguru mitiko bati loturik ageri
bada ere, haren argitara Tartessos ez da soilik mundu ezagunaren muturreko errealitate
geografiko bat —ibaia/lurraldea—; aitzitik, egitura politiko batekin —*basileia* batekin,
alegia— erlazionaturik ageri da, hots, egitura politiko jakin batez hornitutako gune geo-
grafiko bati lotzen zaio, zehatzezina bazaigu ere. Edozein modutara, interesgarria eta
garrantzitsua izanik ere, informazio horrek ez du zehaztasunik ematen aipaturiko gober-
nu motari dagokionez.

Gauzak horrela, baieztatu daitekeen gauza bakarra zera da, K.a. VI. mendearen biga-
rren erdiko greziar iturrietan, hain zuzen, *basileia* bat lotzen zitzaizkion Tartessosi, halako
aire lanbrotso batez inguraturik ageri den *basileia*, inola ere; baina haren izaeraz ez zu-
ten ezer gaineratu, eta, hainbestean, ausarkeria izan liteke *erregetza* gisa interpretatzea.
Hala ere, erants daiteke —Estrabonek berak gogora ekarri zigun bezala eta geroago
ikusterik izango denez— badakigula *basileus* baten izena: Argantonio, hain zuzen.

Basileia horren harira mamituz joan zen alegiazko iruditeria garbi islatzen da Ana-
kreontek lehenik, Herodotok gero, eta Estrabonek aro-aldaketan azkenik, gobernari tar-
tesotarren bizitza luzeaz jaso zuten bitxikeria horretan. Topiko hori, eta lur oparotasuna-
rena, elkaturik joan ohi ziren beti mundu ezaguneko mugetan kokaturiko lurralde
idealizatuen inguruan, Tartessos kasuan gertatzen den moduan.

Horregatik guztiarengatik, Anakreontek esandakoa erabilgarria izanik ere, ezin da,
poetaren aipamen soil hori oinarritzat harturik, *basileia* batekin identifikaturiko erregi-
men politiko baten existentzia baieztatzeaz haratago joan puntu honetan, greziarrek Tar-
tessos deituriko lurraldeari dagokionez, ez baitago daturik greziarrak apenas bisititzen
hasiak ziren zonaldeko sistema politikoaz ezer zehatzagorik esan edo zerbait gehiago
jakitera iristeko.

Anakreonteren garaikidea izan zen —gutxi gorabehera— Hekateo Miletokoa. Ha-
ren testigantza K.o. VI. mendeko autore bati esker, Bizantzioko Esteban (Stéphanos
Byzántios) lexikografoari esker, iritsi da guregana (eta, noski, autorea hain beranta iza-
nik, transmisioaren fideltasunaren arazoa planteatzen da). Hekateok obra mitologi-
ko-historiko bat —*Genealogiai* izenburuaz ezagutzen dena— idatzi zuen eta, gure kasu-
rako garrantzitsuagoa dena, mundu ezaguneko deskribapen bat —*Periégesis*—, mapa
eta guzti. Mapa horretan mendebaldeko bazterrak ere sartzen zirenez, kartografian lehen
aldiz azaldu ziren Heraklesen Zutabeei, Iberiari eta Tartessosi buruzko erreferentziak.
Bestalde, ezin da ahaztu Hekateok, aipaturiko beste obran, *Genealogiai* izenburukoan,
kritikatu egin zuela greziarrek Heraklesen abenturak Mendebalde urrunean kokatzeko
zuten ohitura. Haren iritziz, Gerionek ez zuen zerikusirik izan Iberiarekin edota Erytheia
irlarekin. Beraz, zonalde geografiko horren eta Heraklesen mitoaren artean ematen ziren
loturak hautsiz, «penintsulako lehenengo geo-etnografia» burutu zuen, «diseinu karto-
grafiko batean Mendebalde urruna sartuz» (Ciprés eta Cruz, 1998, 120).

Kartografia-lan horretaz gainera, Hekateok garrantzizko beste datu bat ere eman zigun, «Elibirgue, Tartessosko *polis*-a» aipatzean. *Mastiarrak* aipatu zituen, halaber, *ethnos* gisa, Heraklesen Zutabeetatik hurbil; baita iberiarren *ethnosa* ere; eta *Sikane*, Iberiako *pólisa*; eta abar. Beraz, penintsulako geografiari buruzko zenbait erreferentzia ez ezik (gutxi gorabeherakoak izanik ere berauek), politiko-etnografikoak ere eman zituen. Baina, kasu honetan ere arazoa dago, *basileial/basileus* hitzekin gertatzen zen bezalaxe; hain zuzen ere, Tartessos bere baitan *polis* bat daukan lurralde gisa identifikaturik ere, ezin da hortik konklusio zehatzik atera, Hekateok *polis* hitza «habituduriko tamaina ezberdineko guneak» izendatzeko erabili baitzuen (De Hoz, 1989, 32). Honenbestez, aipamen horrek ez du argumentu gisa balio penintsulako zonalde horretan K.a. VI. mendean hirien existentzia frogatzeko.

Hekateoren aipamenei Karianda-ko Skylax-ek K.a. VI-V. mendeen bueltan egindakoak gaineratu behar zaizkie. Autore honek adierazi zuen egun horietako greziarrek Zutabeetatik haratagoko eskualdea ezagutzen zutela, Hermeo eta Sakro (San Vicente lurmuturra) izeneko harkaitzak altxatzen ziren tokia, alegia. Beraz, Itsasartearen igarobidean kartografia zitezkeen «seinaleztapen berriak» kokatu ziren, berauek ere jainkoei kontsokratutakoak (Plácido, 1995-96, 30).

Hemen banan-banan aztertu diren argibide labur horiek balio handiagokoak dira, K.a. V. mendeko Herodoto historialariak jasotako ondoan jartzen direnean; eta hori, ahaztu gabe, aurreko kapituluan adierazi dugunez, hark zeharkako interesa baino ez zuela Iberiari buruz, eta, ondorioz, bidenabarreko informazioa eskaini zuela —Kolaios Samoskoak Tartessosera egindako bidaiaren kasuan bezala, zeina Zireneren fundazioaz ari delarik aipatu baitzuen—:

«Handik gutxira, halere, Kolaios patroï zuela, Egiptorantz zihoan Samosko ontzi bat desbideratu egin zen eta aipatutako Plateara iritsi [...]. Samostarrak uhartetik abiatu ziren eta Egiptora heltzeko irrikaz itsasoratu, baina sortaldeko haizearen eraginez desbideratu egin ziren. Eta, haizea baretu ez zenez, Heraklesen Zutabeetatik haratago igaro ziren eta, jainkoen babesaz, Tartessosera iritsi. Garai hartan merkataritza-gune nagusi hori ez zuten ia bisitatzen merkatariek eta ustiatu gabe aurkitzen zen (*emporion akératon*); beraz, samostarrek, beren aberrira itzultzean, beste edozein greziarrek baino irabazi handiagoa lortu zuten, guk dakigula, *pleitaren* emaitzarekin» (IV, 152).

Eman zuen jakitera, halaber, nola iritsi ziren fozearrak Tartessosera:

«Hain zuzen ere, itsasketa luzeez baliatu ziren lehen heleniarrak phozearrak izan ziren, eta hauek dira Adrias, Tyrrenia, Iberia eta Tartessos azaldu zituztenak; ez ziren, ordea, itsasoratzten ontzi borobiletan, pentekonterotan baizik. Eta, Tartessosera iritsi zirenean, atsegin izan zitzaizkion tartesiarren erregeari; honek Arganthonio zuen izena, laurogei urtez agindu zuen Tartessos eta guztira ehun eta hogeiz bizi izan zen. Eta phozearrak benetan hain atsegin izan zitzaizkion gizon horri, non lehenik Jonia utzi eta bere lurraldean nahi zuten lekuan bizitzeko esan zien, eta ondoren, phozearrak esanera jarri ez zituenean, jakin baitzuen mediarra nola gainditzen ari zitzaien ere, hiriaren inguruan harresia eraikitzeke dirua eman zien. Eta, eman ere, neurrigabe eman zien; harresiaren ingurua ez baitzen estadio gutxikoa eta guztia harriztarrez ongi doitua baitzegoen.» (I, 163 [itzulp.: USABIAGA, Iñaki, *Herodoto*, Klasikoak bilduma, 1997]).

Herodotoren pasarte hauek aro zaharreko greziarrek Tartessosera eginiko lehen bidaien berri ematen digute. Lehenengoa, K.a. 630 urte ingurukoa —eta Zirene, kolonia greziarra, fundatu zen garaikoa (izan ere, fundazio horren kontakizunean baitator)—, jainkoen babesaren izan zuten ustekabeko abentura pertsonal bat izan zen; bigarren bidaiak, aldiz, fozearren ekintza kolektiboa izan zen.

Hau guztia azpimarragarria da, izan ere, Iberiar penintsulako hego-mendebaldera greziarrek benetan buruturiko bidaiak —historikoez, ez mitikoez— eskura dugun lehen informazioa da. Gauzak horrela, baieztatu daitezke Kolaios-en bidaiak «zubiarena» egiten duela Heraklesen Zutabeak aipatzen zituzten tradizio mitikoen, feniziarren munduaren eta greziarren merkataritza arkaikoaren artean (Plácido, 1993, 178).

Kolaios-en nabigazioari buruzko kontakizunak aditzera ematen duen beste datua, lehen aipatu ditugun autoreen bidez ere ezaguna gertatzen zaiguna, honako hau da: Tartessos samostar guztiek etekina atera zuten toki aberats gisa deskribatzen zela. Tartessos merkataritza-gune garrantzizkotzat jotzen zen aro horretan, merkataritzari irekitako toki edo *emporion akératon* moduan, zehatzago. Beraz, Tartessos truke ekonomikorako toki segurua zela uler daiteke, eta, gainera, «ustiatu» gabea, Kolaios izan baitzen, jainkoen babesarekin, berau «topatu» zuena.

Greziarrek Tartessosekin —feniziarren tokian tokiko *azpiegitura* baliatuz, noski— izandako lehen harreman historiko horiek (Kolaios-en abentura komertzialean egokiro islatzen direnak), K.a. VI. mendearen erdialdera fozearrek garatutako merkataritza-jarduekin osatu behar dira. Kristo aurreko 540. urteko pertsiar mehatxua baino lehen maiz joan ohi ziren Tartessosera, eta, garrantzitsuagoa dena, lagunarteko harremanak (*philia*) egin zituzten tartesotarren *basileus* Argantonioarekin. Azken honek, dakigunez, dirua eman zien haien hiria, Asia Txikian, harresiz ingura zezaten pertsiarren mehatxuaren aurka.

Zenbait gauza analizatu behar dira Herodotok kontatutakotik. Lehenengo eta behin aipatu behar da, Iberiar penintsularen antzinateko geografiaren ikuspegitik, Iberia eta Tartessos argiro desberdinduriko termino gisa azaltzen direla —Hekateoren kasuan bezala, edonola ere—. Bestetik, Tartessos aberastasunari eta *basileiari* loturik azaltzen dela berriro ere. Eta, azkenik, erregimen politiko hori Argantonioaren pertsonan mami-tzen dela, eta berau boterea «tirano baten moduan» (*etyrânneuse*) erabiltzeagatik ezagarrizten dela, eta baita bere bizi-iraupenarengatik (Anakreonteren zatiak dokumentatu *topos* literarioa), abegitsu eta eskuzabal agertzeagatik (erresumako aberastasunak baimendurik apika) eta fozearrekin adiskide gisa jokatzegatik ere.

Argantonio *basileus* gisa agertzeak ez du askorik adierazten, tamalez, K.a. VI. mendearen erdiko Tartessosko egituraketa politikoaz. Herodotoren aipua motz gelditzen da, bere lausoan, Argantonio *basileus* horren boterearen jatorriari, oinarriari, izaerari edota hedaturari buruz erabateko ondorioak atera ahal izateko (De Hoz, 1989, 32-33). Hori dela-eta, greziar historialariaren beste datu batzuk hartu behar dira kontuan, *basileia* horren boterearen izaeraz zerbait zehatzagorik jakin ahal izateko; izan ere, motza izanagatik, eskura dugun lehen aipu historikoa ere bada —albora uzten badira, behinik behin, mitotik errealitate baina gertuago leudekeen urruneko erresuma idealei buruzko *topoi* ohikoak—, merkataritza fozearrek Tartessosko merkataritza-gunean ezagutzerik izan zuten organizazio politikoaz.

Argantonio izena hizkuntza klasikoetan *zilar* esan nahi duten hitzei lotzen zaie, *árgyrosi* eta *argentumi*, alegia. Himerako Estesikorok, ikusi dugunez, Tartessosekin lotu zuen mineral hau; beraz, bada halako harremanik *basileus* Argantonioren eta aberastasunaren artean. Herodotoren pasartean berriro azaltzen da aberastasuna, *chrémata* greziar terminoaren bidez, *basileus* tartesotarrak fozearrei nahikoa eman ziola zioenean, euren jaioterriko harresia eraikitzeke. Hori ulertu behar da, Olmos-ek (1995) iradoki duenez, Argantoniok «zilar-lingoteak, bere kontrolpean pisatuak, errege-aginteak bermaturik» fozearrei eman zizkiela esaten denean. Hots, delako *basileus* horren eskumenetako bat zilarraren bermea ematea bide zen; eta jarduera hori bat etorriko litzateke Herodotok adierazitakoarekin: tirano baten legez —*atyránneuse*— gobernatzen zuela, alegia, edo «ekialdeko errege baten legez», ahalmen berbera baitzuten. Hori horrela izanik, adieraz daiteke, Olmosi jarraituz, Argantonio «ekialdeko tirano edo errege baten bereizgarriekin azaldu zitzaizela greziar begiei», eta Tartessosko zilarrak eta bertako «printzearen bermeak zerikusirik izan zutela, beste faktore batzuekin batera, anatoliar Jonian zilar-txanpongintza finkatzeko» (Olmos, 1995, 42). Kontakizun hori benetan garrantzizkoa da, Tartessosoren ustezko aberastasuna —eta zilarrezko sustraietako ibaiaren kontua— ez baita jada fabula hutsa, zerbait hautemangarria, erreala eta historikoa baizik, Iberiar penintsulatik kanpo, Asia Txikiko Phocaea hiri greziarrean, harresi bat eraikitzea ahalbidetzeraino. Argantoniok emandako zilar horrek *basileus* tartesotarraren eta fozearren arteko adiskidantza eta errespetuzko harremanak sendesten zituen, eta Mediterraneoko bi aldeetako eliteen artean erabiltzen zen *opari* sistemaren adibide argia da, faborea faborearen truke. Sistema horren bidez, Mendebaldeko muturreko aberastasunen parte bat Ekialdera iritsi zen.

Laburbilduz, K.a. VII. mendearen eta K.a. VI. mendearen erdiaren inguruan Tartessosoren horizonte historikoan murgiltzen gara, alde batetik, Kolaiosoren bidaiari buruz Herodotok jasotako argibideei esker — Michalis Tiverisos-en iritzi dokumentatuaren arabera (2000), Samoseko Heraion-en aurkitutako orrazi tartesotarrak bidaia horren lekuko dirateke—, eta fozearrek Argantoniorekin zituzten harremanei esker, bestetik. Tartessos aro horretan merkataritza-gune aberats batekin eta Gibraltar itsasartetik harago zegoen lurralde batekin identifikatzen zen. Bertan boterea, greziar begietatik ikusita, *basileus* baten figuran pertsonifikatzen zen, botere horren muga eta izaera ezezagunak direla, ordea. Ilunantz mitiko-geografikotik igaro gara, Herodotori esker, argibide geografiko, etnografiko eta politiko ziurragoetara; partzialak oraindik, ziur aski osaga-beak eta laburrak, baina historikoak, azken finean.

2.3. Hierarkizazio soziala Arkeologiaren argitan

Iturri literarioei esker Tartessosoren antzemandako gizarte-hierarkizazioa eta botere modua bat datoz Arkeologiak eskuratu zenbait datuekin, bereziki andaluziar mendebaldeko nekropoliak aztertu dituen hilobietako Arkeologiak argitara ekarritakoekin.

Indusketek erakutsi dute hildakoaren gizarte-mailak erabakitzen zuela hil ondoan hari ematen zitzaion tratua; bestela esanda, hileta-errituek bizien arteko desberdintasunak islatzen zituztela, alegia. Joya, Los Alcores, Cruz Negro, Carmona eta Setefilla-ko nekropolietan egindako azterketek datu garrantzizko eta konplexuak —aurreko aldirako

tamalez falta zaizkigunak — eskaini dituzte ekialde-joera aroko hileta-ohitura eta errituei buruz eta, ondorioz, baita garaiko bizien munduaz ere.

Hileta-errituen konplexutasuna eta aniztasuna azpimarratu behar da; hori garbi ematen da aditzera hilobiak estaltzeko moduan, hileta-ostilamenduetan eta are ehorzte modu ezberdinetan ere: errausketa eta lurperatzea, adibidez, nekropoli berean eta are hilobi berean ere. Aniztasun hori gizarte konplexu eta hierarkizatu baten isla argia da. Nabarmenak dira tartesotar eliteen hilobiak. Haienak dira *aberatsenak* (adib., Setefillako A tumuluan), bai eraikinaren aldetik begiratuta, bai hileta-hatuari kontu eginik ere (diademak, gurdia...); hainbestera, ezen *printze-hilobiak* izena merezi izan baitute. Hilobi mota eta hileta-hatuak kolono feniziarrekiko tratutik etekin gehien ateratzen zuen gizarte-sektoreak bere burua nabarmentzeko baliabide gisa hartu behar dira. Bertako talde sozial hori zen, era berean, kolonoekiko mintzaidea, lurraldeko produktuen hornidura kontrolatzen zuena (gogoan izan aurreko kapituluan herri indigenen kokapenez esandakoa) eta feniziarren eragin kulturalak ere irekien agertzen zena; horren guztia-oren ondorioz, bere boterea eta nagusigo ekonomiko-soziala agerian jartzeko aukera ematen zioten produktuak eskurago izan zituen.

Honek guztiak, K.a. VII. mendea aurrera zihoalarik, gizarte hierarkizatu eta konplexu baten aurrean aurkitzen ginela frogatzen du. Gizarte horrek ezagutu zituen hilobiratze arranditsuek hainbat *status*- edo botere-osagai jartzen zuten agerian: ospe-objektuak, alegia, jabearen hierarkia eta maila markatzeko balio zutenak. Argantonio *basileus*-a elite horren arketipoa izan zen, greziarren iturri literarioetan gelditu zaigun isla argi eta bakarra.

2.4. Antolakuntza politikoa aro helenistikoko eta erromatarreko iturri literarioen argitan

Eztabaida piztu da, halaber, aro helenistikoko eta erromatarreko iturri literarioek —hots, Tartessos eta, oro har, honen aroko errealitate historikoa oroipena baino ez zen uneko iturriek— Tartessosko botere-egituraz eta gizarte-sistemaz egiten dituzten aipamenen kariaz¹.

Kristo aurreko IV. mendean geroztik, aro helenistikokoan edota erromatar agintaldian idatzi zuten autoreen lekukotzak aztertzerakoan, oso kontuan izan behar da biziki hedatu zirela ordurako mundu ezaguneko mugak eta Mediterraneoko politika ere nazioarteko bihurtu zela. Ondorioz, ordura arte ia ezezaguna zen lurralde askori buruzko datu eta argibideak ugaritu ziren eta, horri esker, mundu ezaguneko deskribapenak aberastu ziren. Mundu horren zati baino ez zen Iberiar penintsulari zegokionez, ezagupen geo-etnografikoak zehatzagoak bilakatu ziren —Eratostenes-en mapan ikus daitekeenez—, eta erromatar agintaldiak ezagupen horiek oraindik ere osoagoak izateko parada eskaini zuen. Horrela, ahalbidetu zen antzinako Tartessosko eta penintsulako beste lurralde batzuk deskubritzea.

¹ Aurreko kapituluan jasotako Plinioren pasarte batean ikus daitekeenez, Gadiraren fundazioa ere oroitzapena baino ez zen, eta Tartessosekin nahasten zen batzuetan (NH IV, 120).

Bestalde, Alexandro Handiak ekialdean eta Erromak mendebaldean burututako konkistek harremanetan jarri zituzten mundu klasikoa eta bazterreko herriak. *Barbaroak*, menderatuak izan ziren unetik beretik, ezagutza historikoaren eta azterketa antropologikoaren gai bihurtu ziren, eta, horrela, herri horien bizimoduak, kulturak eta egitura politikoak —eredu klasikoetatik maiz erabat aldentzen zirenak— abagune edo arrazoi suertatu ziren gizakiaren antolatze era *primitiboez* edota gizateriaren bilakaera-etapez hausnartzeko. Orobat, desberdintasun kulturalak filosofia eta antropologia helenistikoaren irizpideei jarraiki esplikatzen ziren, eta estoizismoak konkretuki (eta beronekin bat Posidoniok) zera uste zuen, klimaren gorabeherak eta ezaugarri geografikoek zerikusia zutela herri baten garapen politiko eta kulturalarekin. Autore greko-erromatarrek garapen-maila hori eredu *zibilizatuaren* parametrotan neurtzen zuten beti, *pólis* edo *ciuitas* deitutako Estatu-hiri klasikoarekiko aurkitzen zen hurbiltasun-mailaren arabera beti ere.

Era berean, zera ikusten da maiz aro helenistikoko kontakizun historikoetan, mito eta genealogia heroikoak, hain zuzen, diskurtso historikoan balia zitezkeen iturri garrantzizkotzat hartzen zirela, populatutako munduko herri eta herrialdeen jatorria argitze aldera. Historia berreraikitze modu horren adibide, mediterranean mendebaldeko historiari eta herrien eta hirien sorreraz arduratu zen Tauromenioko Timeoren obra dugu². Bertan Iberiar penintsula azaltzen zen berriro Heraklesen eta Gerionen abenturen eszenatoki gisa, eta Tartessosen aberastasuna hizpide.

Ezaugarri orokor eta irizpide ideologiko horiek azaldu ziren, neurri handiago ala txikiagoan, K.a. III. mendean geroztik Tartessosi buruzko datuak eman zituzten autoreengan. Gauzak horrela, argi dago, alde batera utzi ezin badira ere —eta horregatik, aipatu egin dira, laburki izanik ere—, ezin direla informazio horiek guztiak hanpatu, arrazoibide ideologiko hutsak balira bezala, jarraian —jarrera hiperkritiko batek egingo lukeen moduan— baztertzeko. Aurreko kapituluaren seinatu dugunez, zuhurra izan beharra dago, alde batera utziz erabateko balorazio negatibo eta positibo hutsak.

Informazioaren analisiari ekinez, esan behar da Estrabon izan zela, bigarren gerrate punikoaren eta Augustoren printzipatuaren artean (K.a. III. mendean gero kristau aroa hasi arte), Tartessosi buruz —eta, oro har, erromatarren aurreko etnografiari eta geografiaz— datu gehien eman zuen autorea. Haren *Geografiak* garrantzi berezia du, izan ere, aro-aldaketan —Tartessosi buruzko kontuak oso aspaldiko gauza zirenean, alegia— idatzitakoa izanik ere, iragan aldiari berri ematerakoan gaur egun galdurik dauden lehenagoko autoreen obrak baliatu zituen. Eta autoreok, penintsulan egondakoak zirenez, zuzeneko lekukoak ziren.

Estrabonen iturriak honako hauek izan ziren, banan-banan: Polibio (K.a. II. m.), *Historíai* obraren 34. liburua, Erromak menderatutako lekuen deskribapena egiten zuena, hain zuzen, galdua dena; Efesoko Artemidoro (K.a. II-I. m.), bere informazioak tokian bertan egiaztatzen zituen jakintsu helenistikoaren prototipotzat jotzen dena eta penintsula K.a. 100. urte inguruan bisitatu zuena, Harkaitz Sagaratua hasi eta itsas hegia ekialderantz deskribatu zuen periplo bat idazteko asmoz; Apameako Posidonio (K.a. II-I. m.), Panezio estoikoaren ikaslea izandakoa eta, adierazita dagoen bezala, K.a. 110-

2 Timaios, Plinio naturalistaren iturri izan zen K.a. IV-III. mendeetako autorea.

91 urte bitartean Cádizen egon zena, Atlantikoko mareak aztertzen; eta, azkenik, Myrleako Asklepiades, K.a. 100. urte aldera penintsulan egona zena, non, Estrabonen beraren hitzetan (III, 4, 3), «letretako maisua» izan baitzen, Turdetanian hain zuzen, «bertako jakingarrien deskribapena» emanez argitara.

Estrabonek baliaturiko autore horiek guztiak iturri zuzenak ziren, hots, bertatik bertara ikusitakoa edo penintsula-hegoaldeko jendeei entzundakoa jasotzeaz arduratu zirenak. Haien berriemaileak, Melqart-en tenpluko apaizez gainera, hizkuntza klasikoe-tan mintzo zen jende aberatsa zatekeen (De Hoz, 1989, 37).

Estrabonek bere egunetan Turdetania gisa ezaguturiko lurraldearen iragan urrunari erreferentzia egiteko izan zuen Tartessos hizpide, eta, halatan, bertako bizilagunak Tartessos oinordeko izendatu zituen: zehazki, III, 2, 11 pasartean —Estesikororen aipua jasotzen zuenekoan, hain zuzen—, Estrabonek Tartessos antzina zilarrezko sus-traiak zituen ibai batekin identifikatzen zela berretsi zuen:

«Kastalotik ez oso urrun, Betis sortzen omen den mendia ere badago, bertan aurkitzen diren zilar-meatzeak direla eta, Argentea izena duena [...]. Dirudienez, antzinakoek Tartessos izenez ezagutzen zuten Betis ibaia [...]. Ibaiak bi bokale zituenez, esaten da antzina hiri bat altxatzen zela Erdiko tartean, eta hiriak, ibaiak bezala, Tartessos zuela izena, eta herrialdeak, Tarteside [Posidoniotik jasotako eztabaida bat dator jarraian Tarteside izeneko zonaldearen kokapenez]».

Laburbilduz, penintsula hegoaldeko zonalde honetako iragan historikoa gogoraztean, Estrabonek derrigorrez jaso behar izan zituen, bere obran, Tartessos ibaitzat, hiritzat edota *basileiatzat* jotzen zuten antzinako aipamenak (III, 2, 14, Anakreonteren bertsoak jasotzen zituen tokian).

Tartessosi buruzko beste datu garrantzitsua aspaldiko tradizioen existentzia baieztatzen duena da. Estrabonek honako hau adierazi zuen:

«Hauek [turdetaniarrak] jotzen dituzte jantzienak bezala iberiarren artean: idazkera erabiltzeaz gainera, haien antzinako gogorapenez kronika historikoa, poemak eta duela sei mila urteko legeak omen dituzte bertsoan jarriak [...]» (III, 1, 6)

Kronikei, poemei eta bertsoz idatzitako sei mila urteko legeei buruzko kontu hori, ziur aski, Myrleako Asklepiades-i zor zion. Asklepiadesek gramatika irakatsi zuen penintsulako hegoaldean K.a. 100. urte inguruan, eta, herrien deskribapena egiterakoan, hori eta bertakoei iraganari buruz entzundako beste datu interesgarri asko idatzi ahal izan zituen.

Bestalde, hurrengo kapituluan ikusterik izango da Estrabonek irudi osoa eman zuela bere garaian Turdetania izenez ezagutu zonaldeko geografiaz eta berezko baliabideez, eta, denboraren joanak ekarritako aldaketak gorabehera, Tartessos berri ematen zuten autoreek aipatutako zenbait ezaugarri errepikatu zuela: zilar aberastasunarena, ibaiaren garrantziarena, merkataritzarako aukerena, gobernarien bizitza luzearena, eta abar. Era horretan, haren iturriak baino zaharragoak ziren garaietako tradizioari loturik ageri da. Horregatik, idazten zuen garaian helburua «erromatar menderakuntzaren legitimitatea eta onginahia erakustea» izanik ere nagusiki (Cruz, 1995, 59), Tartessosi buruzko argibideak oso baliagarriak dira, euren apurrean, errealitate historiko tartesotarren benetako neurria balioztatu ahal izateko, Estrabonen obran azaltzen diren garai diferen-

teak nahasi gabe — alegia, Tartessosko antzinako aroa (K.a. VII-VI. mendeak), Amasiako geografoaren informatzaileen iragan hurbila (K.a. 100. urte ingurua) eta Erromaren eragin zibilizatzaileak protagonismo argia zueneko Amasiakoaren beraren garaia (eraaldaketaren ingurukoa) —.

2.4.1. *Justinok Gargoris eta Habis-i buruz jasotakoa: arazoak eta eztabaidak*

Justino izan zen, Estrabonen ondoren, Tartessosi buruz argibiderik interesgarriena jaso zuena. Gure Aroko III. mendeko autore honek Pompeius Trogus historialari galiarrak Augustoren garaian idatzitako *Historiae Philippicae* obra galduaren laburpen bat egin zuen. Beronen 44. liburua Iberiaz ari zen, eta bertan interes handia duen paragrafo hau zetorren:

«Baina tartesotarren basoak, non, esaten denez, Titanek jainkoen aurkako gerra astindu baitzuten, kuneteek populatu zituzten, eta Gargoris izan zen euren errege zaharrenetako, ezta jasotzeko modua lehenik asmatu zuena, hain zuzen. Honek alabarekiko intzestuen ondorioz izandako biloba hil egin nahi izan zuen geroko belaunaldien eskandaluaren lotsarengatik. Baina, gupidak hainbeste arriskuren artean babesturik, haurra boterera iritsi zen zori on [fortuna] bati esker. [Pairatu zituen arrisku] guztien artean, lehena izan zen (Gargorisek) haurra abandonatzea agindu zueneko; egun batzuk geroago, abandonatuaren hilotza bilatzeko agindu zuenean, basapizti batzuek euren esnearekin elikatzen zutela aurkitu zuten. Etxera eraman ostean, agindu zuen abere saldoak ibiltzen ziren igarobide estu batean utz zezatela (jaioberria): erabaki krudela, nahiago izan baitzuen biloba abereek ostikatua hiltzea, heriotza erraz bat ematea baino. Han ere minik hartu ez zuenez, ezta jaki-gabeziarik ere nozitu, hainbat egunetako barauaren ondoren amorraturik zeuden zakur gosetiei egotzi zien lehenik, eta zerriei gero. Kalterik egin ez ziotenez eta, gainera, haietako batzuen ugaztetatik elikatzen zenez, Ozeanora botatzea agindu zuen.

Orduan, olatu zakarren eta zurrunbiloen artean itsasoak herrestan eraman ordez, itsasontzi baten moduan kokatu zen itsasertz leunean, jainko baten babesa balu bezala; handik gutxira orein bat azaldu zen eta bere ugatzak eskaini zizkion haurrari. Hala, hazamarekiko harremani esker, haurra biziki arina atera zen: orein taldeen artean ibiltzen zen mendietan zehar, eta ez horiek baino abiadura gutxiagorekin.

Azkenik, segada batean erori eta erregearengana eraman zuten. Orduan, ezaugarri fisikoen antzekotasunak eta azalean suz markaturiko seinaleek beharturik, bilobatzat hartu zuen. Bukaeran, hainbeste ezbehar eta arrisku pairatu izanak harriturik, erresumako oinorde izendatu zuen. Habis izena jarri zitzaion, eta erresuma hartu orduko halako handitasuna erakutsi zuen, non ez baitzen zalantzarik izan jainkoen babesak atera zuela hainbeste arriskutatik; izan ere, herri barbaro bat legeen bidez gobernatu zuen, goldatzeko idiak nola meneratu irakatsi zien eta uzta izateko nola garia erein, eta, basa-janen ordez, hobeto jatera behartu zituen, berak jasandakoen ondoren jaki horiei zien higuinagatik. Gertatu zitzaizkionak ez sinestekoak dira, eta ezin konpara daitezke otso batek elikatu zituen Erromaren fundatzaileekin edo zakur batek elikatutako pertsiarren errege Zirorekin. Herriak jopulak debekaturik zituen eta zazpi *urbes* direlakoetan zegoen antolaturik. Habis hil ondoren, haren ondorengoek belaunaldi askotan eutsi zioten erregetzari.»

Justino, *Epit. historiarum Philippicarum Pompei Trogi* 44, 4, 1-14 .

Testu honen lehen irakurketatik zera ondorioztatzen da, Justinok tartesotar *basi-leiaren* jatorriari buruzko mito edo legenda bat jaso zuela III. mendean, eta bertan bi pertsonaia nagusi, biak ere alegiazkoak, agertzen direla: Gargoris eta Habis; eta hauek burututako «antolakunde-lana» kontaktzen du.

Testuaren erabilgarritasunak arazo ugari planteatzen du, eta bibliografiari begiratu bat ematea nahikoa da aztertzaileen iritzia askotan kontrajarriak direla konturatzeko. Gako nagusia honetan datza: autore honen kontakizuna —eta, oro har, edozein autore berantena— baliagarri izan daitekeenetz erabakitzea, hain zuzen, Tartessosen historia berreraikitze eta, zehazkiago, bertako egituraketa politikoaren auzia nolabait argitze-ko.

Justinok bera baino lehenagoko beste autore baten obra laburtu zuenez, lehen egitekoa da Augustoren garaiko autoreari (Pompeius Trogus-i, alegia) zehaztasunez jarraitu zion ala ez erabakitzea; baietz erantzunez gero, informazioaren datazioa printzipatua baino lehenagoko garaira arte eraman baitaiteke. Kritika filologikoak argitu du puntu hori, eta testua hitzez hitz kopiatua izan zela frogatu du (García Moreno, 1979); honenbestez, III. mendeko epitomatazailearen balizko interpolazio eta erantsiei buruzko zalantzak argiturik daude. Gauzak horrela, bitartekariarengana bainoago haren iturrira zuzendu beharko da gure azterlana.

Trogo Ponpeio historiagile galiarra lehenagoko autoreetan oinarritu zen; baina ez dakigu zehatz-mehatz zeintzuk izan ziren erabili zituen iturriak, nahiz eta uste izatekoa den Estrabonek erabilitako berberak izango zirela, hots, Posidonio eta Myrleako Asklepiades. García Morenok ikusi du bi autore horien ideiak —zehazki, kulturaren jatorriari, bizimoduei, eboluzio-etapei, arbaso mitikoen bilaketari eta abarri buruzkoak— aro helenistikoko antropologia-, filosofia- eta historia-irizpideetan oinarriturik zeudela. Beraz, ebatzi beharrekoa da ea Trogok (edo bere iturriak) jasotzen duen fundazio-kontakizuna tartesotar istorio edo mito baten isla den —alegia, hari esker (eta greziar ukitu batez agian orrazturik) gureganaino iristen den tartesotar istorio baten oihartzuna—; edo, al-diz, Posidonioen edo Asklepiadesen *asmazio* ‘helenistiko’ hutsa, aro historikoko *basi-leiaren* jatorria azaltzeko (gogoan izan Argantonio, eta beronek K.a. 600. urteaz geroztik fozearekiko erakutsi bide zuen adiskidetasuna). Ikusten denez, gai honi dagokionez ere eztabaida plazaratuta dago, Iberiar penintsulako antzinateko auzi askotan —eta bereziki Tartessosi buruzkoetan— gertatzen denaren antzera.

Historiografia modernoak, oro har, kontakizunaren historikotasuna onetsi zuen luzaro, eta informazio baliagarritzat jo zuen bertan aditzera ematen dena Tartessosen barne-historia berreraikitze aldera, ontzat emanez antzinateko monarkia baten hastapen mitikoak hizpide zituen bertako legenda bat zela. Gainera, Julio Caro Barojaren iritziz, kultura primitibo batetik —abeltzaintzatik, alegia— garatuago aurkitzen zen beste bate-ranzko —nekazaritaranzko, kasu— igarobidea irudikatzen zuen. Baina, oraintsuago, beste aditu batzuek —García Morenok eta González Wagner-ek— uste dute ezin dela mito bat erabili Tartessosen barne-historia dokumentatzeko. Aro helenistikoko asma-ziotzat dute, gizateriaren eboluzioari buruzko teoria antropologiko helenistikoak —es-toikoen eragina ageri dutenak, alegia— Tartessosen kasuan aplikatu izanaren ondorio dena, hain zuzen. García Morenok (1979) zera uste du, Justinok ez zuela besterik egin nahi izan eskema bat eskaintzea baino Mendebalde urruneko herri zehatz baten ebolu-

zio-bideaz barbareriaren lehen mailatik molde erabat zibilizatueta iritsi arte. Hasieran, tartesotar herriaren baso- eta artzain-aroak, nekazaritza ezagutu artekoak, ematen dira aditzera, erlezaintza asmatu zuen Gargoris *errege* zelarrik; geroago, Habis *monarka* zela, nekazaritza asmatu zen, hiriak sortu, legeak ezarri eta gizartea antolatu, *populi* (jopu-lana debekatua baitzuten) eta *plebs* direlakoan artean bereizturik eta zazpi ziutatetan — *urbes* — banaturik.

Edonola ere, iritzi batekoa zein bestekoa izan —mitoaren izaera erabat tartesotartzat jotzen duenaren aldeko, zein kontaketa etnografo helenistikoek asmatutako interpretazio-eskematzat duenaren aldeko—, biek dirudite muturrekoegiak. Greziar ukitua eta antropologia helenistikoaren isla ukatu gabe ere, pentsa daiteke, zenbait aditurekin batera —De Hoz eta Gascó, kasu—, auzia ez dagoela oraindik erabat argitua, errealitate historikoa konplexuagoa baita; eta oraingoan ere, hainbatetan bezala, erdiko bideak egokiagoa eta malguagoa dirudi, egitatea iturriekin eta pentsamolde helenistikoekin ados jartzeko. Gascó (1987, 191-194) legenda misto batean pentsatzea zuzenagoa izango litzatekeela iradoki zuen —Gadiraren fundazioaren kasuan gertatzen zen bezala—; hots, autore honen arabera, bertako kontakizun bat zegokeen abiapuntuan (honen harira, badu interesik seinatutako Gargoris eta Habis, istorioko protagonistak, ez direla ezertarako azaltzen greziar mitoen artean), eta, ondoren, kontaketa-gune jatorrizko horrek helenizazio-prozesu bat nozituko zuen, transmititua izatean. Horrela, greziar *kutsadura* eta inspirazioa pairatu bide zituen, Asklepiadesen beraren eskua antzeman litekeelarik prozesu horretan.

Bestalde, Justinoren obraren balorazio zabalagoa egiten badugu, antzinako erregeen beste aipuak ere kontuan hartuz, esan behar da autorea «beti saiutzen dela herrien benetako historia biltzen» eta haren obran «ez dela behin ere sumatu literatura utopikoaren garapenak garai hartan sorrarazi zuen moduko asmazio helenistiko librerik» (De Hoz, 1989, 40). Gainera, Justinoren iturrien auzira berriro itzuliz, ezin ahantz daiteke Posidonio eta Myrleako Asklepiades Iberiar penintsulako hegoaldean egonak zirela eta informazio zabala jaso zutela bertan. Bigarrenak, hain zuzen, turdetaniar herrietako ibilbide bat idatzi zuen, gustu eta irizpide helenistikoetan hezitako balizko bisitari baten zat, eta bertan, irakurlearen jakin-mina asetze aldera, baliagarri zitezkeen hainbat gauzaren berri eman zuen, baloragaitza den askotariko informazioa bilduz geografiari, historiari, etnografiari eta mitologiari buruz. Era berean, kontuan hartuta Estrabonek, Iberiar penintsulako hegoaldean, 6000 urte baino gehiago zituzten tradizio, lege eta kronika historikoen existentzia onesten zuela, ez da zentzugabekeria pentsatzea tradizio horietako bat —agian Cádizko santutegian idatzirik eta gorderik mantentzen zena, Marín Ceballosek eta Jiménez Floresek iradoki bezala (2004, 234)— turdetaniarrek ezagutu, gogorarazi eta beren jatorriaren kontakizun gisa birsortzen zuten bertako bi pertsonaien legenda zela, Gargoris eta Habis-ena, alegia, erromatarrek eta antzinateko beste herri askok egiten zuten moduan. Eta legenda gisa jaso eta idatzi zuen Asklepiadesek bere *Periégesis*-ean, greziar osagai batzuk erantsiz, noski, kureteen aipamena egin zuenean, adibidez (Gascó, 1987), baina *tartesotar* legendaren traza desitxuratu gabe. De Hoz-ek hurrengo adierazi du (1989, 40): «[...] detalles muy concretos, como la crianza de Habis entre los animales silvestres, que cuenta con numerosos paralelos en diversas culturas, no han podido ser deliberadamente inventados por un autor helenístico». Greziar ukitua, beraz, funts indigenari erantsirik osagaia baino ez zatekeen, erraz ulertzen dena, garai hartako testuingurua eta kontakizuna transmititu zen modua ezagutuz gero.

Gauzak horrela, mito edo legenda nahasi gisa hartzea zuzenagoa izan liteke: jatorriz fundazio-kontakizun indigena bat —ez, ordea, historikoa— izandakoa, alegia, zeinak transmisio-prozesuan nolabaiteko greziar-kutsadura jasan baitzuen. Nolanahi ere, ezin da ahaztu Habis-i legendak egotziriko antolamendu-neurriek —mendeetako bila-kaera historiko baten ondorioztat ulertu behar direnak, ezen ez pertsonaia bakar baten ekinbide gisa— antzekotasun nabariak dituztela beste zenbait erkidegotan legegile gutxi gorabehera alegiazkoei —baina historikotzat frogatu ahal izan direnei— leporatu izan zaizkienekin. Aipa daiteke, besteak beste, Greziako kasua, Espartakoa zehatzago, non Likurgo alegiazkoari egozten baitzaio bertako konstituzioa. Azalpen bertsua izan lezaketere arestian, Habis-i buruz hitz eginez, antolamendu-neurriez ziharduten kontakizunek: hala nola, erkidegoa bi taldetan —*populus* eta *plebsen* artean— banaturik ikusten zutenak, edo lehen taldekoei jopu-lanak egitea debekatzen zienak; baina, tamalez, ez da horren frogarik aurkitu, eta, gainera, hirien —*urbes* deiturikoen— existentziaz ere ez da aztarna arkeologikorik argitara ekarri tartesotar aroan, eta ezin da hirigintzaren hastape-nez baino hitz egin. Ondorioz, bi gizatalde horiei buruz eta Justinok *urbes* gisa aipatu etxe-aglomerazio horien izaerari buruz zerbait gehiago jakin ahal izateko, xeheki aztertu beharko litzateke latindar hitz horien adiera epitomatzailearengan, baina, ahaztu gabe, hala ere, hirigintzaren garapena ez zela gauzatu tartesotarren ondoren etorri bide zen turdetaniar arora arte.

Honenbestez, Habis-i egotziriko ekinbideei buruzko kontakizunetik bi ondorio baino ezin dira atera, historiari dagokionez: bata, bi gizatalderen existentzia, beraietako batek jopu-lanak egiten zituela; eta, bestea, jendea printzipatuko autoreak hiritzat hartu ahal izateko zenbait ezaugarri zituzten erkidegoetan banatzen zela, eta hortik *urbes* deitu izana. Azken finean, baieztatu daitekeen gauza bakarra zera da, egituratze eta hierarkizatze bidean aurkitzen zen gizarte bat ematen zela bertan, eta populazio-eredu bat (eta hori bat dator andaluziar mendebaldeko K.a. IX. mendeko populazio-guneetan egindako ikerlan arkeologikoen argitara ekarritakoarekin).

Laburbilduz, Asklepiades Turdetanian *letretako maisu* gisa aritutako urteen bueltan, bazen, bertakoek kontaktatzen zituzten hainbat istorioren artean —Estrabonek zioenenez—, Gargaris eta Habis errege fundatzaile eta mitikoak hizpide zituen legenda bat, antzinatasuna zehatzezina den arren. Aro helenistikoko autoreei zor zaie gaurdaino iritsi izana, helenizatze-prozesu bat jasan izanaren truke, noski (Gascó, 1987, 194). Historiaren ikuspegitik begiraturik, eta greziar *kutsaduraren* gaia alde batera utzita, zera da esanguratsuen, legenda hori une zehatz batean sortu behar izan zela, alegia, gaur egun berreraiki ezineto gertatzen zaigun errealitate historiko jakin bat *zuritzeko*. Gargaris eta Habis-en mitoa antzeko beste batzuei lot dakieke, berauetako protagonistak batzuetan pertsonaia historikoak izanik —Ziro, pertsiarren artean, adibidez— eta, beste batzuetan, figura mitikoak —Pertseo, kasu, eta Erroman, Romulo bera—. Gargaris eta Habis-en istorioak zenbait gobernu-ekintza egozten zaien alegiazko pertsonaien edo heroi zibilizatzaileen existentzia ilustratzen du. Alabaina, Tartessos historia berreraiki eta beronen antolamendu politikoa antzeman ahal izateko, istorio horrek duen garrantzia hutsaren hurrengo da; izan ere, adieraz dezakeen gauza bakarra da tartesotar gizartearen bere historiako une batean eta antzinateko beste zenbait mediterranear gizarteren antzera, gauzen egoera azaldu beharrean aurkitu zela, eta, horren kariatara, figura mitiko eta jainkotiar hauetaz baliatu zela. Une historiko hori harremanetan jarri behar da fozearren

adiskide izandako Argantonioren erregetzarekin, pertsonaia historikoa berau, inondik ere. Horren gobernu erak justifikazio bat aurkitu ahal izan zuen tartesotar mitoaren jatorrizko erregetza zibilizatzaile bati buruzko kontakizuna baliaturik.

Bukatzeko, onartu behar da, aro helenistikoko eta erromatarreko iturri literarioak sakon aztertu ondoren, ez dagoela esaterik tartesotar monarkia zentralizatzaile eta hiriertatu bat egon zenik Argantonioren garaian, are gutxiago lehenago. Dena den, halako botere motarik ez zela egon aitortzeak ez du esan nahi gizarte-hierarkizazioaren edo antolamendu politikoaren forma guztiak ukatu behar direnik greziarrek K.a. VII. mendean Tartessosekin identifikatu zuten zonalde geografikoan. Puzzlearen zati batzuk baino ez ditugu oraindik eskura; eta susma dezakegun arren, iturri literarioei eta arkeologikoei esker, zein izan zitekeen *ekialde-joera* gisa ezaguturiko aroko *basileia* tartesotar horren irudia, ezin dugu inolaz ere koadro osoa marraztu.

2.5. Jarduera ekonomikoak eta teknologia-aurrerapenak: gizarte indigenaren eraldakuntza

Tartessosko ekonomiaz, berriz, irudi argiagoa lor daiteke, izan ere, arkeologiak interes handiko datu berri ugari ekarri baititu argitara. Horri esker, tamaina har dakieke feniziar kolonizazioaren ondorioz gizarte indigenaren baitan gertaturiko aldaketei. Ikusi dugunez, *Gadira* Gibraltarreko itsasartearen beste aldean fundatu zen K.a. VIII. mendearen hasieran, estrategia-balio aparteko inguru batean hain zuzen ere, komunitate indigenetatik hurbil. Feniziarrek, erkidego horiekin harremanetan jarri zirenean, elkarre-ragin kultureko prozesu bat jarri zuten abian eta erkidego horiek bizimodua aldatua ikusi zuten neurri batean edo bestean.

Bertakoen kultura-ereduetan feniziarrek eraginiko aldaketak balioesteko, ezinbesteko da alde zuzenetik jakitea zer egoeratan aurkitzen ziren erkidegoak *Gadira* fundatu bezperan (IX. mendea). Abiapuntua ezagutu ondoren, tartesotar edo ekialde-joerako aroan (hots, K.a. VIII-VI. mende bitartean) arkeologian izandako berritasunei erreparatu behar zaie. Aro hartako eraginak mendebaldeko Andaluziatik haratago doaz, eta periferiaraino, hots, Tajo eta goi Guadalquivirreraino, hedatzen dira (ik. 7. mapa), Alisedako (Cáceres) urre-altxorrak frogatzen duenez.

Datu fidagarrietan oinarrituz, Brontze Aro bukaerako zenbait alderdi ezagutu ahal dira populamendu eta ekonomia moduei dagokienez. Herrixkak, lehen ere adierazirik dugunez, zona estrategikoetan kokatzen ziren, garraiobideak eta abelbideak kontrolatu eta meategietara irispide errazago izateko. Tinto eta Odiel ibaien bokaleak menderatu zituzten, Huelvako kostako herrixketan froga daitekeenez, edo Carmonan eta Carambolon, Guadalquivirreko ibaiertzean. Herrixka horien artean nolabaiteko hierarkizazioa eta espezializazioa zegoen, eta, habitat-egiturei dagokienez, planta zirkularreko edo obaleko txabolak ziren nagusi. Ekonomia dibertsifikatua (abeltzaintza, nekazaritza, meatzaritza zenbait tokitan) garatu zuten, eta erkidegoek, euren baitan, nolabaiteko konplexutasun soziala erakusten zuten.

Erkidego horiek izan ziren, K.a. VIII. mendeaz geroztik, mea eta bereziki zilarren bila zetozen feniziarren etorrerak eta ezarmenduak eraginiko aldaketak nozitu zituz-

tenak, beste kapitulu batean jada ikusi dugunez. Gertakizun horiek populazio-aldakuntzak ekarri zituzten eta, batez ere, norabide berri bat ekonomian, meatzaritza eta metalurgia arloetako aurrerakuntza tekniko garrantzitsuak bitarteko.

Aro ekialdezaleko populamenduaz ezin daiteke gauza askorik gaineratu, funts handiko indusketa-lanik egin ez izanak ondorio esanguratsuetara iristea galarazten baitu. Arkeologiak, edonola ere, baieztatu dezake, herrixken ezarmendu-ereduak lehengo hartan jarraitzen bazuen ere, zenbait aldaketa sumatzen zirela banaketa espazialean. Zentro nagusien inguruan antolatu eta hierarkizatu ziren, Setefilla eta Carmonaren kasuan ikus daitekeenez (González Wagner, 1993, 109). Habitat moduei dagokienez, planta karratuko edo angeluzuzeneko etxeak eraiki ziren, eta eraikuntza-tekniketan ere aldaketak egon ziren. Aldakuntza horiek direla eta, esan daiteke K.a. 600. urte inguruan geroago hirigintza-prozesua ekarriko zuen protohirigintzaren garapena gertatu zela (*Ibidem*, 108).

Jarduera ekonomikoei dagokienez, Fernández Juradoren arabera (1995, 411), K.a. VII. mendeko bigarren erdiaz geroztik eta, batez ere, K.a. VI. mendearen hasieratik meatzaritzaren jarduera azpimarratu behar da (ezin da puntu honetan ahaztu antzinateko autoreek, aurreko kapituluan ikusi eta hurrengoan ere ikusiko dugunez, zonalde honetako meatze-aberastasuna izan zutela hizpide). Hori baieztatu dezakegu kontuan izanik handitu egin zela meatzearen kopurua eta erauzitako minerala eta, halaber, zenbait tokitan, Huelvako Riotinton esate baterako, teknika berriak erabili zirela lan-prozesuan. Feniziarren zilar-eskariak eragin zituen bertako meatze-jardueran gertaturiko aldaketa horiek guztiak. *Gadira* eta *Onuba*ko portuetara bideraturiko mearen kontrola bertako erkidegoen esku egon zen, eta Aznalcóllar-eko (Sevilla) mea metatu eta banatzen zen Tejada la Vieja bezalako lantokietan koordinatzen ziren ekoizpen fase guztiak (Riotintokoak barne), baita zilarra lortzeko prozesu teknikoa bera ere (Aubert, 1994, 244). Izan ere, prozesu horretan, Fernández Juradok azaldu duen kopelatze teknika berri eta korapilatua sartu zuten feniziarrek (1993, 146):

«Prozesua bikoitza da eta bi urratsetan laburbil daiteke: urtzearena eta kopelatzea bera.

Urtzeko, ehotako mea urtugarriarekin nahasten da eta sutan jartzen. Operaziotik bi produktu ateratzen dira: zepa eta metal zuria. Azken hau berunak, zilarrak, urreak eta beste elementu batzuen hondakinek osatzen dute. Lehen etapa honetan berunak meatze nobleen bereganatzaile gisa jokatu du.

Kopelatzeke, urtze operazioari esker lortutako metal zuria sutan jartzen da, kopela deituriko arrago txiki batean. Kopelatzearen helburua beruna saihestea da eta bigarren metal zuri bat lortzea, urrez eta zilarez osatua; prozesuan zehar berunaren parte bat kopelara doa eta beste bat airera, oxido moduan».

Gelditzen zaiguna da aurrerabide tekniko honek eta beste batzuek halaber —urtze-eta soldadura-prozedurek, kasu— mundu indigenarentzat izan zuten garrantzia baloratzea. Azken ikerketen arabera, berrikuntza horiek ez zuten bertakoen kultura erabat eta sakonki aldarazi; jarduera horiei lotutako sektorea garatzeko balio izan zuten; baina, feniziar eskaria jaitsi zenean, produkzioa gelditu egin zen (González Wagner, 1986, 136). Beraz, zilarraren ekoizpena feniziar eskariaren araberakoa izan zen eta, kanpoko eskaria gutxitu zenean, gizarte indigenak ez zuten izan prozesuarekin jarraitu ahal izateko sektore autonomo garaturik.

Beste horrenbeste esan daiteke zeramikaren inguruko beste berrikuntza bati buruz: tornuaren erabilerari eta zabalkundeari dagokionez, alegia. Berandu hasi zen erabiltzen —ez K.a. VI. mendea baino lehen—, eta eskuz landutako zeramikak nagusi izaten jarraitu zuen (González Wagner, 1986, 136).

Ekonomiaren alorra utzi eta ideien eta erlijiozko sinismenen mundura igaroz gero, egoera antzekoa da. Arlo horretan zalantzak eta arazoak are handiagoak dira, Tartessosko erlijio-sistema ez baita ezaguna, eta soilik antzeman daiteke interpretazio ez-errazeko zenbait kultura-agerpenetan (Alvar, 1991, 351). Arlo honetan eragin koloniala murrizta eta partziala izan zen, eta, hori ulertzeko, lagungarri gerta daiteke kontuan izatea feniziar erlijio-mundua gizarte hiritartu bati zegokiona zela eta tartesotar gizartea ez zela oraindik maila horretara iritsi.

Laburtzeko, esan daiteke osagai kolonialen indigenen aldetiko asimilazio-prozesua konplexua izan zela —berantiarra kasu batzuetan eta ez uniforme—, eta, edozein modutan, zuhurtziaz aztertu behar dena, bertako gizartearen eraldaketan erakutsi izan zuen ahalmena baloratuta. Ez da ahaztu behar ez zela kolono-eredu bakarra egon, eta, feniziar merkatari eta salerosleekin bat, izan zirela, halaber, kolono nekazariak «akulturazio-eragile gisa, bertakoekiko bizikidetzan estuan zenbait kultura-ereduren onarpena erraztu zutenak». (González Wagner, 1986, 149).

Artean ikusitakoarengatik eta oraingoz ditugun lekuko materialen kontu eginik, adieraz daiteke Iberiar penintsulako hegoaldean, K.a. VIII. mendeaz gero feniziar kolonoen eta erkidego indigenen arteko harremanen ondorioz gertatu ziren eraldaketek —iturri literarioek *Tartessos* kontzeptua medio irudikatu zituztenak, alegia— andaluziar mendebaldeko garai hartako komunitateen eboluzioa azkartzeko eta prozesu historiko baterako oinarriak finkatzeko balio izan zutela. Eta prozesu horrek iturri literarioetan Turdetania izenez irudikaturiko gizarte hiritartu baten sorreran aurkitu zuen bere adierazpide gorena.

3. IBERIAR PENINTSULAREN HEGOALDEKO ERROMAURREKO HERRIAK: TURDETANIARRAK

3.1. Atarikoa

Tartessosi buruzko iturriek erakusten dutenez, Iberiar penintsularen hego-mendebaldeak ekialde-joerako aroan izan zuen protagonismoak oraindik jarraitu zuen erromaurreko aroan (are erromatar aroan ere), Betis (Guadalquivir) ibaiaren bailara osora hedaturik. Batez ere K.a. III. mendeaz geroztik, bigarren gerra punikoak izaniko eraginaren kariatz, hain zuzen, hasi zen ematen datu osoago eta interesgarriagorik eskualde honetaz eta bertako biztanleen izenez. Hala ere, *Turdetania* gisa identifikatutako zonari buruzko deskribapen geo-etnografiko osatuena, Tartessosi buruzko atalean ohartarazi genuenez, Estrabonen Geografiari esker iritsi zitzaigun. Erromatar menderaldian Hispaniako hegoaldeak greziarrek beren mitoak kokatu zituzten mundu urruti eta ezezaguna izateari utzi zion, eta bete-betean hasi zen parte hartzen mediterranearen historian; ezin da ahaztu Kartago eta Erromaren arteko gatazka, bigarren gerra punikoa, alegia, Iberiar penintsulan gertatu zela eta lurraldea pixkanaka Erromaren mendean eroriz joan zela. Erromatar menderaldiarekin bat, tartesotar kultura kokaturik egon zen zona berraurkitua izan zen, eta bere iragana ahazturik ez zuen eskualde «berriaren» muga eta ezaugarriak agertuz eta zehaztuz joan ziren. Penintsularen erromatar konkistaz aritu ziren iturrietan Turdetania hitza azaltzeak gogora ekartzen digu, berriro ere, antzinateko Hispaniaren errealitate geo-etnografikoen eraketa-prozesua luze eta konplexua izan zela, erromatarren ekinbideari asko zor izan ziona eta bere osotasunean berreraikitzea oso zaila dena. Jomuga horretara hurbiltzeko, beharrezkoa da hainbat arotako autoreen argibideak aztertzea, horiek Turdetaniarekin identifikatu zuten errealitate indigena argitzea eta, azkenik, bertako biztanleen izaeran sakontzea.

3.2. Turdetania literatura-iturrien argitara

Konkista-ekintzetako gorabeherak narratu zituzten iturrietan aurkitzen dira lehen aipua indigenen eta erromatar armadaren arteko liskarren eszenatoki izan eta Turdetania izenez ezaguturiko penintsula hegoaldeko zonaldeari buruz, zehatzago Liviok K.a. 195. urteko Katonen kanpaina hizpide duen kontakizunean (XXXIV, 17, 1-4; XXXIV, 19, 1-2: ik.aurrerago). Katonek berak bi pasartetan aipatu zuen gertaera hori (*Orationes*, Frag. 40 M eta 41 M). Pasarteotan penintsula hegoaldeko *Turta* izeneko toki batean buruturiko kanpaina kontatu zuen, eta ematen du inguru geografiko bera izan daitekeela (Martínez

Gázquez, 1992, 139; García Moreno, 1989, 290). *Turta* izena eta, Stephanos Bizantziokoak VI. mendean adierazitakoaren arabera, Artemidoro Efesokoak zonalde ustez berberari emandakoa, *Turtitania*, hain zuzen, oso antzekoak dira. Artemidorok, dagoeneko adierazirik dugunez, penintsularen hegoaldea bisitatu zuen K.a. 100. urte inguruan.

Honenbestez, aipamen zaharrenek bi aldaera eman zituzten bertako errealitate bera izendatzeko: *Turta/Turtitania*. Lehenak, Katonenak, hain zuzen, bertakoen ahoskeratik hurbilago dirudi; Liviorenak, berriz, atzizki latindarra agerian du (García Moreno, 1989, 290). Apianok bigarrena jaso zuen, K.a. III. mendeko gertaerak — zehazki, K.a. 211. urtekoak — kontatzerakoan:

«Hil ziren afrikar asko eta elefante ugari eta, azkenean, negua heltzean afrikarrek Turditanian igaro zuten negua [...]» (*Iberia* 16);

eta, berriro, K.a. II. mendearen erdiaren ingurukoak hizpide dituelarik:

«Lukulo, vaccei-en kontra borrokatu zen, senatuaren baimenik gabe, eta Turditanian zegoela negua ematen [...]» (*Iberia* 59).

Arrunt bilakatu zen izena, jakina, latindarra izan zen, Betis hidronimoarekin gertatu zen bezala, izan ere, Artemidororen esanetan, indigenek *Perces* deitzen zioten ibaiari (*THA* II B, 576). Gailentzen eta inposatzen zen izena latinez mintzo zirenen belarrietarako errazen eta egokiena izatea arrunta zen; erromatarren garaian latindar izenak gainjartzen zitzaizkien indigenei, eta hauek ordezkatu ondoren guganaino iritsi direnez izen latindar horiek, errealitate mistoa ezagutzera iritsi gara: erromatar-indigena, alegia, indigena hutsaren ordezkari.

Lehen orduko argibide literario horiek oinarri, arrazoibidezkoa da *Turdetania* izenez ezaguturiko penintsula hegoaldeko zonalde baten existentzia aitortzea; baina, gainerako daturik ezean, ezin gaitezke haratago joan, eskualde horri zegozkion gorabeherak zehazteko orduan. Non kokatzen zen zehatz-mehatz eta zeintzuk ziren haren mugak zehaztu ahal izateko, baita zegokion beste zenbait ezaugarri atzemateko ere, aro-aldaketara arte itxaron behar da, hots, erromatar menderaldiko aro bete-beteko Estrabonen informazioa eskura izan arte:

«Eskualde (*chóra*) hori da, Anas eta Tago-ren ingurune berean sortu ondoren, Baítis ibaiak zeharkatzen duena, eta berau, bere tamaina dela eta, beste bi horien artean aurkitzen da. Anas-en moduan, lehenbizi mendebalderantz isurtzen da, gero hegorantz, eta bata zein bestea kostara berean itsasoratzen dira. Eskualdeak Baitiké du izena ibaiagatik eta Turdetania biztanleengatik, eta bertan bizi direnei turdetani eta turduli esaten diete; batzuen ustez, berberak dira; besteen ustez, aldiz, diferenteak. Polibio azken hauen artean lerratzen da, esaten baitu turduloak turdetaniarren auzokide zirela iparraldetik; «baina gaur egun ez dirudi beraien artean bereizketarik dagoenik»». (III, 1, 6).

Pasarte horretatik ondoriozta dezakegu, milurtekoa aldatzear, Turdetania eskualde (*chóra*) bat zela, osagai geografiko nagusizat ibaiaren zuena, eta izena biztanleei zor zuela, horrela edo antzeko zerbait (Artemidororen arabera) deitzen baitzioten. Beraz, egiaztaturik dago eskualde eta etnonimo baten existentzia. Greziar geografoak beste datu garrantzizko bat ere eman zuen, adieraziz, ibaiaren kariaz, eskualdea *Betika* izenez ere ezagutzen zela. Izen hori — izendapen generikoa, Artemidororen arabera — *erromatar-*

tuago dago ziur aski, ibaiaren izen indigenaz Estrabonek adierazitakoa kontuan hartzen badugu. Beste hitzez esanda, *Turdetania* izena hurbilago zegokeen bertako biztanleek erabiltzen zuten izendapenetik. *Betica*, aldiz, erromatarren errealitate administratiboa izan zitekeen, probintzia bat, alegia, senatu mailakoa, gainera.

Bestalde, printzipatua hasiberritan Estrabonek eman zuen aditzera zeintzuk ziren Turdetaniaren mugak:

«Hortaz, Anas-eko ekialdeko ertzetik barrurantz Turdetania hedatzen da, eta Betis ibaia bertatik iragaten da. Mugakide ditu, mendebal eta iparraldetik, Anas ibaia, ekialdetik karpetanoen eta oretanoen zenbait lurralde, eta hegoaldetik Kalpe eta Gadiraren artean kostalde zati bat okupatzen duten bastetanoen aldea, eta itsasoa Anas-eraino. Turdetanian sartzen dira ere aipatu ditudan bastetanoak, baita Anas-etik haratagoko herriak eta herri mugakide gehienak ere.» (III, 2, 1) .

Bigarren pasarte honen azterketak (baita III, 2, 4.arenak ere) zera dakar ondorioztat, Turdetania (ik. 8. mapa) aurreko paragrafoan ikusi duguna baino errealitate zabala goa zela, alegia; izan ere, eskualdeari izena emateaz gainera, autoreak beste zenbait herri biltzen baitzituen bere baitan. Gaur egungo Andaluziako mendebaldetik hedatzen zen, eta bere mugak honako hauek ziren: ibai bat, *Anas* edo Guadiana, ipar-mendebaldetik, eta muga zehazgaitzeko populazio talde batzuen lurraldea —karpetaniarrak eta oretaniarrak, ekialdetik; eta bastetaniarrak, hegoaldetik—. Hegoaldeko bizikide horiek, bastetaniarrak alegia, nahiz eta turdetaniarregandik eta Turdetaniatik argiro ezberdindurik azaldu, hala ere, integraturik agertzen ziren *chóra* (edo eskualde) berriaren baitan, zeina, horrela, kostaraino zabaltzen baitzen. Era berean bildu zituen eskualde berrian herri mugakide gehienak, baita geografikoki antzinako Turdetaniaren muga zen «Anas ibaitik haratagokoak» ere.

Milurteko berrian *Turdetania* izendaturiko eskualde historiko berri hori —geo-etnikoki murriztagoa zatekeen beste errealitate indigena baten oinordekoa, ezbairik gabe— osagai etniko anitzeko agertzen zen, bere baitan biltzen baitzituen turdetaniarrak, bastetaniarrak eta mugakide ziren beste herri batzuk, greziar geografoen arabera izena eman zioten turdetaniarren mugak gaindituz. Argi dago *chóra* (eskualde) honek zerikusi gehiago zuela erromatar administrazio-ereduekin, Turdetaniako eredu indigenarekin baino.

Iberiar penintsulako beste toki batzuetan gertatu zen legez (hor, besteak beste, *Ca-llaecia* eta *Asturiaren* kasuak), *Turdetania*, guganaino iritsi den moduan, erromatar sorkaria da. Izena Erromak *regio* berri handitu bati eman ziona da, muga geo-etniko zehatzez (*Anas*, karpetanoak, oretanoak, bastetanoak...) hornituriko eskualde bateko biztanleek beren lurraldeari ematen ziotenetik abiatuz, noski. Era-aldaketaren egunetan erabat osatua eta finkatua zegoen eskualde bat zen jada; baina ezin dugu K.a. III-II. mendeetara (are gutxiago haratago) atzeratu sorrera-data; aldi horretako argibiderik ez dugu eta mugak ere ezin dira zehaztu. Kasu honetan, halaber, Erromak funtsezko papera jokatu zuen bertako errealitateen berregituraketan, lehenagoko errealitateak bere eginkizun politiko-administratiboetara egokitze aldera; eta, horrelaxe, hasieran lurralde zehatz bati eta populazio talde jakin bati ematen zitzaion izenaren edukia hedatu egin zen, beste herri eta lurralde batzuk ere bere baitan hartuz.

Hala ere, Turdetaniari dagokionez, ikusi duguna ez da erromatar aroko iturrietan azaltzen den auzi bakarra; bada interes aparteko beste bat ere, ez, ordea, oraingoan eskualde historikoaren izenaren ingurukoa, biztanleen deituraren ingurukoa baizik.

3.3. Etnonimia-arazoak: *Turdetani* - *Turduli*

Ikusi denez, Estrabonen Turdetania *Turdetani* etnonimotik eratorritako izena da, hots, Betis ibaia iragaten zen zonaldeko biztanleei zegokiena. Arazoa sortzen da hemen, ordea; izan ere, Estrabonek adierazi zuen Turdetanian bizi ziren turdetaniarrak eta turduloak berberak zirela batzuen iritziz, baina, desberdinak, beste zenbaiten iduriko. Polibio azken hauen artekoa ei zen, turduliarrak turdetaniarren auzokide zirela iparraldetik esan baitzuen. Edonola ere, Estrabonek idazten zuen garaian ez zegoen haien artean diferentziarik (III, 1, 6). Bestela esanda, arazoak sortzen dira zehaztu nahi denean zer den Estrabonek *Turdetani* gisa identifikatzen zuen errealitate indigena, eta zer esan nahi duen *Turduli* direlakoekin identifikatzeak. Bestalde, Estrabonen baieztapenak erromatar garaira arte ematen diren eraldaketa etnonimikoak iturri klasikoetan arakatzera behartzen gaitu, ikusirik autore guztiak ez zeudela ados turduliarren eta turdetaniarren arteko identifikazioarekin.

Augustoren aldiko autoreari ez bide zitzaizkion axola *ethne* batzuen eta besteen arteko desberdintasunak (Trotta 1999, 90). Horregatik erabili zituen bereizi gabe *Turdetanoi-Tourduloi* etnonimoak. Hori egiazta daiteke, adibidez, III, 2, 12 pasartean dioena irakurriz:

«ibaiaren izen berberaz izendatzen zuten hiria, Tartessos, eta herrialdea Tarteside, turdu-loek orain okupatzen dutena...».

Arazorik gabe, agidanez, idatzi zuen puntu honetan *Tourduloi*, lehentxeago —III, 1, 6 pasartean, alegia— aipatu dituen *Turdetanoi*en ordez. Orobat, III, 2, 15 pasartean, azken hauen zibilizazio-maila goietsiz, *Emerita Augusta* turduliarren hiritzat jo zuen. Argi dago Estrabon ez zela etnonimia-desberdintasunez arduratu, eta, zehatzago, *Geografian* ez duela garrantzirik *Turdetanoi-Tourduloi* diferentziak, bata zein bestea erabili baitzuen bereizkuntzarik gabe. Gauza bera ikusten da Liviorengan; izan ere, K.a. II. mendeko Katonen kanpainaz ari zela, batera erabili zituen, zehaztu gabe, bi etnonimoak (ik. eranskinetako testuak).

Baina bereizkuntza falta hori ez zen orokorra izan antzinateko autoreen artean. Estrabonek berak esana zigun bera baino lehenagoko —eta arazo etnografikoez, antza, gehiago arduratzen— zen Polibiok turdetaniar eta turduliarrak herri desberdintzat jo zituela

(«esaten baitu turduliarrak [*Tourdouloi*] eta turdetaniarrak [*Turdetanoi*] bizikideak direla iparraldetik»);

eta hori bat dator *Emerita Augusta* turduliarren lurraldeko hiritzat jotzen zuen kontaktuzunarekin. Polibiok bezala, K.a. II. mendeko Artemidoro Efesokoak bereizi egin zituen halaber, eta, *Turtitania* hizpide, bertako biztanleak «Turtoak eta Turtitanoak» zirela idatzi zuen (*THA II B*, 1999, 982).

Beraz, informazioa lehenago eta modu zuzenagoan eman zuten autoreek —kontu egin Artemidorok eta Polibiok Iberiar penintsula bisitatu zutela— bi populazio taldeok desberdinu zituzten, nahasi gabe. Bestalde, Polibiok Afrikara, Hispaniara eta Galiara egindako bidaiek helburu bat zuten, hots,

«gai hauei buruz gure aurrekoen ezjakintasunari irtenbide bat aurkitzea eta, era berean, heleniarrei populatu munduko zonalde hauek ezagutaraztea» (III, 59, 7.).

Polibioren datuen garrantzia eta balioa, beraz, argiak dira. Autore honek (Liviok bezala), bestalde, kartagotar jeneralekin jardundako eta hizkuntza punikoa bazekiten Silenos eta Sosylos greziar historialarien argibideak baliatu zituen II. gerra punikoko gertaerak kontatzeko, Anibalen kanpainak kasu. Horri esker gorde ahal izan zituen guretzat, Anibalek, Erromaren kontrako espedizioa egite aldera, tropa-bilketak eginarazi zitueneko herrien izenak. Era horretan jasorik gelditutako etnonimo horiek hurbildu gaitzakete K.a. III. mendeko penintsula hegoaldeko errealitate indigenara: tersitak, mastianoak eta, gainera, Iberiako oreteak eta olkadeak (III, 33, 9). Tersiten izena (*thersitai hapax*) bat da —ezin da baieztatu tartesotarrenaren baliokidea denik— eta esplikatu ahal da, agian, iturriak zeintzuk ziren jakinda, autorea forma puniko baten greziar transkripzioa eskaintzen ari zelako (García Moreno, 1989, 292).

Zuhurtzia handiz erabili beharreko Estrabonen aurreko autoreen idazkietatik izen horiek jasotzen badira ere, geroagoko iturrietan (Mela 3, 1, 3; Plinio: *NH* III, 3, 8 eta 13) turduloak bakarrik aipatu ziren. Pliniok, zehazki, Ozeano Atlantikoko kostan kokatu zituen turduloak, bastuloekin batera, eta berriro Beturiako erregioko lurraldean:

«Aipaturiko herrialdeetatik harat, Guadalquiviretik Guadiana ibairaino zabaltzen den eskualdeak (*regio*) Baeturia du izena, eta bi zati eta beste horrenbeste herritan (*gentes*) banatzen da: *Celtici* direlakoak, [batetik,] Lusitaniarekin mugakide eta *conuentus Hispalensis*-ekoak direnak, eta turduloak, [bestetik,] Lusitaniako eta Tarracosensis-eko mugatik gertu bizi eta lege-kontuetarako Kordobara joaten direnak».

Pasarte horrek deskribaturiko egoeran bete-betean islatzen zen erromatar antolakunde-errealitatea, eta bertan turduliarrak ondo bereizirik azaltzen dira entitate etniko (*gens*) gisa. Bestalde, K.o. I. mendean aintzat hartzen ari zena ez zen jada errealitate indigena, erromatar egitura geografiko eta administratibo berria baizik, hots, *regio* delakoa (*Baeturia*, zeltikoak eta turduliarrak hartzen zituena) eta *conuentusa* (*Hispalensis* deiturikoa turduliarrentzat, eta *Cordubensis* izenekoak zeltikoentzat).

Baina, erromatar egitura peto-peto horiek alde batera utzita, antzinateko Hispaniako etnonimiak planteatzen duen auzia beste hau da, hots, ea *regio* berrian sartzen ziren *turduli* horiek eta Polibiok, turdetaniarrendik bereiziz, turduliartzat jo zituenak berberak ziren.

Lehen mendeko turduliarren kokapena dela-eta, baietz erantzun liteke, K.a. II. mendean Polibiok, *bere* turduliarrak, Betis iragaten zen lurraldean kokaturiko turdetaniarren iparrerantz kokatzen baitzituen. Hala ere, zuhurra izatea komeni da denboren joan-etorrian balizko identifikazioak egiten hasi aurretik. Izan ere, K.a. II. mendeko turduliarren kokapena zehazki mugatu ezinak hiru mende inguruko jauzia (K.a. II. mendetik K.o. I. mendera artekoa) egin ahal izatea eragotziko luke. Kontuan izan behar da

hobeto ezagutzen den fasea azkena dela, Erromak hispaniar lurraldea administratiboki erabat antolatu zuenez geroztikoa, hain zuzen; ez, ordea, lehenagokoa.

Bestalde, nahiz eta Estrabonek zioen ez zela bere garaian diferentziarik turdularren eta turdetaniarren artean, *Geografian* bertan pasarte interesgarria dakar (penintsulako zeltei buruzko atalean aipatua izan dena jada), non turduliarrak bereizi egin baitziztuen, esanez, zeltikoek lagundurik, irtenaldi militarra egin zutela ipar-mendebalderantz eta Dueroren ezkeraldean kokatu zirela:

«[...] Urrutien artabroak bizi dira, Iberiako iparra eta mendebaldea bereizten dituen Nerium izeneko lurmuturretik gertu. Baina inguruan Anaseko ertzekeekin ahaideturiko zeltikoak [*keltikoī*] bizi dira. Diotenez, hauek, inguru hauetara turdularrek lagundurik egindako irtenaldi armatu batean, matxinatu egin ziren Limaea ibaia zeharkatu ostean eta, altxamendu horren karietara, euren buruzagia ere galdu zutelarik, bertan gelditu omen ziren eta barreiatu, eta hori dela kausa eman omen zitzaion ibaiari Lethe [Ahaztura] izena». (III, 3. 5).

Estrabonek aipatutako aro berantiar samarreko populazioaren joan-etorri hau Melak ere gogora ekarri zuen: «Lurmutur hauetatik bazterturik dagoen zonalde hartaraino kurbadura handia zabaltzen da, eta han daude antzinako turduliarrak *Turduli veteres*- eta turdularren hiriak, eta bi ibai: Munda, azken lurmuturraren alboko erdian itsasoratzen dena, eta Durius...» (III, 1).

Epigrafiak Estraboni eta Melari esker iritsi zaigun informazioa (ik. eranskinetako testuak) egiaztatu du. Aro Komuneko 7. eta 8. urteetan dataturiko Monte Murado-ko (Portugal) bi latindar inskripzioetan, Melak aipaturiko *Turduli veteres* horiekin identifikatzen diren pertsonaia batzuk azaltzen dira. Beraz, oraingoan ere, beste zenbait kasutan bezala, iturri literario eta epigrafikoek bakarka harturik interpretagaitzak lirakeen berriak ematen dizkigute. Batera harturik, ordea, penintsulako etnien konstrukzio-, identifikazio- eta lokalizazio-prozesu luzeak hobeto ulertzen laguntzen digute. Halaber, penintsulako mugimendu demografikoen lekuko gisa balio dute (lehen kapituluan jada azterturiko gaia); izan ere, joan-etorriok, hainbatetan —kasu honetan legez—, zenbait populazio talde euren jaioterritik espazialki eta kulturalki urrun zeuden tokietara aldatzea ekarri zuten (halaxe gertatu zen hegoaldeko turdularrekin, *Lusitania eta Callaeciaren* mugan ezarri zirenean, edota lehen aztertu ditugun *Celtici*-ekin, Zeltiberian baitzuten hauek euren jatorria).

Laburbilduz, berriro ere, beharrezkoa da onartzea ez dela erraza K.a. II. mendeko zenbait autorek dokumentaturiko aro erromaurreko turduliarrak kokatu eta euren mugak zehaztea, zeren eta eskura ditugun notizia gehienak (literario nahiz epigrafikoak) erromatar menderaldi bete-betekoak baitira. Hori dela-eta, kontuan izan behar dira erromatar administrazioak berak bortxaturiko aldakuntzak eta herri-migrazioak.

Artean ikusitako datuetan oinarriturik, K.a. II. mendean bi etnonimo —*Turdetani* eta *Turduli*— ematen zirela adierazi behar da, eta egiaztapen horrek bi populazio talde ezberdinen existentzia ondorioztatzea ahalbidetzen du. Baina izen bakoitzak atxikirik (*-itani*, *-ulo*) daraman atzizkiaren esanahia ezin da zehaztu gaur egun, nahiz eta De Hoz-ek iradokitakoaren ildotik joan litekeen (1995, 595):

«la contraposición de turdetanos frente a túrdulos podría reducirse a la de puros descendientes de los tartesios frente a grupos aculturizados, más o menos mixtos, de la misma forma que los célticos se contraponen a los celtíberos en sentido estricto»....

Horren arabera, turdetaniarrak Tartessosko kultura-tradizioaren jarraitzailetzat jo beharko lirateke. Era horretan azalpen beteagoa izango lukete beraien idazkien antzinate-tasunaz diharduten Estrabonen hitzek; baita ere, erromatar aldiaren Turdetaniarekin identifikaturiko *chóran* edo eskualdean bizi zirela jakiteak, turdularrekin, bastetaniarrekin eta mugakide ziren beste zenbaitekin batera, hain zuzen.

3.3.1. *Tartesotarren eta turdetaniarren arteko harremanaren auzia*

Bada axola zaigun beste gairik Turdetania eta turdetaniarrei dagokienez, lurralde honek eta bertako biztanleek, alegia, iragan historikoarekin —hots, Tartessos edo Tarteside eta tartesotarrekin— ustez zuten erlazioaren auzia. Ez da harritzekoa ondare helenistikoaren barne-muinetik ari ziren autoreak —Estrabon eta bere iturriak— iraganaren eta erromatar errealitatearen artean jarraitutasun baten itxura ematen saiatzea (Cruz, 1995, 59). Ustezko segida horren irudiaren eragina, batez ere, Amasiako geografoak oso aurretikoak ziren iturriak transmititzen dituen ikusten da —dagoeneko aipatu ditugun Anakreonte eta Estesikoro, Tartessosko baldintza geo-ekologikoak, aberastasunak eta biztanleen izaera eta garapen-maila mintzagai zituztelarik—. Osagai horiek guztiak oso ondo elkartzen dira ikusmolde helenistikoarekin; izan ere, horrek harreman zuzenean ikusten zituen herrien eboluzio-maila eta beraien baldintza naturalak —ezin hobek, Turdetaniaren kasuan— eta izaera ere —borondate onekoa eta lanerako prestua—. Beste modu batez esanda, Betis ibaiak zeharkaturiko eta antzinateko Tartessosekin identifikatzen zen Turdetaniak (*Geografía*, III, 2, 11) ezaugarri on guztiak biltzen zituen autore helenistikoaren eta erromatarren obretan garapen historikoaren —eta, azken finean, erromatartzearen— paradigma bilakatzeko, Estrabonen Geografian egiazta daitekeenez.

Etnonimian orobat jarraitutasuna sumatzen da, herrien izenei familia-kutsua baita-rie: tartesiar-turtutaniar-turto-turdetaniar-turduliar. Hori bera gertatzen da lurraldeen izenei dagokienez: Tarteside-Turta-Turtitania-Turdetania. Tartessos izena, oro har, Erroma aurreko penintsulako errealitateaz jardun zuten antzinako autoreengan azaltzen zen; baita erromatarren garaikideengan ere —Estrabon eta Apianorengan kasu—, baina soilik Erroma aurreko garaia hizpide zituztenean. Azken autore honek Herodotori mailegaturiko pasarte batean aipatu zuen Tartessos, *basileus* Argantonio mintzagai zuelarik:

«[...] Carpessos, *hiri* bat itsasertzean, greziarrek antzinatean, nire ustez, Tartessos deitzen zutena [...]» (*Iber.*, II, 63);

baina, gorago ikusi dugunez, K.a. II. eta I. mendeetako konkista-gertaerak narratzean, Turdetania izena baliatu zuen (García Fernández, 2003, 174).

Datu hauen arabera, badirudi erromatarrak, K.a. III. mendea baino lehenagoko iturrietan *Tartessos/Tarteside* izenaz ezaguturiko zonaldeari buruz zuzeneko datu zehatzagoak izaten hasi zirenean, *Turta/Turtitania/Turdetania* koronimoez baliatzeari ekin ziotela eskualde hau bera izendatzeko, eta ez soilik zonalde hori izendatzeko, Estrabonen

kasuan ikus daitekeenez (García Moreno, 1989). Toponimiazko egokitzapen honekin batera, beste izen batzuk azaldu ziren eta erabiltzen jarraitu. Baina, izendapen batzuek egitateari erantzuten zioten; beste batzuk, ordea, berregite literario hutsak ziren. Beraz, kasu honetan ere —*Gadiraren* fundazio mitikoaren kontakizunean edo tartesotar *basi-leia* hura hizpide zuen hartan bezala—, iturriak zehatz-mehatz aztertzea ezinbestekoa da, zer den errealitate historikoa eta zer topiko hutsa bereizte aldera.

Bestalde, lurraldearen izenarekin gertatu zenaz bestela, etnonimoen kasuan *tarteso-tar* izenaren ordezkapen/identifikazioa *turto/turtitaniar/turdetaniar* etnonimoekin ez zen prozesu mekanikoa izan, ezta —Estrabonengan jada gauzatua ikus daitekeen— azken hauen orokortzea ere. Zenbait autorek jatorrizko etnonimoa erabili zuten: adibidez, Livio K.a. III. mendeko gertaerak kontatuz, edota Pseudo-Skymnos-ek, K.a. II. mendean:

«Sardiniako itsasertzean bizi dira lehenengo libifinizeak, kartagotar kolonoak; ondoren tartesotarrak omen daude; horien ondoan, iberiarrak. Lurralde hauetatik gorago, beribrazeak» (*THA II*).

Gauzak horrela, argi dago bertako populazio talde horien izenen bilakaerari eta baliokidetasunari buruzko azalpenak bilatu behar direla ahalbide guztiak baliatuz, eta horrek ere hausnarrerako parada eskaintzen du Erroma aurreko Hispaniaren mapa geo-etnografiko finko bat ezartzeko dauden zailtasunez.

3.4. Antolamendu politiko eta soziala.

Antolamendu politiko eta sozialari dagokionez, berretsi behar da K.a. VI. mendez geroztik gaur egungo andaluziar mendebaldeko hirigintza iturri literarioek nahiz arkeologikoek egiaztaturiko fenomeno delako. Garai horretan, hiria, K.a. 600. urte inguruan une gorena ezagutu zuen bilakaera protourbanoaren oinordekoa, penintsulako zonalde honetako erkidegoen antolamendu-osagai garrantzizko bihurtu zen, autore klasikoek *polis* eta *oppidum* terminoekin identifikatzen zutena. Zentzu horretan, funtsezkoa izateaz gainera, faktore bereizlea ere bada penintsulako beste zenbait zonalde eta populazio talderekiko. Eta hori izan zen preseski Estrabonek aditzera eman nahi izan zuena, turdetaniarren eta hauen auzokide ziren zeltikoen arteko erkaketa egin zuenean, adieraziz, Posidoniok ahaidetzat zituen arren, lehenak hirietan bizi zirela eta bigarrenak, aldiz, «herrixka sistema batean». Horretan oinarrituz, ondorioztatu zuen zeltikoak ez zirela turdetaniarrak bezain zibilizatuak (III, 2, 15). Estrabonek goietsi zuen zibilizazio-maila hori, noski, greziar-erromatar patro bihurturiko *polis* eredu klasikoari lotzen zitzaion zuzenki, eta horixe zen gizarte-antolamendurako erarik zuzenen eta garatuena; hain zuzen ere, hiri-estatu —*polis* edo *ciuitas*— horrekiko hurbiltasun-mailak mugatzen baitzuen gizarte-antolamenduko zeinahi ereduren garapen-maila. Ez da, beraz, garrantzi urrikoa greziar geografoak *polis* terminoarekin erlazonaturiko *politikous* forma erabili izana turdetaniarren zibilizazio-maila aditzera emateko; hauek, antzeko lurralde batean bizi ziren zeltikoak ez bezala, komunitate politiko nagusietan, *póleis* edo hirietan, biltzen ziren, Estrabonek dioenez:

«Oso ugariak dira, berrehunera iristen dira eta. Ibaiertzetan, bokaleetan eta itsas hegian eraikitakoak dira ezagunen, euren kokapenak ematen dien abantailaren kariatz. Bi dira, ordea, ospe eta garrantziari esker gailentzen direnak, *Corduba*, Klaudio Martzeloren

fundazioa, eta cadiztarren hiria. Azken hau, itsas jardunagatik [...]. Ondoren [...], *Hispania* nabarmentzen da, erromatar kolonia halaber [...].» (III, 2, 1).

Póleis deiturikoen kopuru handiaz ohartarazteaz gainera, geografoak turdetaniar hirien kokapenari buruzko argibideak ere bildu zituen, eta horri esker jakin ahal izan da populazioaren banaketan ibaiek, estuarioek eta lur emankorrek izan ohi zuten garrantzia; horren guztiaren harira, *Betis* ibaiaren egiteko egituratzailea errepikatzen da (III, 2, 1). Era berean, populazio-guneak eraikitzeke orduan bertako jendeak baliabide naturalak egoki aprobetxatu izana iradokitzen du, honako hau idatziz:

«Horiek horrela, ikusirik biztanleek tokiaren izaera, eta estuarioak ibaiak bezain aprobetxagarriak zirela, euren ertzetan, ibaienetan bezalaxe, hiri boteretsuak eta bestelako populazio-guneak eraiki zituzten. Horien arteko dira *Asta*, *Nabrisa*, *Onoba*, *Osonoba*, *Menoba* eta beste asko» (III, 2, 5).

Geografiaren datuetatik ondorioztatzen da eredu klasikoari atxikiriko Turdetaniaren garapen urbanoa eta antolaketa politikoa geografia eta klimaren aldetiko baldintza *miresgarri* loturik eman zirela (III, 2, 4) eta, halaber, bertakoek lurrazaleko eta lurpeko ondasunak egoki ustiatzen asmatu izanari ere (ik. ekonomia-jardueri buruzko atala). Hori guztia aipatu herrialdearen trenpu eta izaera onbera eta bakezalearen adierazlea zatekeen, oso urruti zegokeena, edozein modutan, Estrabonek berak penintsula iparraldeko herri menditarren artean ikusten zituen ohitura- eta portaera-ereduetatik.

Arkeologiak berretsi egin du, *grosso modo*, Estrabonek Turdetaniari buruz eskainitako irudia, bertan kokatu baitu penintsulan ezagutzen diren 20 hektareatik gorako habitata-guneen kopuru esanguratsua (Almagro, 1986, 29), eta hori bat dator, azken finean, tradizio protourbanoarekin. Azpimarragarriak dira *Carmo* —*valida urbs*, Liviok zioenez (XXXIII, 21, 6)—, eta 40 hektareatik gorako *Hasta Regia* (ik. aurrerago). Bi etxe-aglomerazio horiek hegoaldeko *oppida* handien adibide argiak dira, zalantzarik gabe, ezin direnak inolaz ere konparatu bizilagun zeltikoen herrixkekin, ez eta bigarren gerra punikoaz edo erromatar konkistaz ziharduten iturri literarioek *turris* edo *castellum* gisa identifikatu zituzten beste etxe-aglomerazioekin ere. Guztiak, *oppida* izendatuak barne, garrantzi eta hedadura ezberdineko herrixka gotortuak ziren; gainera, Guadalquivir arroko arkeologiak zera egiaztatu du, K.a. VI. mendeaz geroztik, alegia, babes-dorreak altxatzen zirela etxe-aglomerazio ia guztien aldamenean (Moret, 1996, 263). Gotorleku horiek neurri handi batean (baina ez bakarrik) erkidegoaren babes zuten helburu, eta greziarren antzeko kontzeptu taktikoari erantzuten zioten. Edozein modutara, hiri elementu horrek ez du azalpen bakarra; izan ere, Rouillard-ek aspaldi samar (1986, 39) ohartarazi eta, duela gutxi, Moret-ek frogatu duenez, gotorleku hauek ez ziren soilik defentsarako sortu, erkidegoaren autoafirmazio-zeinu ere baziren, euren izaera kanpotarren aurrez aurre azaltze aldera, hots, espazioaren dominazio-ikur gisa eta egitismo kolektibo gisa (Moret, 1996, 278). Liviok, K.a. 195. urteko Katonen kanpainaz ari zela, zera adierazi zuen, bere habitat-guneak gotortu zituen turdetaniar populazio taldea ez zela istiluzale edo gerrazale, gaineratuz zeltiberiar mertzenarioak erabiltzen zituztela:

«Hispaniar guztien artean turdetaniarrak [*turdetani*] omen dira gerra-ekintzetara gutxien emanak [*maxime imbelles*], baina, euren kopuru handiak adoreturik, erromatar armadaren aurka irten ziren. Bidera atera zitzaielarik, zalditeriak berehala desegin zituen

haien lerroak; eta oinezkoen borroka ez zuen ia egitekorik izan: soldadu beteranoek, etsai- eta gerra-kontuetan jakitun oso, borrokaldi eroso izan zuten. Baina honekin ere ez zen bukatu gerra: turduliarrek [*turduli*] hamar mila zeltiberiar hartu zituzten soldatapean eta kanpoko tropekin ari ziren prestatzen gerra» (XXXIV, 17, 2).

Turdetaniar-turduliarrek hamar mila zeltiberiar soldatapeko K.a. II. mendean baliatu izanak erakusten du, Moret-en iritziz (1996, 263), bazituztela armadak (oro har, Estrabonek *peltastai* gisa, hau da, arma arinez hornitu eta mugikortasun handiko soldadu gisa, definitzen zituen beste iberiarrak ez bezala); eta, nahiz eta gudaroste iraunkorrak ez izan, antolaturik zeuden, eta pentsa daiteke bazutela gaitasun logistiko eta finantzario nahikorik kanpaina luzeei ekiteko.

Hiri gotortuak eta armada gutxi gorabehera iraunkorrek egotea antolaketa politikoaren testuinguruan aztertu beharrekoa da. Iturri literarioek baliaturiko *rex*, *regulus*, *princeps*, *dux* eta *basileus* terminoak monarkia kontzeptuarekin zerikusia izan dezake, eta monarkia historiko horien ernamuina eta jatorria aurreko kapituluan hizpide izan dugun tartesotar *basileian* legoke.

Botere-maila handiagoa edo txikiagoa zeukaten monarka turdetaniar hauek aglomerazio handietan —*oppida* direlakoetan, alegia— bizi ziren, «erreinu edo printzerri» batzuetako hiriburu politiko eta ekonomikotzat jo daitezkeen *Carmon* eta *Hasta Regian*, besteak beste (Almagro, 1986). Lixinio, K.a. 197. urtean Erromaren kontra agerturiko erregetxo menderakaitza, *Carmon* bizi zen ziur aski, bere boterea *Carmo*, *Bardo*, *Malaca* eta *Sexira* iristen bazen ere (Livio XXXIII, 21, 6-7). Lixinioz aparte, badugu Culcas izeneko beste monarka boteretsu baten berri, K.a. 206. urtean 28 *oppida* haren esanetara izan zituen eta Kartagoren kontra erromatarren aliatua izandakoa; dena den, urte batzuk geroago, zehazki K.a. 197. urtean —eta oraingoan 17 *oppida* zituela bere agintepean —, Erromaren kontra aritu zen (Livio XXVIII, 13, 3 eta 21, 6). Zegozkion *oppida* eta domeinuen kopuru zehatzezineko errege honen boterea, Polibiok zioenez, Erromak berak faboratu zuen, eta, Ilergeten Indibil-i bezala, «erregetxo hutsal» izatetik «bere agintepeko lurra zabalduz» aurreratzen lagundu zion (Polibio XXI, 11,7). Bi horiez gainera, *dux tartessiorum* deituriko *Chalbus* aipatu behar da, K.a. 216. urtean, Liviok zioenez (XXIII, 26), *Ascuako* hiritik gertu Asdrubalen aurka gerra egindakoa. *Dux* hau salbu, ez da besterik ezagutzen; hala ere, uste da K.a. III. mendeko pertsonaia horrek izan zezakeela aurrekaririk lehenago ere, zehazki, K.a. V. mendearen erdi aldera, Cerrillo Blanco-ko (Porcuna, Jaén) eskultura taldean heroi gisa irudikatu gerlariek —*Obulco*koak, antza— horixe ematen dute susmatzera eta. Bertan, berdinen arteko borroka ankerrean, gerlari multzo bat agertzen da (Negueruela, 1998, 170-171), eta talde batek aurkakoa erabat ustekabeen harrapatzen dueneko antzeppen agonistikotzat interpretatua izan da. Kristo aurreko V. mendeko turdetaniar eliteen artean izan zitezkeen balore etikoaren errepresentaziotzat jo daiteke, eta, egia esan, irudikaturiko borroka modu eta taktikak antz handia dute Liviok (XXIII, 26), K.a. 216. urtean, Asdrubalen eta *dux tartessiorum* deituriko *Chalbus*-en arteko borroka hizpide, deskribatu zituenekin: «Eta izuikarak orain bata gero bestea astindurik, norgehiagoka batzuk suertatu ziren, eta hauetan numidiar zalduna ez zen hispaniarraren pare agertu, ez eta tiratzaile mairua *caetraz* armaturako borrokalariaren pare, azken hau haren adinako abiaduran, baina zertxobait gehiago

adoreaz eta indar fisikoaz den bezainbatean» (Gogoratu berriro iberiarrei buruzko Estrabonen hitzak).

Peltastai edo *caetrati* gisa borrokatzeko modu hori egiaztaturik dago K.a. III. mendean kartagotarren aurka aritu ziren indigenen artean. Kristo aurreko II. mendeko turdetaniarrek, aldiz, zeltiberiar mertzenarioak erabiltzen zituzten. Livioaren hitzetatik antze-man daiteke gerra egiteko bi modu horiek bi une historikotako borroka moduen aldaketen ondorio direla, baita tartesotar-turdetaniar *nobiles* horiek gerra bera ulertzeko eran izan zuten eboluzioaren isla ere. Bata zein bestea, edozein modutan, aristokrazia indigenaren boterearen adierazpideak ziren.

Ibolka > *Obulcokoak* ziren *situbolai* eta *urkail*, Erroma aurreko aro berantiarrago-ko *reguli* deituengandik hurbilago leudekeen bi pertsonaia, K.a. 180. urte inguruko txanponetan egiaztatu ahal izan direnak, alegia (kontu egin, turdetanierazko testua idatzita zuten txanponak egiten zirela *Ibolkan* K.a. II. mendearen hasieran). *Reguli* izan zitezkeen, edota gero, latinez, *aediles* gisa dokumentatuko zirenen antzeko beste agintarritza-maila batekoak (García-Bellido, Ripollés, 1998, 284). Botere-forma bata nahiz bestea izanik ere, alderdi historikotik begiraturik, zera da garrantzitsuena, Katonek Turdetanian kanpaina burutu zuen urteen bueltan, hain zuzen, bazirela bertan *póleis* edo komunitate hiritarrak, eta hauek txanponetan baieztatzen zutela euren nortasuna. Numismatikak, beraz, iturri literarioek egiaztatutakoa berretsi du.

Argibide hauek guztiek ondorio batera garamatzate: izan zirela, K.a. III. mendetik II. mendera bitarteko Turdetanian, gobernu era monarkiko eta urbanoak, aurrekariak Tartessosko *basileus* Argantonioaren aroan eta Turdetaniako lehen etapan izan zituztenak, eta euren erresumako edo agintepeko lurra, nolana ere, ezegonkor eta aldakorak ziratekeela. Ezegonkortasun horretan zerikusia handia zukeen penintsularen kontrolaz lehiatzen ziren Kartago eta Erromaren arteko norgehiagokak eta, horren kariaz, Mediterraneoko bi potentzia handi horien eta erregetxo indigenen arteko itunen eta interesen jokoak. Hala ere, monarka horien eskumen-mailaz ezin da askorik zehaztu, eta ez dago esaterik ere euren boterea ondare-bidezkoa zenetz. Bakarrik baieztatu daiteke, García Morenorekin batera (1986, 210), haien jaurgoa oinarritzen zela «zenbait erkidego hiritar *regulus* baten aginte pertsonalaren mendeko bihurtzean; euren artean modu inorganiko batez egituraturik, beste jaurgo bateko kide izatera edo erabateko autonomiara igaro zitezkeen, printzearen edo buruzagi menderatzailearen lotura pertsonala behin desagertuz gero».

3.4.1 *Delako mendekotasun komunitarioaz: arazo eta eztabaidak*

Hiri baten edo batzuen gain boterea izandako *reguli* edo monarkei buruz artean esandakoak balio du, noski, Turdetaniako gizartea hierarkizatu edo konplexutzat sailkatzeko; baina, hortik aurrera, ezer gutxi dago eransterik gainerako gizartearen egiturari buruz, eskura ditugun iturriak ez baitira oso esplizituak. Maiz hitz egin izan da menderaturiko nekazari-populazioaz. Baina, hasieratik bertatik ohartarazi beharra dago horri buruz daukagun iturri bakarra, epigrafikoa, K.a. II. mendeko *Lascutako* brontzea dela, hain zuzen, honako hau idatzirik dakarrena:

L. Aimilius L. f. inpeirator decreiuit / utei quei Hastensium seruei / in turri Lascutana habitarent / leiberei essent; agrum oppidumqu(e) / quod ea tempestate posedisent / item possidere habereque / iousit, dum populus senatusque / Romanus uellet / Act(um) in castris / (CIL II 5041).

«Luzioren seme Luzio Emilio *imperator*-ek ebatzi zuen *turris Lascutanan* bizi ziren *Hastako* jopuak askeak izan zitezela eta ordura arte baliatutako soroen eta *oppidumaren* baliatzaile eta jabe izan zitezela, erromatar herriak eta senatuak hala nahi izan arte. Kanpamentuan emana otsaileko kalendetako 12. eguna baino lehen (K.a. 189. urteko urtarrilaren 19a)».

Iberiar penintsulan aurkitutako latinezko epigrafe zaharrena da, *imperator* L. Emilio Paulo-k *turris Lascutanako* erkidego osoa (pertsonek ez ezik baita lurraldea eta hiria bera ere) *Hastako* hiriaren mendekotasunetik (*Hastensium seruei*) askatu zueneko dekretuaren kopia jasotzen duena.

Hasta edo *Asta Regia* Jerez de la Frontera-ko Mesas de Asta-ko eremuarekin identifikatu da, Cádizko probintzian, eta ondo dokumentaturik dago aro inperialeko iturri literarioetan.

Epigrafea erromatar konkistako une bateko isla da, K.a. II. mendean; baita jeneral baten ekinbidearen deskribapena ere: hots, inskripzioak penintsula hegoaldeko antzinararen historiaren une bati buruzko argibideak ematen dizkigu; zehazkiago, bertako komunitate jakin baten egoera bereziaz eta erromatarrek inperioko zonalde horrekiko erakutsitako portaeraz. Azken finean, beste zenbait kasutan bezala, orain ere iturri epigrafikoen, erromaurreko historiako zenbait alderdi ez ezik, erromatarren politika probintziala bera ere sakonago aztertzen lagundu digute.

Brontzeko testua zenbait azterketa eta interpretazioen hizpide izan da iragan mendez gero. Horien analisi sakonetan sartu gabe ere, agiriari darion informazioa balaratze aldera, interesgarria da azpimarratzea, konkista aurreko historia berreraikitzeo asmoz erromatar aldiko agiri epigrafikoen baliatu direnean, historialariek arazo berari aurre egin behar izan diotela behin eta berriro. Alegia, agiri epigrafiko honetan adierazitako errealitatea K.a. II. mendeko *turris Lascutanako* biztanleei zegokien soil-soilik, ala bidezkoa al da errealitate hori K.a. III. mendera arte edo, areago oraindik, erabat *indigenak* izango ziren lehenagoko garaietara proiektatzea? Kontua da ea metodologikoki onestekoa den K.a. II. mendeko latindar iturriek islatutako errealitatea denboran atzera eramatea eta, ondorioz, ea aztergai dugun agiri honek balio duen penintsula hegoaldeko herri indigenen erromaurreko antolamendu soziala eta ekonomikoa deskribatzeko.

Bi dira funtsean testuak planteatzen dituen arazoak: bata da *turris Lascutanan* bizi ziren eta *oppidum* eta *ager* bateko baliatzaile gisa deskribatzen diren *Hastako serui* horien egoera juridikoa zein zen jakitea; bigarrena, legezko egoera horren nondik norakoak zehaztea, argitzea komeni baita ea egoera horrek sustraiak iragan urrunean zituen, ala herri kolonizatzaile batek bortxaz ezarritako zerbait zen.

Aztertzaile batzuen iduriko, *serui* horien egoera berezi samartzat jo behar da, erromatar esklabotza klasikoarekin konparatuz gero. Moret-ek (1996, 284) ikusi duenez, *serui* horien atzetik egitura propioak zituen erkidego bat zegoen, zaharrek, ospetsuek eta

plebeak osaturiko egitura zuen erkidego bat, hain zuzen; eta erkidego hori, bestalde, lurralde (*ager*) baten eta eraikuntza (*oppidum*) zenbaiten jabe zen. Gainera, erkidego hori, bere osoan, beste baten (*Hastaren*) mendekoa zen. Horrenbestez, morrontza modua ez da klasikoa eta gogora ekartzen dizkigu antzinatean munduaren beste zonalde batzuetan izan ziren mendekotasun-formak. Aitzitik, horrek ez du esan nahi egoera hori eta, adibidez, Tesalian, Espartan edo Kretan izan zena berdinak izan zirenik. García Morenok (1986) argi adierazi du ez dela bidezkoa, historikoki hitz eginez, eremu geografiko eta denbora diferenteetako datuak nahastea.

Hastatarrekiko Lascutakoen mendekotasun-egoera argi egonik, zera gelditzen da soilik argitzeko, alegia, ea morrontza modu hori penintsulan bertan sortua zen —hots, indigena zen—, ala Cádizko badian maiz agerturiko herri kolonizatzaileetako batek kanpotik ekarria zen. Horri dagokionez, testua arakatu duten historiagile gehienek morrontza modua indigena zela onartu dute *a priori*. García Moreno, ordea, iritzi horren kontra agertu da. Berak azpimarratu duenez, Kartagoren eragina handia izan zen Guadalquivir beheko zonalde horretan eta, haren iritzi, *turris Lascutanan* jasaten zen morrontzak mundu punikoan izan zuen jatorria: autore honen arabera, K.a. III. mendearen bukaerako barkatarren menderakuntza-aldiari egotz dakioke, eta kartagotarrak izan zitezkeen morrontza-sistema hori beren eraginpeko itsasartearen bi aldeetako kostetara eramán zutenak.

Badu interesik hipotesi horrek, garrantzia ematen baitio deltako turdetaniar hirien eta Mendebalde urruneko feniziar fundazioen arteko lotura estuari (gogoratu Estrabonek [III, 2, 2] adierazitakoa, alegia, cadiztarrek *Hastan* egiten zituztela maiz euren biltzarrak; eta horri *libiar-feniziar* deitu txanpon-etxeen existentzia erantsi behar zaio —*Lascuta* bera eta *Asido*, *Bailo*, *Oba*, eta abar—). Datu horiek guztiak behe eta goi Guadalquivirren artean zeuden desberdintasunen zantzuak dira. Halere, ez da ahaztu behar beste autore batzuek adierazitakoa (Moret, 1996, 283-284), hots, interpretazio-bide horrek jakintzat ematen duela Kartagoko antolamendu sozial eta ekonomikoa ondo ezagutzen dela; eta hori, oraingoz, ezin da inola ere baieztatu. Izan ere, gaur egun onartu egin behar da ezezagunak direla funtsean kartagotar lurraldeko laborantzako ustiake-ta-sistema eta langileen estatusa; gainera, ezagunagoak izatekotan ere, argi dago hispaniar hegoaldeko lurretan morrontza-sistema Kartagok ezarri izan balu, Kartagoren beraren mendekoak izango ziratekeela, eta ez Hasta bezalako hiri indigena batenak. Laburbilduz, komunitateen arteko mendekotasun modu honen jatorri punikoa ez dago batere argi, ezta bere antzinasuna edo hedapena ere behe Guadalquivir osoan —Guadalquivirreko bailara osoaz ez hitz egitearren—.

Kontu egin aipatutako agiria, eskura ditugun iturrien artean garrantzizkoa izanik ere, K.a. II. mendekoa dela, eta ezin dugula K.a. VI-IV. mendeetako herri indigenen gizar-te-errealitatea estrapolatu, errepublikar aroko epigrafe bat abiapuntutzat hartuz. Azken finean, idazkiak *Lascuta* eta *Hastako* erkidegoak ditu hizpide soil-soilik, eta oraingoz ez da, ikerketen gaur egungo egoeran, datu berririk aditzera eman morrontza mota hori beste erkidego batzuetara hedaturik ikusi ahal izateko.

Morrontza mota honetaz hitz egin ahal izateko lehenagoko aroari dagokionez, Habis-en erreformei buruzko Justinoren pasarte erabili izan da (Mangas, 1979). Baina konparazioa ez da onargarria; izan ere, adierazi dugunez, erreforma horiek ustez gauza-

tu zireneko testuingurua legendario edo alegiazkoa zen erreala bainoago, eta arbasoengandiko *errege* eta garai lanbrotsuetara bideratzen gintuen. Beraz, ez da bidezkoa, K.a. II. mendeko *Lascutaren* egoera erromatar agintaldian argitzeko orduan, Habisen erreformak baliatzea, tartesotar aroan mendeko erkidegoen existentzia baieztatuta beste funtsik gabe. *Cordubako oppidanorum serui* batzuk hizpide ziren *Bellum hispaniense* gisa ezagutua den agiriko pasarte bat ere aipatu izan da inoiz, aldeztatik onartuz *Cordubakoak* ere *Hastako serui* haiek aurkitzen ziren egoera berean egongo zirela. Baina kasu honetan, ordea, denbora-tartea handiegia da, idazki hori K.a. 45. urtekoa baita, konkista baino 150 urte geroagokoa, alegia, eta «esklabo klasikoak edo merkantzia-esklaboak» zituen mintzagai, eta ez mendeko nekazariak gizarte-antolamendu indigena batean. Agiri horiek ez dute egitura sozial beraren berri ematen; izan ere, azkenaren denbora-diferentzia mende bat baino luzeagoa da. Eta ezin da besterik gabe onetsi errealitate indigenak 100 urtetan iraun zuenik aldaketarik gabe, batik bat penintsula hegoaldean Erromaren presentzia asko nabaritzen ari zen unean. Lehenengo testuari dagokionez, gainera, denbora-jauzia are arriskutsuagoa da; izan ere, Habisen garaia mitikoa eta legendarioa zen, eta *Lascutako* brontzearena, aldiz, historikoa.

Morrontza-sistema hau Turdetaniako lurralde osora hedaturik ikusi nahi duen hipotesiaz den bezainbatean, adierazi behar da gaur egun ez dagoela berau inolaz ere frogaturik, kritika testuala eta analisi arkeologikoa batzen dituzten azterketa berrienei bagazozkie, behinik behin (Moret, 1996, 282-285). Gainera, habitat-egituren eta hileta-ostilamenduen azterketak ez du artean mendeko nekazarien kategoria sozial horren aztarrenik atzeman. Horregatik, orain ere Moret-i jarraiki, konklusioa da penintsula hegoaldeko gizarte indigenan, izan, izan zitekeela mendeko nekazaririk, oso litekeena baita hori. Baina, testuek eta eskura ditugun datu arkeologikoen —defentsa-arkitekturetik hasi eta lurralde osoan zehar barreiatutako etxe-aglomerazioak eta dorre isolatuek bereziki— ez dute balio horien existentziaren frogak gisa. Agiri bakarrak, *Lascutako* brontzezko inskripzioak, alegia, errealitate zehatz bat islatu zuen, K.a. II. mendeko bi erkidegorena —*Hasta* eta *turris Lascutanarena*, hain zuzen—; baina, datu bat ez da nahiko, historiaren ikuspuntutik, morrontza-sistema hori Turdetania osoan orokortu ahal izateko. Eskura ditugun iturriekin bat, baieztatu daitekeen gauza bakarra da bazirela kasu eta garai zehatz batean mendeko nekazaritza-komunitateak. Testigantza idatzi bakar bat abiapuntutzat hartuz, ordea, ezin da ezer gehiago atera K.a. VI-III. mendeetako Iberiar penintsula hegoaldeko nekazaritza-komunitateei buruz.

3.5. Jarduera ekonomikoa Turdetanian

Lehenik eta behin esan behar da turdetaniar erkidegoen ekonomia-jardueraz daukagun berria Estrabonek jasotako argibideen zordun dela oraindik ere; izan ere, zailtasunak daude arkeologia-emaitzen analisirako, eta, ondorioz, datuen gabezia da, oraindik ere, azterketaren ezaugarri nagusia.

Amasiako geografoak idatzitakoetatik abiatuz, lehenik ere aipatu dugun zerbait gogorarazi behar da, Tartessosi buruzko atalean ikusitakoaren ildotik doana: turdetaniar lurraldearen klima eta geografia aldetiko baldintza ezin hobeak; hots, klima atsegina, merkataritza-trukeak bultzatuz isolamendua saihestu eta harremanak faboratzen

zituzten ibai nabigarriak, lur emankorrek eta ondo landuak, meatzeen aberastasun handia. Turdetaniarrek ondo baliatu zituzten aldeko baldintza horiek eta, edonola ere, garapen eta zibilizazioaren paradigma gisa azaldu ziren Estrabonen obran (barnealdeko beste herri batzuk edota iparraldeko menditarrak ez bezala). Gauzak horrela, ez da harritzekoa turdetaniar ekonomiaren deskribapenak «Italiakoaren kalkoa» ematea (Cruz, 1995, 69). Meatzeen aberastasunetik hasita (ik. 8. mapa), oso adierazgarriak dira Estrabonen hitzak:

«Baina, hainbeste ondasunez horniturik egonik ere, ez da bat gutxiago lilurutzen, aitzitik, guztiz bestela, lurralde honetako meatzeen emankortasuna ikustean [...]. Turdetaniak eta beronen mugakideek ez diote uzten euren ondasunak goraiatu nahi dituenari beroriek islatzeko hitz egokirik. Izan ere, egiaztatu baita ez urrea, ez zilarra, ez kobrea, ezta burdina ere ez direla beste inon munduan halako kopuru eta kalitatean ekoizten.

Urrea, meategietatik ez ezik, ibaien ibilguetatik ere ateratzen da. Ibaiek eta uharrek ondar urredua eramaten dute, are urik gabeko tokietan ere aurkitu ahal dena; baina hauetan ikusezina da, eta urez betetakoetan distira egiten du urreak. Eta ibilgu lehorrak urez estaliz, hondarrek distira egitea lortzen dute, eta, putzuak irekiz eta asmatu dituzten beste teknika batzuek baliatuz, urrea eta hondarra bereizten dituzte, garbiketa medio, eta gaur egun gehiago dira urre-garbitegiak deiturikoak, meategiak baino [...]. Kontatzen dute, urre-hautsaren artean, batzuetan *litra* erdiko pipitak idoro dituztela, *pala* izenekoak» (III, 2, 8).

Arkeologiak meatzaritza egiaztatu du K.a. V. eta IV. mendeetan —feniziar eska-riak hondoa jo ostean, K.a. VI. mendean meatzaritza krisian suertatuz geroztik, hain justu—, Riotinto, Tharsis eta Aznalcóllar-en ikusi ahal denez. Riotinton zilarraren galdaketak jarraitu zuen.

Nekazaritzari dagokionez, Guadalquivir ibaiak ureztaturiko lur emankorrek azpimarratu behar dira; Estrabonen esanetara, «arretaz landurik daude» (III, 2, 3), eta bertan aurkitzen dira basoak eta Mediterraneoko laborantza tipikoenak: ardo eta olioarena (III, 2, 6), gariarekin batera. Labore horiek argi bereizten zituzten zona horiek *Hispaniako* iparraldekoetatik, non klimak eta baldintza geografikoek galarazi egiten baitzuten produktu horiek lantzea (III, 4, 16). Beste diferentzia bat komunikabideen erraztasuna zen, itsasoz zein ibaiz (III, 2, 5), merkataritza-harreman eta trukeak errazten zituen barneko lurraldeen artean, edota Erroma eta Italiarekin zituztenak, turdetaniarren probetxurako:

«Baina, Turdetaniak berak baldintza miregarriak ditu. Denetarik eta ugari ekoizteaz gainera, etekinak bikoizten ditu esportazioaren bidez, produktuen soberakinak erraz saltzen baitituzte beren tratu-ontzi ugarietarako. Hori posible da ibaiei eta bokaleei esker, bokaleak, esan nuenez, ibaiekin konpara baitaitezke eta, horiek bezala, nabigarriak baitira itsasotik gora, ez itsasontzi txikientzat bakarrik, baita handientzat ere. Izan ere, Lurmutur Sakratuaren eta Zutabeen arteko itsasertz zabalaren baitako lur guztia laua da oso-osorik» (III, 2, 4).

Beraz, merkataritzari eta nekazari-produktuen —bereziki ardo, olio eta gariaren— esportazioari loturiko jarduerak laborantzaren eta ekonomiaren garapena bultzatu zuen, eta horrela ekoitzi ahal izan zen kalitate paregabeko olio, Italiakoaren ondoren Erroma-

tar Inperioko onena zena, Plinioren esanetan. Esportazioen tamainaren berri eman zuen Estrabonek Geografiako zati honetan:

«Turdetaniar esportazioen ugariaz mintzo dira argi bertako itsasontzien tamaina eta kopurua; izan ere, merkataritza-ontzi itzelek nabigatzen dute Diacearquia eta Ostiarantz, Erromako porturantz, eta, kopuru aldetik, lehia egiten diete libiarrei» (III, 2, 6).

Laborantza ez ezik, abeltzaintza ere goietsi zuen Estrabonek (III, 2, 6 eta III, 2, 3an Betis ibaiaren eskuin-ertzeko lautadako larreak famatu zituen), Gerion mitikoaren haizindari lotu ahal zaiona. Gaur egungo arkeologiak egiaztatu egin du jarduera hori ekonomiaren sektore garrantzitsu gisa, batez ere zenbait herritan, hala nola Setefilla-n.

Arrantza-produktuen eraldaketak ere etekina sortzen zuen (feniziar kolonizazio-aldean bezala):

«Ez da ere eskasa zonaldean eta Zutabeetatik haratagoko itsasaldean harrapatutako arraina gazitzeaz arduratzen den jarduera, zeina ez doakion atzetik Pontokoari» (III, 2, 6). Arkeologiak egiaztatu egin ditu jarduera horiek: saltsak eta gazitzeak egiteko, faktoria txikiak eraiki ziren Cádizko badiaren inguruan; horien artean, azpimarragarria Fuentebravía-ko hondartzakoa, Puerto de Santa Marían (Ruiz Mata, 1998).

Bestalde, eltzegintza arrain-kontserbari, merkataritzari eta nekazari-ekoizpenaren esportazioari lotzen zitzaion zuzenki; izan ere, produktuek ontziratuak behar zuten, gordailuetan metatuak edota garraiatuak izateko.

Azken batean, Turdetaniako ekonomia mediterranean merkataritzaren ibilgu-sarean osatua zegoen, eta, garai horretan, Tartessos en ekialde-joerako iraganean ez bezala, meatzaritza baino gehiago —erauzketa-lanak jarraitu izanagatik— nekazaritza izan zen indarra hartu zuen sektorea eta, beronekin batera, abeltzaintza eta arrantza inguruko jarduera. Ekonomiaren ikuspegi konplexu hori, ekonomiari hertsiki dagokionez, hegoaldeko indigenek lortutako garapen-mailaren isla da, arlo politikoan lortutakoarekin bat zihoana; izan ere, ez da ahaztu behar, herrixketan bizi ziren *basatiak* ez bezala, turdetaniarrak hirietan bizi zirela, eta horregatik Estrabonek (III, 2, 15) esan ahal izan zuen aro-aldaketan:

«[...] turdetaniarrak, bereziki Betis-en aldirietan bizi direnak, erromatarren bizimodura egokitu dira erabat, eta beren hizkuntzaz ere ez dira gogoratzen».

Hots, beren bizimodua hurbilago zegoen eredu greko-erromatar klasikotik, iparraldeko biztanleen bizimodutik baino; izan ere, azken hauek garapen hiritarra eta, finean, zibilizazioa latz zailtzen zituen lurralde batean bizi ziren, Estrabonek berak adierazi zuenez:

«[...] Izan ere, herrialdearen [Iberiaren] izaera ez da hiri talde handi bati bizia emateko modukoa, den bezala ezin pobregoa, situazioz exzentrikoa eta primitiboa; eta bertakoen bizimoduak eta ekinbideek ere, Mare Nostrum-eko kostaldekoenak izan ezik, ez dute antzeko ezer iradokitzen. Herrixketan bizi direnak basatiak dira, eta halakoak, halaber, iberiar herri gehienak [...]» (III, 4, 13).

4. ERANSKINAK

4.1. TESTUAK

4.1.1. Zeltak eta feniziarrek Iberiar penintsulan

Iturri literarioak:

1. A.- «Betikako angelutik honaino deskribatu ditugun kostalde hauetan, ospe gutxi eta are izenik gabeko uharte asko daude, baina, ahaztu nahi ez ditudanen artean, *Gades* dago: itsasarte ukitzen du eta kontinentetik gune estu eta ibai moduko batez dago banandua; lurra hurbilago dueneko kostaldea ia zuzena du; Ozeanoari begira dagoen aldean, bi lurmuturren bidez altxatzen da, kosta erditik zatiturik, adarretako batean izen bereko hiri aberats bat du, eta bestean egiptoar Herkules-en tenplua, fundatzaileek, kultuak, antzinatasunak eta aberastasunek ospetsu bihurtu dutena. Tiroarrek eraiki zuten; bertan gordetzen diren bere (Herkules) hezurrek frogatzen dute hori; dituen urteak Troiako gerraz geroztik kontatzen dira; denborak pilatu ditu aberastasunak».

Mela, *Chorografia* III, 46.

Historiografia modernoa:

1. I.- «La interpretación global del fenómeno de Campos de Urnas en el Bronce Final ha sido «invasionista», y los procesos de ocupación de nuevas tierras se han considerado como resultado de movimientos de población, en los que las poblaciones indígenas eran literalmente absorbidas, desplazadas o eliminadas. Los grupos migrantes eran los únicos y auténticos protagonistas, mientras que los substratos autóctonos eran algo meramente pasivo y cuando, al menos, eran tenidos en cuenta su eco ha sido mínimo. Lo curioso del caso es que las «invasiones» a pesar de ser invocadas constantemente por la arqueología tradicional no fueron ni conceptualizadas ni definidas en términos arqueológicos y al ser rechazadas por la «Nueva Arqueología» como excesos del difusionismo cultural ha sido necesario esperar a los años 80 para empezar a contar con un análisis arqueológico serio de los problemas de los movimientos de población».

G. Ruiz Zapatero, 1995, 33.

1. II.- «... las primeras fundaciones fenicias entre las que se halla El Castillo de Doña Blanca/*Gadira*, tuvieron lugar en los comienzos del s. VIII a. C., poco después de las primeras exploraciones y fundaciones en el Mediterráneo oriental y central y tal vez un poco antes, o contemporánea de Cartago. El concepto de precolonización - término impreciso y equívoco- puede suponer incursiones de carácter exploratorio o comercial hacia el Occidente conocido desde las Edades del Cobre y Bronce...»

«...el templo de Melkart, por la misma época, ocupaba el lugar que se le ha asignado en Sancti Pietri y, constituía, al margen de otras funciones, un límite espacial e ideológico, como finis terra y comienzo de la región fenicia occidental, cuyo centro político económico se hallaba en el Castillo de Doña Blanca».

Ruiz Mata, 1999, 308 y 311.

1. III.- «Lo cierto es que todavía no sabemos con certeza cuándo llegaron los primeros fenicios, sólo tenemos la constatación de su estancia posterior y aún así seguimos discutiendo, necesariamente, la cronología de la misma.

Una discusión del máximo interés, sin duda, porque su resolución nos permitirá al mismo tiempo ir calibrando mejor y no aventurando, cuándo se produjo la llegada».

«...En cualquier caso, tenemos la certeza de que los fenicios comerciaron con Tartessos pero desconocemos cuándo se produjo el primer contacto. Y, hoy por hoy, no parece que estemos en condiciones de proporcionar una fecha, aunque sí parece aceptable que ésta debió ser anterior a las que en este momento venimos aceptando la mayoría de los investigadores».

Fernández Jurado, 2000, 93 y 96.

1.IV.- « Pero es también muy probable que el santuario (de Melqart) acogiera tradiciones locales, tanto del ámbito fenicio peninsular del que Gadir debió ser siempre guía y cabeza, como de las culturas indígenas, y muy especialmente la tartésica. Mitos como el de Gárgoris y Habis (Just. 44.4) podrían haber pasado por el cálamo de los escribas del santuario, y por tanto del filtro de la cultura semita, antes de llegar a las manos de Pompeyo Trogo o de sus fuentes....»

Marín Ceballos y Jiménez Flores, 2004, 234

«El templo debió ser igualmente depositario de registros de carácter histórico. No olvidemos que Posidonio recoge aquí la leyenda de la fundación de la ciudad, como Heródoto había hecho en Tiro. En el mundo oriental, la estrecha relación de los santuarios nacionales con el palacio o el gobierno estatal determinó que los archivos del templo se convirtieran también en depositarios de la memoria histórica. El registro de los acontecimientos anuales, sujeto al calendario de efemérides religiosas, permitía a los sacerdotes y eruditos recopilar todos aquellos hechos dignos de mención, siguiendo una tradición muy arraigada. Hemos de presuponer que en el santuario de Cádiz debió realizarse una labor similar, toda vez que el santuario más notable de Occidente, testigo excepcional de los acontecimientos vinculados al fenómeno colonizador en estos lejanos territorios.

Quizás uno de los aspectos desde nuestro punto de vista más interesante entre los que pudo ofrecer el Heracleion, es el que nos lo muestra como archivo de informaciones en forma de relatos, de carácter oral o escrito —alguno de los cuales quizá incluso expuestos al público- de viajes realizados por personajes diversos, especialmente hacia o desde el Atlántico.»

Ibidem, 234-235

4.1.2. *Tartessos: Ekialde-joerako aroa*

Iturri literarioak:

2. A.- «Herodorok Herkulesen historien X. liburuan ondorengoa zioen: «Iberiar herri [génos] horrek, itsasarteko kostan bizi zenak, izen batzuk hartzen ditu, herri [génos] bat bakarra izanik, tribu [phyla] desberdinekin. Lehenik, sartaldekoenak [eschatíai] kunètes dute izena; (hauen ondoren, iparrerantz, gleteak daude); ondoren, tartesotarrak [tartèsioi]; ondoren, elbisinioak [elbusinoi]; ondoren, mastiniarrak [mastinoi]; ondoren, zelzianoak [kelkianoi], eta ondoren, itsasartea dago».

Herodoro de Heraclea, Jacoby, F., FGH I, 215; 502. (Gaztelaniazko itzulpena: *Fontes Hispaniae Antiquae* II, Bartzelona, 1925)

2. B.- «Ferezides-ek Gadirari Geryon-en mitoa kokatzen den Erytheia izena ematen diola dirudi. Beste batzuek, aldiz, uste dute Erytheia, hiri horren parean, estadio baten itsasarte baten bidez bereizirik, aurkitzen den irla dela; bazkaleku bikainak izaki [...], uste da horretan oinarriturik sortu dela Geryonen idi taldeen mitoa [...].»

Estrabon, *Geografía* III, 5, 4

2.C.- «Irlez osaturik dagoen *Hispaniako* beste zonalde batean, Geryon-en esku egon zen erregetza. Bertan erruz aurkitzen da bazka, eta berau aziendari neurritz eman izan ez balitzaio, lehertuko zatekeen. Azkenik, Geryon-en behi saldoa, garai haietan aberastasun mota bakarra zena, hain egin zen ospetsua, ezen Asiatik etorri baitzen Herakles, harrapakinaren tamainak erakarrita. Azkenik, Geryon-ek berak ez omen zituen hiru izaera, fabulek diotenez, ez bada hiru anaia sortu zirela elkarrekin hain ondo konpontzen zirenak, non ematen baitzuen hirurak arima bakarraz moldatzen zirela. Eta ez zuten hasi Heraklesen kontrako gerra beren borondatez, baizik eta,azienda ebasten zitzaiela ikusiz, galdutakoak erreklamatu zituzten borroka bidez.»

Justino, *Epit. Pompei Trogi* 44, 4, 15.

3. Erromaurreko herriak Iberiar penintsularen hegoaldean: turdetaniarrak

Iturri literarioak :

3. A.- «Betis, indigenek Perces deitzen duten Iberiako ibaia. Eskualdeak Betika du izena, Betis izenetik abiatutako deitura generiko batez horrela izendatua».

Efesoko Artemidoro (gaztelaniazko itzulpena: *Testimonia Hispaniae Antiqua II B. La Península Ibérica prerromana de Éforo a Eustacio*, (= *THA II*) J. Mangas, D. Plácido (edit.), Madril 1999, 576).

3.B.- «Zeltiberiarrek, soldatapeko gisa, lehen esan dugunez, etsaiek etorrarazita, zailago egiten zioten gerra Turdetanian P. Manlius pretoreari; orduan, kontsulak, preto-rearen mezu batek ohartarazirik, bertara eraman zituen legioak. Hara iritsi zenean, zeltiberiarrek eta turdetaniarrek aparte zituzten kanpalekuak. Turdetaniarrekin erromatarrek borroka arinak izan zituzten haien zentinelak erasoz, eta beti garaitu zituzten, are ausartegi hasitako borroketan ere».

Livio XXXIV, 19, 1-2. (gaztelaniazko itzulpena: J. Martínez Gázquez, *La campaña de Catón en Hispania*, Bartzelona 1992 (2. arg.), 133.

3. C.- «Hauek [turdetaniarrak] jotzen dituzte jantzienak iberiarren artean: idazkera erabiltzeaz gainera, beren antzinako gogorapenez kronika historikoa, poemak eta duela sei mila urteko legeak omen dituzte bertsoan jarriak [...]

Estrabon, *Geografía* III, 1, 6

3. D.- «...eta Betikako itsas hegia; berau, behin edo berriz zertxobait atzera egiten duen arren, ia zuzena da Anas ibairaino. Turduliarrak eta bastuliarrak bizi dira bertan».

Mela, *Chorografía* III, 4

3. E.- «Betis ibaiak erruz jendeztaturik ditu bere ur-bazterrak, eta, itsasoz gora, nabigagarria da ia mila berrehun estadiotan *Cordubaraino* eta pixka bat barrurago dauden lekuetaraino. Eta, egia esan, arreta handiz daude landuta ibaiertzeko zein uhartetxoetako lurak. Bista ederra eskaintzen dute, gainera, lurak zuhaitziz eta bestelako landarez baitaude ederturik [...]

Iparraldetik ibaiaren paraleloan meatzez betetako mendikate batzuk hurbiltzen dira gehiago ala gutxiago. Zilarra ugarien dagoen tokia Ilipa-ren eta Sisapon-en ingurukoa da, antzinakoa azken hau nahiz modernoa, eta *Cotinai* deituriko zonaldean kobrea urrearekin batera ekoizten da. Beraz, ibaian gora zoazela, ezkerraldera mendi hauek altxatzen dira, eta eskuinaldera lautada handi bat zabaltzen da, oso emankorra, zuhaitz handiduna, eta abereen bazkaleku bikainak dituen [...]

Estrabon, *Geografía* III, 2, 3

.- «Gainera, kanalak ireki dituzte zenbait tokitan, ikusirik leku askoren artekoa dela salerosketa, bai kanpokoa ala barrukoa. Nabigagarritasunerako lagungarriak dira mareagorarekin gertatzen diren barruko elkarguneak; izan ere, ubideak banatzen dituzten istmoei gaina hartzen dietelarik, ibaietatik estuarioetara eta hauetatik ibaietara igarotzea ahalbidetzen dute. Itsas merkataritza Italiarekin eta Erromarekin egiten da osorik [...]

Ibidem III, 2, 5.

.- «Turdetaniatik erruz esportatzen da garia eta ardoa, eta olioia, halaber, erruz eta kalitate onenekoa. Orobat, esportatzen da argizaria, ezta eta bika, kotxinila asko eta bermiloia, Sinopekoari atzetik ez doakiona. Itsasontziak bertako zurez egiten dituzte,

gatzobiak daude lurraldean eta ez dira gutxi ur gazitako errekek [...]. Lehen ehuna esportatzen zen erruz, baina orain artilea, zuzenean, *Coraxikoa* baino kopuru handiagoan ekoizten dena, eta ederra baino ederragoa dena. Hazitarako ahariak gutxienez talentu batean erosten dira. Ehun arinak ere gaindiezinak dira, salaziarrek egiten dituztenak, kasu.

Bukaezina da, halaber, ganadu mota guztien eta ehizaren aberastasuna [...]».

Ibidem III, 2, 6.

.- «Baina halakoa izanik ere barrualdeko Turdetaniaren oparotasuna, esan behar da pareko lehiakidea duela kostaldean, bertan pilatzen diren itsas ondasunen kariaz; izan ere, ostra eta txirla mota guztiak beren tamaina eta kopuruarengatik nabarmentzen dira kanpoaldeko itsasoan oro har, baina bereziki hemen, itsasgorak eta itsasbeherak indar handiagoa dutelako bertan, eta hauek dira, ziur aski, horien tamaina eta kopuruaren arrazoi, ariketa asko eginarazten dietelako [...] Atunak ere erruz biltzen dira zonalde honetan, kanpoko kostaldeko beste lekuetatik datozenak, mardul eta lodiak [...]».

Ibidem III, 2, 7.

.- «[...]Turdetaniarrentzat], lana [galeria sakon eta bihurgunetsuak zulatzen dituztenean] sobera da probetxugarria, zeren eta kobre-meatzeetan kobrea baita ateratzen duten luraren laurdena, eta zilarrezko meatzeak esplotatzen dituzten partikular batzuek hiru egunetan talentu euboiko bat lortzen dute. Eztainuari dagokionez [...], lurpetik ateratzen da, eta lusitaniarrez haraindiko barbaroen artean eta *Casiterides* uharteetan ematen [...]»

Ibidem III, 2, 13

4.2. BIBLIOGRAFIA

SARRERA:

CRAWFORD, M. (ed.), 1986, *Fuentes para el estudio de la Historia Antigua*, Taurus, Madril (1. argitalpena: Cambridge, 1983).

ESCACENA, J. L., 2000, *La arqueología protohistórica del Sur de la Península Ibérica. Historia de un río revuelto*, Síntesis (bilduma: *Arqueología Prehistórica* 4), Madril.

GÓMEZ ESPELOSÍN, F. J., PÉREZ LARGACHA, A. ETA VALLEJO GIRVÉS, M., 1995, *La imagen de España en la antigüedad clásica*, Gredos, Madril.

PÉREZ JIMÉNEZ, A. ETA CRUZ ANDREOTTI, G., 1998, (editoreak), *Los límites de la tierra: el espacio geográfico en las culturas mediterráneas*, *Mediterranea* 3. zk.

Iberiar penintsula hizpide duten antzinateko autoreen bilduma eroso, in SCHULTEN, A., 1922hh (koord), *Fontes Hispaniae Antiquae*, Bartzelona. Dena den, iruzkin historiko eguneratuak nahi izanez gero, gaztelaniazko *Biblioteca Clásica Gredos*, eta *Clásicos de Grecia y Roma* edizioak aholkatzen dira (Alianza Editorial), baita Mangas, J. eta D. Plácido koordinatzen ari diren antzinateko autoreen edizioa (*Testimonia Hispaniae Antiqua* = THA), Madril, 1994hh).

LATINDAR EPIGRAFIA:

HÜBNER, E. (ed.), 1869, *Corpus Inscriptionum Latinarum* (= CIL) II, Berlin (osagarria: 1892).

Aurkikuntza berriei buruz : *Hispania Epigraphica*, Madril, 1989-.

AURRELATINDAR EPIGRAFIA:

ALMAGRO-GORBEA, M., 2003, *Epigrafía prerromana*, Historiako Errege Akademia, Madril.

MALUQUER DE MOTES, J., 1968, *Epigrafía prelatina de la Península Ibérica*, Bartzelona.

UNTERMANN, J. (ed.), 1980hh, *Monumenta Linguarum Hispanicarum*, Wiesbaden.

NUMISMATIKA:

BELTRÁN, A., 1953, *La moneda hispánica antigua*, Madril.

GARCÍA-BELLIDO, M^a P. ETA BLÁZQUEZ, C., 2001, *Diccionario de cecas y pueblos hispánicos*, 2 liburuki, Madril.

GUADÁN, A.M., 1969, *Numismática ibera e ibero-romana*, Madril.

VILLARONGA, L., 1987, *Numismática antigua de Hispania*, Bartzelona.

Iberiar penintsulako antzinateari buruz arkeologia, linguistika eta historia mailan egindako lanen inguruko bibliografiaren eguneratze baliotsua eskaintzen du bost urtez behin *Revue des Études Anciennes* aldizkariak: *Histoire et archéologie de la Péninsule Ibérique antique. Chroniques quinquennales 1968-1987*, Paris, 1993hh.

1. Kapituluak: Zeltak eta feniziarrek Iberiar penintsulan

ZELTEI BURUZ :

BATZUEN ARTEAN, 1993, *Los celtas: Hispania y Europa*. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, 1992ko uda ikastaroak. Actas de El Escorial, Madril.

ARENAS, J. A., 2001-2002, «La influencia del mundo paleopúnico en la Meseta oriental», in *El mundo púnico. Religión, antropología y cultura material*, Murziako Unibertsitatea, Instituto del Próximo Oriente antiguo, 157-171.

ARENAS, J. A., 2005, «El mundo celtibérico y sus relaciones con el mundo ibérico y mediterráneo», in *Celtíberos. Tras la estela de Numancia*. Erakusketako katalogoa, Soria, 395-400.

ARENAS, J. ETA PALACIOS, M^a V. (editoreak), 1998-1999. *Actas de los Encuentros sobre «El origen del mundo celtibérico»*, Molina de Aragón.

ARENAS, J. A. ETA MARTÍNEZ, J. P., 1999, «El origen de la cultura celtibérica», in *Celtíberos: Homenaje a J.L. Argente*, [Revista de Soria 25, 2^a época], 19-28.

ARIAS VILAS, F., 2002, «Las fases de la Cultura Castreña en Galicia: un debate abierto», in *Los poblados fortificados del Noroeste de la Península Ibérica: Formación y desarrollo de la cultura castreña. Coloquios de Arqueología en la Cuenca del Navia*. Naviako Udala, Navia, 127-137.

BELÉN, M^a ETA CHAPA T., 1997, *La Edad del Hierro*. (*H^a Universal* bilduma 11.) *Prehistoria* (4. eta 5. kap.), Síntesis, Madril.

- BERROCAL, L., 1992, *Los pueblos célticos del Suroeste de la Península Ibérica*, Complutum Extra 2, Madril.
- BOSCH GIMPERA, P., 1945, *El poblamiento antiguo y la formación de los pueblos de España*, Mexiko.
- BOSCH GIMPERA, P., 1974, *Paleoetnología de la Península Ibérica. Colección de trabajos sobre los celtas, iberos, vascos, griegos y fenicios*, Graz.
- BURILLO, F., 1998, *Los celtíberos*, Ed. Crítica Grijalvo. Arqueología, Bartzelona.
- CIPRÉS TORRES, P., 1999, «El impacto de los celtas en la Península Ibérica según Estrabón», in G. Cruz Andreotti (koord.), *Estrabón e Iberia: Nuevas perspectivas de estudio*. Málagaoko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [*Thema* 8], Málaga, 121-152.
- DE BERNARDO STEMPEL, P., 2002, «Centro y áreas laterales: la formación del celtibérico sobre el fondo del celta peninsular hispano», *Palaeohispanica* 2, 89-132.
- DE HOZ, J., 1992, «The celts of the Iberian Peninsula», *Zeitschrift für Celtische Philologie* 45, 1-39.
- DE HOZ, J., 1994, «*Castellum Aviliobris*, Los celtas del extremo occidental continental», in *Indogermanica et caucasica: Festschrift für K.H. Schmidt zum 65. Geburtstag*, Berlin, 348 eta hurrengoak.
- GARCÍA ALONSO, J. L., 2005, «Indoeuropeos en el Nordeste», *Acta Palaeohispanica IX*, [*Palaeohispanica* 5], 235-258.
- GARCÍA-BELLIDO, M^a P., 1995, «Célticos y púnicos en la Beturia según sus documentos moneales», in *Celtas y Túrdulos: la Beturia. Cuadernos Emeritenses* 9, 255-292.
- GARCÍA-BELLIDO, M^a P., 1999, «Notas numismáticas sobre los berones y su territorio», in F. Villar eta F. Beltrán (editoreak), *Pueblos, lenguas y escrituras en la Hispania prerromana. Actas del VII Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca, 203-220.
- GORROCHATEGUI, J., 1987, «En torno a la clasificación del lusitano», in *Actas del IV Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, [*Veleia* 2-3], 77-91.
- LORRIO, A. J., 1995, «Celtas y celtíberos en la Península Ibérica», in *Celtas y Túrdulos: la Beturia. Cuadernos Emeritenses* 9, 79-126.
- RUIZ ZAPATERO, G., 1985, *Los Campos de Urnas del NE. de la Península Ibérica*. 2 liburuki. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Argitaldaria, Madril.
- RUIZ ZAPATERO, G., 1995, «El substrato de la Celtiberia Citerior. El problema de las Invasiones», in *III Simposio sobre los celtíberos. Poblamiento celtibérico*, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 25-40.
- UNTERMANN, J., 1993, «Anotaciones al estudio de las lenguas prerromanas del noroeste de la Península Ibérica», in *Galicia: da romanidade á xermanización. Problemas históricos e culturais. Actas do encontro científico en homenaxe a Fermín Bouza Brey (1901-1973)*, Santiago de Compostela, 367-397.
- UNTERMANN, J., 2004, «Célticos y túrdulos», *Palaeohispanica* 4, 199-214.

FENIZIAR AGERPENARI BURUZ:

- BATZUEN ARTEAN, 1992, *La colonización fenicia en el sur de la Península Ibérica. 100 años de investigación*. Mintegiko aktak. Almería, 1990ko ekainaren 5-7, Instituto de estudios Almerienses, Humanidades bilduma 5.
- BATZUEN ARTEAN, 2004, *XVIII Jornadas de Arqueología fenicio-púnica* (Eivissa 2003). *Colonialismo e interacción cultural: El impacto fenicio púnico en las sociedades autóctonas de Occidente*, Eivissa.
- ALVAR, J., 1999, «Los fenicios en Occidente», in J. M^a Blázquez, J. Alvar eta C. G. González Wagner, *Fenicios y cartagineses en el mediterráneo*, Cátedra/Serie Minor, Madril, 313-450.
- ARRUDA, A. M., 1999-2000, *Los fenicios en Portugal. Fenicios y mundo indígena en el centro y sur de Portugal (siglos VIII-VI a.C.)*, Cuadernos de Arqueología Mediterránea 5-6. Pompeu Fabra Unibertsitateko Arkeologiako Laborategiaren argitalpenak.
- ARTEAGA, O. ET AL., 1995, «El problema del «Lacus Ligustinus». Investigaciones geoarqueológicas en torno a las marismas del Bajo Guadalquivir», in *Actas del Congreso conmemorativo del V Symposium Internacional de Prehistoria Peninsular. Tartessos 25 años después 1968-1993*, Jerez de la Frontera, 99-135.
- AUBET, M^a E., 1994, *Tiro y las colonias fenicias de Occidente*, 2. argit., Ed. Crítica/Arqueología, Bartzelona.
- AUBET, M^a E., 1995, «Las colonias fenicias de Málaga y su periferia indígena», *Extremadura Arqueológica* 5, 137-150.
- AUBET, M^a E. (koord.), 1997, *Los fenicios en Málaga*, Málagako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [Thema 6], Málaga.
- AUBET, M^a E., 2000, «Cádiz y el comercio atlántico», in *Actas del IV Congreso Internacional de Estudios Fenicios y Púnicos*. 1. liburukia (Cádiz, 1995eko urriaren 2-6), Cádizko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Cádiz, 31-42.
- AUBET, M^a E., 2002, «Los fenicios en Occidente: balance y estado de la cuestión», in B. Costa eta J. H. Fernández, (editoreak), *XVI Jornadas de arqueología fenicio-púnica. La colonización fenicia de occidente. Estado de la investigación en los inicios del s. XXI* (Eivissa 2001), Eivissa, 7-18.
- AUBET, M^a E. ET AL., 1999, *Cerro del Villar-I. El asentamiento fenicio en la desembocadura del río Guadalhorce y su interacción con el hinterland*, Sevilla.
- BARCELÓ, P., 1985, «Ebusus ¿colonia fenicia o cartaginesa?», *Gerión* 3, 271-282.
- BELÉN, M^a. ETA ESCACENA, J. L., 1995, «Interacción cultural fenicios-indígenas en el Bajo Guadalquivir», *Kolaios* 4.1, 67-101.
- BUNNENS, G., 1979, *L'expansion phénicienne en Méditerranée*, Brusela- Erroma.
- CABRERA BONET, P., 1996, «Emporion y el comercio griego arcaico en el Nordeste de la Península Ibérica», in R. Olmos eta P. Rouillard (editoreak), *Formes archaïques et arts ibériques. Collection de la Casa de Velázquez* 59, Madril, 43-54.
- CELESTINO PÉREZ, S., 2001, *Estelas de guerrero y estelas diademadas. La precolonización y formación del mundo tartésico*, Bellaterra Arqueología, Bartzelona.

- COSTA, B. ETA HERNÁNDEZ, J. H., 2000, «El establecimiento de los fenicios en Ibiza: algunas cuestiones actualmente en debate», in *Actas del IV Congreso Internacional de Estudios Fenicios y Púnicos*. 1. liburukia. (Cádiz, 1995eko urriaren 2-6), Cádizko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Cádiz, 91-101.
- CRUZ ANDREOTTI, G., 1992, «La visión geográfica de *Gades* en Estrabón: la elaboración de un paradigma geográfico», *DHA* 20. 1, 57-85.
- CUNCHILLOS, J.L. ETA ZAMORA, J. A., 2004, «La epigrafía fenicia del yacimiento del Castillo de Doña Blanca (El Puerto de Santa María, Cádiz)», *Palaeohispanica* 4, 111-134.
- FERNÁNDEZ NIETO, F. J., 1999, «Economía de la colonización fenicia y griega en la Península Ibérica», *Studia Historica, Historia Antigua* 17, 25-58.
- GABBA, E., 1999, «Problemi di metodo per la storia di Roma arcaica», in GABBA, E. (a cura di), *Introduzione alla Storia di Roma*, Milan, 13-26. LED Edizioni Universitarie.
- GARCÍA Y BELLIDO, A., 1963, «*Hercules Gaditanus*», *AEspA* XXXVI, 70-153.
- GÓMEZ BELLARD, C. (ed.), 2003, *Ecohistoria del paisaje agrario. La agricultura fenicio-púnica en el Mediterráneo*, Universitat de València, València.
- MARÍN CEBALLOS, M^a C., 1993, «La colonización fenicia de la Península Ibérica en la época arcaica. Problemas y evidencias», in *I Coloquio de Historia Antigua de Andalucía*, Córdoba, 19-47.
- MARÍN CEBALLOS, M^a C. ETA JIMÉNEZ FLORES, A. M^a, 2004, «Los santuarios fenicio-púnicos como centros de sabiduría: el templo de Melqart en Gadir», *Huelva Arqueológica*, 20, 217-239.
- MILLÁN LEÓN, J., 1998, *Gades y las navegaciones oceánicas en la Antigüedad (1000 a. C. -500 a. C.)*, Ed. Gráficas Sol, Écija.
- RIBICHINI, S., 2000, «Sui miti della fondazione di Cadice», in *Actas del IV Congreso Internacional de Estudios Fenicios y Púnicos*. 2. liburukia (Cádiz 1995eko urriaren 2-6), 661-668. Cádizko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- RODRÍGUEZ, A., 1988, «El templo de Hércules-Melkart. Un modelo de explotación económica y prestigio político», in *Actas I Congreso peninsular de Historia Antigua*. 2. liburukia, Santiago, 101-110.
- RUIZ MATA, D., 1999, «La fundación de *Gadira* y el Castillo de Doña Blanca: Contrastación textual y arqueológica», *Complutum* 10, 279-317.
- RUIZ MATA, D., 2000a, «Repensando el concepto histórico de Tartessos», *Historiar* 5, apirila, 23-45.
- RUIZ MATA, D. (ed.), 2000b, *Fenicios e indígenas en el Mediterráneo y Occidente: modelos e interacción. Actas de los encuentros de Primavera de la Universidad de Cádiz en el Puerto de Santa María 1998*, El Puerto de Santa María. *Serie encuentros de Primavera en el Puerto*. 3. zk.
- TORRES, M., 1998, «La cronología absoluta europea y el inicio de la colonización fenicia en occidente. Implicaciones cronológicas en Chipre y el Próximo Oriente», *Complutum* 9, 49-60 (eta gaiari dagokion bibliografia).

Iberiar penintsulako feniziar presentziari buruzko bibliografiaren eta ikerketen inguruko egoe-
raren analisi erabilgarria in *Hispania Antiqua* XIX, 1995, 429-467 (CARRILLERO MILLÁN,
A., «Los fenicios en Andalucía oriental: Diez años de investigaciones [1982-1992]», 429-
453; eta SANMARTÍ-GRECO, J., «La colonización fenicio-púnica en Cataluña, País Valen-
ciano y Murcia [1980-1993]», 455-467).

2. kapitulua. Tartessos: aro ekialdezalea

BATZUEN ARTEAN, 2000, *Argantonio Rey de Tartessos* (= *Argantonio*), Kultura eta Hezkuntza
Ministerioa. Consorci de Museus de la Comunitat Valenciana eta El Monte fundazioa,
Sevilla (Bertan: BELÉN, M^a, «Territorio y poblamiento», 79-116).

ALMAGRO-GORBEA, M., 1996, *Ideología y poder en Tartessos y el mundo ibérico*. (1996ko aza-
roaren 17an, M. Almagro-Gorbeak emandako sarrera-diskurtsoa Historiako Errege Aka-
demian).

ALVAR, J., 1991, «La religión como índice de aculturación: el caso de Tartessos», in *II Congres-
so Internazionale di Studi Fenici*, 353-356.

ALVAR, J. ETA BLÁZQUEZ, J. M. (editoreak), 1993, *Los enigmas de Tartesso*. Cátedra, Madril (= *Los enigmas*).

ALVÁREZ MARTÍ-AGUILAR, M., 2005, *Tarteso: la construcción de un mito en la historiografía
española*, Málaga.

ALVÁREZ MARTÍ-AGUILAR, M., 2011 (ed.), *Fenicios en Tartesos: nuevas perspectivas*, Oxford
(BAR Internacional Series, 2245).

ANTONELLI, L., 1997, *I Greci Oltre Gibilterra. Rappresentazioni mitiche dell'estremo occiden-
te e navigazioni commerciali nello spazio atlántico fra VIII e IV secolo a. C. Hesperia* 8,
L'Erma di Bretschneider, Erroma.

AUBET, M^a E., 1984, «La aristocracia tartésica durante el periodo orientalizante», *Opus* 3, 445-
468.

AUBET, M^a E., BARCELÓ, J. A. ETA DELGADO, A., 1996, «Kinship, gender and exchange: The
origins of tartessian aristocracy», in *The Colloquia of the XIII International Congress of
Prehistoric and Protohistoric Sciences*. 12. liburukia- *The Iron Age in Europe*, 145 eta
hurrengoak.

CABRERA BONET, P. ETA SÁNCHEZ FERNÁNDEZ, C. (editoreak), 2000, *Los griegos en España.
Tras las huellas de Heracles*, Museo Arqueológico Nacional, Madril (testuan aipatzen da:
TIVERIOS, M. A. , «Hallazgos tartésicos en el Hereo de Samos», 55-66).

CARO BAROJA, J., 1971, «La realeza y los reyes de la España antigua», in *Estudios sobre la Es-
paña antigua, Cuadernos de la Fundación Pastor* 17, 53-124.

CELESTINO, S. ETA JIMÉNEZ, J. (editoreak), 2005, *Actas del III Simposio Internacional de Ar-
queología de Mérida: Protohistoria del Mediterráneo Occidental* [Anejos de AEspA
XXXV], Mérida.

CIPRÉS TORRES, P. ETA CRUZ ANDREOTTI, G., 1998, «El diseño de un espacio político: el ejem-
plo de la Península Ibérica», in *Los límites de la tierra. El espacio geográfico en las cul-
turas mediterráneas*, Ediciones Clásicas, Madril, 107-146.


- CORREA, J. A., 1992, «La epigrafía tartesia», in D. Hertel, D. eta J. Untermann, (editoreak), *Andalusien zwischen Vorgeschichte und Mittelalter*, Kolonia, 75-114.
- CORREA, J. A., 1996, «La epigrafía del sudoeste: estado de la cuestión», in *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, Salamanca, 65-75.
- CORZO, R., 1998, «El drago de Cádiz en un bronce samio del s. VII a. C.», *Laboratorio de Arte* 11, 27-50.
- CRUZ ANDREOTTI, G., 1991, *Tartessos como problema historiográfico: el espacio mítico y geográfico del Occidente mediterráneo en las fuentes arcaicas y clásicas griegas*, (mikrofilmatuko diskurtsoa), Málaga Unibertsitatea.
- CRUZ ANDREOTTI, G., 1995, «La Península Ibérica en los límites de la ecúmene: el caso de Tartessos», *Polis* 7, 39-75.
- DE HOZ, J., 1986, «Las fuentes escritas sobre Tartessos», in M^a E. Aubet (koord.), *Tartessos. Arqueología Protohistórica del Bajo Guadalquivir*, Sabadell, 25-46.
- DE HOZ, J., 1995, «Tartésio, fenicio y céltico, 25 años después», in *Actas del Congreso conmemorativo del V Symposium Internacional de Prehistoria Peninsular. Tartessos 25 años después 1968-1993*, Ed.: Jerez-ko Udala, Jerez de la Frontera, 591-608.
- FERNÁNDEZ JURADO, J., 1993, «Plata y plomo en el comercio fenicio-tartésico», in *Metalurgia en la Península Ibérica durante el primer milenio a. C.*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 131-166.
- FERNÁNDEZ JURADO, J., 1995, «Economía metalúrgica de Tartessos», in *Actas del Congreso conmemorativo del V Symposium Internacional de Prehistoria Peninsular. Tartessos 25 años después 1968-1993*, Ed.: Jerez-ko Udala, Jerez de la Frontera, 411-417.
- FERNÁNDEZ JURADO, J., 2000, «Fenicios en Tartessos», in *Actas del II Seminario Internacional sobre temas fenicios. Fenicios y Territorio*, Alacant, 89-98.
- GARCÍA MORENO, L. A., 1979, «Justino 44, 4 y la historia interna de Tartessos», *AEspA* 52, 111-130 (jasota in *Id, De Gerión a César. Estudios históricos y filológicos de la España indígena y Romano-republicana*, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2001, 19-40).
- GASCÓ, F., 1987, «¿Curetes o cunetes? Justino XLIV, 4, 1», *Gerión* 5, 183-194.
- GONZÁLEZ WAGNER, C., 1986a, «Tartessos y las tradiciones literarias», *RSF* XIV, 2, 201-228.
- GONZÁLEZ WAGNER, C., 1986b, «Notas en torno a la aculturación de Tartessos», *Gerión* 4, 129-160.
- GONZÁLEZ WAGNER, C., 1993, «Las estructuras del mundo tartésico», in *Los enigmas*, 103-116.
- KOCH, M., 2003, *Estudios histórico-geográficos y etimológicos sobre la colonización fenicia de la Península Ibérica*, Centro de estudios fenicios y púnicos de la Universidad Complutense, Madril (1984ko alemanezko edizioa gaztelaniazko 1. edizioa).
- LÓPEZ PARDO, F., 1990, «Sobre la función del edificio singular de Cancho Roano (Zalamea de la Serena, Badajoz)», *Gerión* 8, 141-162.
- OLMOS, R., 1995, «Usos y lecturas de la moneda en la Hispania prerromana», *Anejos AEspA* XIX, 41 eta hurrengoak.

- PEREA, A., 1991, *Orfebrería prerromana. Arqueología del oro*, Ed. Caja y Comunidad de Madrid, Madrid.
- PLÁCIDO, D., 1993, «Los viajes griegos al extremo occidental: del mito a la historia», in *Actas del Coloquio sobre Historia de Andalucía I*, Publicaciones del Monte de Piedad y Caja de Ahorros de Córdoba, Córdoba, 173-180.
- PLÁCIDO, D., 1995-1996, «La imagen simbólica de la Península Ibérica en la Antigüedad», *Studia Historica. Historia Antigua* 13-1, 21-35.
- RUIZ MATA, D., 2001, «Tartessos», in *Protohistoria de la Península Ibérica. Ariel Prehistoria*, Ariel, Barcelona, 1-190.
- UNTERMANN, J., 2000, «Lenguas y escrituras en torno a Tartessos», in *Argantonio*, 68-77.
- 3. Kapituluua. Iberiar penintsulako hegoaldeko erromatarren aurreko herriak: turdetaniarrak**
- BATZUEN ARTEAN, 1998, *Los Iberos. Príncipes de Occidente. Catálogo de la Exposición*, La Caixa Fundazioa, Barcelona.
- ALMAGRO-GORBEA, M., 1986, «El área superficial de las poblaciones ibéricas», in *Los asentamientos ibéricos ante la romanización*, Kulturako Ministerioko Argitaldaria, Madrid, 21-34.
- ALONSO NÚÑEZ, J. M., 1999, «La Turdetania de Estrabón», in G. Cruz Andreotti (koord.), *Estrabón e Iberia: Nuevas perspectivas de estudio*. Málaga Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [Thema 8], Málaga, 101-120.
- BELÉN, M^a ETA ESCACENA, J. L., 1992, «Las comunidades prerromanas de la Andalucía Occidental», *Complutum* 2-3, 65-88.
- BELÉN, M^a ETA ESCACENA, J. L., 1997, «Economía y sociedad en la Turdetania de los siglos V-IV a. C.», in *La Andalucía ibero-turdetana (Siglos VI-IV a. C.)*, [Huelva Arqueológica XIV], Huelva, 137-160.
- BENDALA, M. ETA CORZO, R., 1992, «Etnografía de la Andalucía Occidental», *Complutum* 2-3, 89-100.
- CRUZ ANDREOTTI, G., 1993, «Estrabón y el pasado turdetano: la recuperación del mito tartésico», *Geographia Antiqua* 11, 13-31.
- CRUZ ANDREOTTI, G., 1995, «La Península Ibérica en los límites de la ecúmene: el caso de Tartessos», *Polis* 7, 39-75.
- CRUZ ANDREOTTI G. ETA MORA SERRANO, B. (koord.), 2004, *Identidades étnicas-identidades políticas en el mundo prerromano hispano*, Málaga Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Málaga, 31-62.
- GARCÍA-BELLIDO, M^a P. ETA RIPOLLÉS, P. P., 1998, «La moneda ibérica: prestigio y espacio económico de los iberos», in *Actas del Congreso Internacional: Los Iberos príncipes de Occidente. Estructuras de poder en la sociedad ibérica*, La Caixa Fundazioa, Barcelona, 205-215.
- GARCÍA FERNÁNDEZ, F., 2003, *Los turdetanos en la Historia: análisis de los testimonios literarios grecolatinos*, Ed. Gráficas Sol, Écija.




- GARCÍA MORENO, L. A., 1986, «Sobre el decreto de Paulo Emilio y la *Turris Lascutana*», in *Actas de la reunión sobre Epigrafía hispánica de época romano-republicana*, Institución Fernando El Católico, Zaragoza, 195-218.
- GARCÍA MORENO, L. A., 1989, «Turdetanos, túrdulos y tartessios. Una hipótesis», in *Homenaje al profesor Santiago Montero Díaz. Anejos de Gerión II*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, 289-294 (orain jasota in *Id.*, *De Gerión a César. Estudios históricos y filológicos de la España indígena y Romano-republicana*, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Alcalá de Henares, 2001, 19-40).
- HIDALGO DE LA VEGA, M^a J., 1989, «El bronce de *Lascuta*: un balance historiográfico», *Studia Histórica. Historia Antigua*, 59-65.
- MANGAS, J., 1977, «Servidumbre comunitaria en la Bética prerromana», *Memorias de H^a Antigua I*, 151-159.
- MARCO, F., 1986, «La *manumissio* oficial de Emilio Paulo en el marco de la política internacional romana del s. II a. C.», in *Actas de la reunión sobre Epigrafía hispánica de época romano-republicana*, Zaragoza, 219-226.
- MORET, P., 1996, *Les fortifications ibériques de la fin de l'âge du Bronze à la conquête romaine*. Colección de la Casa de Velázquez 56, Madrid.
- NEGUERUELA, I., 1998, «Las esculturas del Cerrillo Blanco de Porcuna», in *Actas del Congreso Internacional: Los Iberos príncipes de Occidente. Estructuras de poder en la sociedad ibérica*, La Caixa Fundazioa, Barcelona, 170-171.
- RODRÍGUEZ NEILA, J. F., 1998, «*Hispani principes*. Algunas reflexiones sobre los grupos dirigentes de la *Hispania* prerromana», *Cuadernos de Arqueología. Universidad de Navarra* 6, 99-137.
- ROUILLARD, P., 1986, «Urbanisme et vie publique dans l'Espagne préromaine VI-IV s. av. JC.», in *Los asentamientos ibéricos ante la romanización*, Madrid, 35-41.
- RUÍZ MATA, D., 1997, «Fenicios, tartessios y turdetanos», in *La Andalucía ibero-turdetana (Siglos VI-IV a. C.)*, [Huelva Arqueológica XIV], Huelva, 325-366.
- RUÍZ MATA, D., ET AL., 1998a, «La ciudad tartésica-turdetana», in *Actas del Congreso Internacional: Los Iberos príncipes de Occidente. Estructuras de poder en la sociedad ibérica*, La Caixa Fundazioa, Barcelona, 65-82.
- RUÍZ MATA, D. ET AL., 1998b, «Vinos, aceites y salazones en la Turdetania», in *Actas del Congreso Internacional: Los Iberos príncipes de Occidente. Estructuras de poder en la sociedad ibérica*, La Caixa Fundazioa, Barcelona, 387-398.
- TROTTA, F., 1999, «Estrabón, el libro III y la tradición geográfica», in G. Cruz Andreotti (koord.), *Estrabón e Iberia: Nuevas perspectivas de estudio*, Málaga Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [Thema 8], Málaga, 81-100.
- UNTERMANN, J., 1985, «Lenguas y unidades políticas del suroeste hispánico en época prerromana», in *De Tartessos a Cervantes*, Kolonia, 1-40.
- WULFF ALFONSO, F. ETA ALVÁREZ MARTÍ-AGUILAR, M. (editoreak), 2009, *Identidades, culturas y territorios en la Andalucía prerromana*, Sevilla-Málaga.

4.3. MAPAK

1. mapa. Herri zeltak eta zeltikoak Estrabonen iritziz
(Lasserreren maparen arabera egina, Paris 1966)



2. mapa. Kutxa-zelaietako kultura Ipar-ekialdean (Ruiz Zapatero, G., 1985, t. II, 1061).




1 = Kutxa-zelai zaharrak (1100-900 K.a.): sarrerak

2 = Kutxa-zelai berriak (900-700 K.a.): garapen autoktonoa eta eskualdeko taldeen eraketa

3 = Burdin Aroko kutxa-zelaiak (700-500 K.a.): Mediterranear koloniek eragindako aldaketak


3. mapa. Feniziar ezarmenduak Iberiar Penintsulan (Alvar, J., 1999, 315)




4. mapa. Ekialdeko Andaluziako feniziar koloniak (●, ○) eta Azken Brontze Aroko ezarmendu indigenak (▲) (Aubet, M. E., 1994, 262).




5. mapa. Málagaeko eskualdeko feniziar koloniak (○) eta Azken Brontze/Burdin Aroko herrixka indigenak erakutsiz (●) (Aubet, M. E., 1995, 139).



6. mapa. Penintsulako Ekialde eta Ipar-ekialdea: ezarmendu indigenak (●) eta feniziar koloniak (○) (Aubet, M. E., 1994, 292).



7. mapa. Tartesotar eskualdea eta haren eragina jasandako zonaldeak (Aubet, M. E., 1990, 43).



8. mapa. Turdetania Estrabonen iritziz (Lasserreren maparen arabera egina, Paris 1966)

